

# JAKIN

JOSE RAMON ZABALA  
«EKIN»: ARGI BAT ILUNTASUNEAN  
MIKEL NAVARRO  
ENPRESEN I+Gko IHARDUERAK EAEn  
MARI JOSE ARANBURU  
EUSKAL ARTEAREN HISTORIARI BURUZKO  
BIBLIOGRAFIA

JOXEAN MUÑOZ  
INAKI IRAZABALBEITIA  
HASIER ETXEBERRIA  
ELIXABETE GARMENDIA  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
BEGOÑA DEL TESO  
KIKE AMONARRIZ  
EGUNEN GURPILEAN

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK EUSKARAZ

80

URTARRILA-OTSAILA 1994



# JAKIN

80

URTARRILA-OTSAILA 1994



*Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

# AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	ALIAK	9
	JOSE RAMON ZABALA «EKIN»: ARGI BAT ILUNTASUNEAN	29
	MIKEL NAVARRO ENPRESEN 1+Gko IHARDUERAK EAEn	55
	MARI JOSE ARANBURU EUSKAL ARTEAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA	
E	GUNEN GURPILEAN	73
	JOXEAN MUÑOZ INAKI IRAZABALBETIA HASIER ETXEBERRIA ELIXABETE GARMENDIA XABIER MENDIGUREN ELIZEGI BEGOÑA DEL TESO KIKE AMONARRIZ	
I	IBURUAK	111
	XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK EUSKARAZ	119
	IDAZKARITZA JASO DITUGU	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON  
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,  
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ  
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN  
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1994ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.500 pta.	—
Ale arrunta	750 pta.	1.125 pta.
KANPOAN		
Harpidetza	5.000 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	850 pta. (40 FF)	1.300 pta. (60 FF)

# SUMMARY

## THE EKIN PUBLISHING COMPANY: A LIGHT IN THE DARKNESS

*JOSÉ RAMON ZABALA*

Among all the publications emanating from exile from the war of '36, whether periodicals or unitary, some promoted by the Basque Government and others by political parties or cultural entities, the EKIN publishing company is the one which stands out. Founded in Buenos Aires by Andrés

María Irujo, it published over one hundred titles in Basque and Spanish throughout the Franco era. Ekin served as a bridge linking domestic and overseas exile, between the prewar and postwar generations and as a link among Basque migrants.

## RESEARCH AND DEVELOPMENT IN ENTERPRISES OF THE AUTONOMOUS BASQUE COMMUNITY

*MIKEL NAVARRO*

The author analyzes, both quantitatively and qualitatively, the current state of programmes of Research and Development in enterprises of the Autonomous Basque Community: the number

and size of enterprises and of Research and Development teams, projects, aid programmes, financing and expenditure on Research and Development activities in the different sectors.

## BIBLIOGRAPHY OF THE HISTORY OF BASQUE ART

*MARIA JOSE ARANBURU*

This bibliographical resumé critically describes and assesses over 50 publications, catalogues, inventories, monographs and synthesis, considered to be among the most important

for the study of the history of Basque art. It embraces all the fields of art: painting, sculpture, architecture, imagery, iconography, etc.

## NEWS TODAY

*VARIOUS AUTHORS*

This section gathers together current trends in subjects related to culture, art, the world of entertainment, science, literature, language and society. The following participate throughout all issues published during the year: Hasier Etxeberria, cultural critic; Jo-

xean Muñoz, art critic; Inaki Irazabalbeitia, Doctor of Chemistry; Elixabete Garmendia, journalist; Kike Amunarriz, socio-linguist; Xabier Mendiguren, literary critic; and Begoña del Teso, film, theatre and television critic.

## THE CLASSICS OF THOUGHT

*XABIER MENDIGUREN*

Klasikoak, S.A. is a non-profit making company founded by the BBV Foundation, the Savings Banks (Cajas de Ahorros) of the Autonomous Basque Community, the University of the Basque Country and the University of Deusto. To date it has published over a dozen works of the uni-

versal classics of thought and culture in Basque. By way of a first phase, it plans to publish 50 titles over a period of 5 years, incorporating subjects, languages and styles with the assistance of the best experts both in the treatment of the subject and in the translation.

# ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 80. zenbakia da eta 1994ko aurrena.

Urteko lehen zenbaki hau gai soltez osaturiko horietakoa da, eta hiru gai-sail nagusiren inguruan antolatu dugu.

Lehena, *Gaiak* saila, hiru idazlanez osatua da, elkarrekiko loturarik gabeak. Unibertsitateko hiru irakaslek idatzia, horra lotura bakarra. Jose Ramon Zabalak Buenos Aires-eko *Ekin* argitaletxea aztertzen du, bertako protagonistak eta emaitza kulturalak. Mikel Navarro ren artikuluak beste eta bestelako gaia du oso: EAEko enpresetan Ikerketa eta Garapena nola gauzatzaren diren gaur egun. Lehen aldiz heltzen diogu munta handiko gai honi. Mari Jose Aranbururena da hirugarren gai nagusia: Euskal Herriko artearen historiaz gida bibliografiko intere-sgarria eskaintzen digu honek.



Bigarren gai-sail nagusia, oraingo honetan, *Egunen Gurpilean* sailean biltzen diren artikulusek osatzen dute. Historiaren eboluzioari eta gertakariei hurbilagotik lotu nahiak saila zabaltzera eraman gaitu aurten. Hiru zentzutan zabaltzera: Lankide ugariago: Zahar eta berri, zazpi denetara, Kike Amonnarriz, Hasier Etxeberria, Elixabete Garmendia, Inaki Irazabalbeitia, Xabier Mendiguren Elizegi, Joxean Muñoz, Begoña del Teso. Orrialde-kopuru gehiago: aldizkariaren lautik bat gutxi gorabehera. Eta batez ere, gai-aukera handiagoa: orain arteko Kultura, Artea, Ikuskizunak eta Zientzia gaietara Literatura, Soziolinguistika eta Gizartea erantsi dizkiegu.

*Liburuak* gai-saila da hirugarrena eta azkena. Xabier Mendiguren Bereziartuk, proiektuaren Zuzendaria bera, *Pentsamenduaren Klasikoak* euskaratzeko egitasmoaren helburuak, ezaugarri nagusiak eta beronen eraginak zehazten dizkigu. Eta zenbakia itxi, aldizkariaren bulegoan azken aldi honetan jaso ditugun liburuen fitxa bibliografikoarekin isten dugu 1994ko lehen zenbaki hau.

# GAIAK

---

JOSE RAMON ZABALA

«EKIN»: ARGI BAT ILUNTASUNEAN

MIKEL NAVARRO

ENPRESEN I+Gko IHARDUERAK EAEn

MARI JOSE ARANBURU

EUSKAL ARTEAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

# «EKIN»: ARGI BAT ILUNTASUNEAN

Erbesteko argitaletxeak 1936an

JOSE RAMON ZABALA

---

1936ko gerra ondorengo kultura berreskuratzea da, zalan-tzarik gabe, gaur egungo euskal kulturaren hutsune nagusietariko bat. Horren barne, euskal exiliatuek bultzatutako argitaletxe-ekintza dugu agian gehien batean baztertu egin den lana. Esan daiteke gure artean ahaztuenetatik ahaztuenak argitaletxeak izan direla, ezen horien inguruko aipamenak ia beti bigarren mailakoak izan baitira.

Errealitate horri ez doakio bat argitaletxeek edozein denboretako kultur egoera neurtzeko merezi izan behar dute balorazioa. Iritzi hau Enrique Krauzek azpimarratu du ongi:

«Se olvida a menudo que la historia de la cultura en un país no es sólo la de sus autores y sus obras. Es también la historia material de esa cultura. Dentro de ella, uno de los capítulos fundamentales es el de la industria editorial.»<sup>1</sup>

Hala ere, ez da horrela egin euskal exilioaren lana azterterakoan eta hortik dator une honetan enpresa haiek ahanztu u retatik ateratzeko zailtasuna, azken finean frankismoaren errepressioko urte gorrietan gure herriko kultura bizirik mantetzea saiatu zirenak. Egoera horren jatorriaz sakontzean, onartu behar dugu oso jarrera zabaldua izan dela gure kritikari eta historiagileen artean axolagabekeria hori. Egia da ere atzerriko argitaletxe gehienak bizitza umila izan zutela arazo ekonomiko larriak zirela medio; gehienetan enpresa horiek pertsona konkretu batzuen ahaleginei esker atera ziren aurrera, benetazko proiektu kulturalak izan barik. Bi ideia hauek, boluntarismoa eta baliabide ekonomikoen eza, justifikatzen dute ezagutzen dugun argitaletxeen mugatasuna eta urritasuna.

Normalean, atzerriratuentzat errazagoa zen aldizkari bat antolatzea, zeuzkaten ideiak zabaltzeko asmoz, argitaletxe bat baino, azken finean liburuak material eta giza azpiegitura askoz handiagoa exigitzen baitute. Aldizkari bat sortzeko, ordea, nahiko ziren borondatea eta diru-kantitate txiki bat; gainera lanaren ondorioak berehala ikusten ziren. Horregatik, ulergarria da gerra ondoren eman zen aldizkarien bapateko sorkuntza. Ez zen, aldiz, hori gertatu editorialekin, askoz eskasagoak eta bizitza motzekoak baitira, momentuzko behar ekonomikoengatik<sup>2</sup>. Beste aldetik, enpresa hauen ahultasunak mugatzen zituen emaitzak eta hori ere oztopo bihurtzen da ikerketarako zeren eta ez baita batere erraza argitaletxetako ondareak ondo ezagutzea.

Testuinguru horretan Buenos Airesko *Ekin* agertzen da benetazko salbuespena bezala, bere eragin kulturala gaur egundaino luzatuz, batez ere Argentinan kokatzen den euskal migrazioaren indarrari esker.

## EUSKAL GOBERNUAREN ARGITALPEN-LANAK

Dena den, liburuaren munduko lehenengo ekintzak euskal instituzioen eskutik sortu ziren, European eta Ameriketara aurrera zeramatzen gerra propagandistikoaren ondorio bezala.

Kanpaina horiek bultzatu ziren frankistek aurrera eramaten zituztenei nolabait erantzuteko:

«Los servicios de propaganda vascos se mueven febrilmente. Para conseguir una mayor efectividad, el Gobierno Vasco contrata a un experto en el tema, el suizo Goergen. Cuentan además con la inestimable colaboración del prestigioso periodista francés Paul Vignaux (...) folletos, libros y otro tipo de publicaciones.»<sup>3</sup>

Politika honen ondorioz liburu-multzo bat sortuko da, hizkuntz desberdinetara itzuliak:

«Dentro de este esfuerzo propagandístico, aparecen entre 1937 y 1939, una serie de libros y folletos, patrocinados por el Gobierno Vasco en español, francés, catalán, inglés, francés, alemán y checo. En 1937, se publican las obras de Alfredo Mendizábal, *Los orígenes de una tragedia. La política española de 1923 a 1936*; de George Steer, *The tree of Guernica*; de Ivonne Cloud, *Basque children in England*. En 1938 aparecen; de Iñaki Aberriogoyen (Iñaki Azpiazu), *7 mois et 7 jours dans l'Espagne de Franco*; de Ricard Altaba-Planuc, *Vuit mesos a Delegació del Govern d'Euzkadi a Catalunya*; de José de Aralar, *La rebelión militar española y el pueblo vasco* (Buenos Aires), del Dr. de Azpilikoeta (seudónimo de Aguirre), *Le problème basque (vu par le Cardinal Gomá et le Président Aguirre)*; de Pierre Dumas, *Le tragique destin d'Euzkadi*; de Ibon de Egi-zale, *Un homme, un clergé, un peuple*; de Victor Montserrat, *Le drame de un peuple incompris*; de Jean Pelletier, *Seis meses en las prisiones de Franco* (Buenos Aires), o de Angel Zumeta, *La teología de la invasión franquista.*»<sup>4</sup>

Konfliktoa aurrera zihoan heinean zerrenda titulu berriekin handitu zen, batez ere euskal egoerak eragindako elkarte lagunkideen eskutik. Horrela, besteak beste, Catalunyaoko Generalitat-earn «Comissariat de Propagande» delakoak Basalduaren *El dolor de Euzkadi* (1937) liburuxka eta goian aipatutako Altaba-Planuc-ena (1938) eman zituen argitara.

Aldiz, frantsesez agertutakoen kasuan, gehien batean Pariseko Peyre argitaletxea izan zen arduraduna; esaterako Víctor Montserrat eta Iñaki Aberriogoyen-en lanak eta euskal apaizek jasandako errepresioari buruzko erreportaje-sorta batena, *Le clergé Basque* izenburupean. Agirreren lana, ordea, Editions Bernard Grasset-ek argitaratu zuen. Beste aldetik, gaiaren

aktualitateak bultzatu zuen beste izenburuen agerpena, Pierre Dumas-en *Euzkadi. Les Basques devant la guerre d'Espagne* bezalakoa (1937)<sup>5</sup>.

Hasiera batean, liburu hauen argitalpena gaurkotasunari itsatsita zihoan eta posible zen Euskal Gobernuaren lotura ez zeukaten argitaletxeen eskuetan uztea. Aukera hori gero eta zailagoa egin zen gerra aurreratzen zihoan neurrian, gaiak aktualitatea galdu zuen arabera, batez ere konfliktu berriak sortu zirenean. Horrek problema berriak planteatu zituen ezen argitaletxe komertzialetan ez baitzuten jasan nahi arrisku ekonomikorik. Horren ondorioz Jaurlaritzak eta haren delegazioek hartu izan behar zuten euren gainean material horien argitalpenaren konpromesua. Horrela New York-eko delegazioak 1938. urtean sortzen zuen berezko argitaletxea, «The Basque Archives», non 1939an *The Basque Problem*<sup>6</sup> liburua agertuko zen.

Beste delegazio batzuk ekin zitoten ere liburuak eta liburuxkak argitaratzeko lanari. Chileko Delegazioaren kasua da; honek 1942. urteko Agirre lehendakariaren Gabonetako diskurtsua eta 1944an Manuel de la Sotak idatzitako *La democracia vasca* liburuxka, lehen *Basques* aldizkarian agertutakoa, eman zituen prentsara. Antzeko gauza egin zuen Cubako Euskal Delegazioak lehendakariaren 1944ko *Mensaje de Navidad y Año Nuevo* liburuxka argitaratzean.

Ikusten denez, literatura politikoa zen, euskal gizartea gorai-patzen zuena eta, aldi berean, frankismoak bultzatutako krimenen salaketa argira ateratzen zuena. Lan hauek bizitza luzea izango dute, behin eta berriro ere argitaratuak argitaletxe eta hizkuntza desberdinetan. Adibide moduan George L. Steer-en liburu dugu, *El árbol de Guernica*, zabalduenetariko, edo Iñaki de Azpiazurena, *7 días en la España de Franco*, oraindik 1963 eta 1964. urteetan berriro kaleratuak izan zirenak Venezuelan *Gudari* Argitaletxearen eskutik. Lan hauen multzoa beste estrategia zabalago baten barne kokatzen zen, non egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, postalak, diskak, Gernika eta Bilboko bonbardaketei eta euskal umeen atzerri-ratzeari buruzko dokumentalak, Eresoinka abesbatzaren ekitaldiak edo Euzkadi futbol-taldearenak sartzen ziren ere.

Orain arte aipatu ditugun lanekin batera gobernuak egin-dako zenbait txosten gehitu behar dugu, esaterako *Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren Ordezkaritza Nagusia Catalunyan*<sup>7</sup> edo *Etude sur le Pays Basque*<sup>8</sup>. Edozein kasutan azken hauek, lan praktikokoak ziren, une historikoak exigitzen zituenak, arazo kulturarak aparte lagaturik.

## BESTE INIZIATIBAK

Handiak baldin baziren instituzio eta exilioko delegazioek literatura disidenteak zabaltzeko gaintitu behar zituzten oztopoak, ez ziren txikiagoak partidu politikoek eta intelektualek aurre egin behar zituztenak haien idazlanak publikoak egiteko. Argitaratze-prozesuak ondare ekonomiko handia eskatzen zuen eta horri kolektibo hauek nekez erantzun ziezaioketen. Horrela gauzak, sarritan idazleek beraiek finantziatu izan behar zituzten euren liburuen edizioak. Horrela egin zuten, adibidez, Ramon de Belausteguigoitiak *Euzkadi en llamas* argitaratzeko (México, 1938), Jose Olivares Larrondo «Tellagorri»k *París abandonada* (La Habana, 1942) eta *Las horas joviales* ateratzeko (Buenos Aires, 1950) edo Victor Ruiz Añibarrok, *Vascos, sí sí* liburuaren egileak (Buenos Aires, 1950).

Dena dela, atzerrian sortu ziren argitaletxeen zerrenda ez da eskasa; hala ere onartu beharko dugu hauei buruz dauzkagun datuak nahiko mugatuak direla. Alde batetik, suposa daitekeenez, Euskal Etxeek horrelako proiektuak bultzatzen zituzten, lehiaketa literarioak antolatuz eta irabazle suertatzen ziren lanak publikatuz edo almanakak eta hitzaldien testuak argitaratuz.

Guzti honen adibide moduan 1936ko abenduaren 22an Agirrek egindako diskurtsua Rosario-ko Zazpirak bat elkarrekin plazaratu zuen (Argentina, 1937) edo 1942an Liga de Amigos de los Vascos delako elkarteak *Canciones Vascas* liburua argitaratu zuen (Buenos Aires). Beste hainbeste gertatzen zen aldizkariekin, batzuetan argitaletxe moduan lan egiten zutenak. Horrelako kasu bat *Aberri Aldez* aldizkari mexikarra

dugu; honek 1937. urtean *Tres discursos del Presidente Aguirre. Documentos para la historia del País Vasco* liburuxka atera zuen. Editoreak Jesus Aldamiz eta Etxebarria Arriandiaga ziren, euskal delegazioaren izenburupean. Buenos Aires-eko *Euzko Deya* aldizkariak antzeko zerbait egin zuen Ramon Maria de Aldasorok (1946) eta Pedro de Basalduak (1952) emandako hitzaldiak publikatuz.

Jokin Zaitegirekin adibide berezia aurkitzen dugu. Intelektual honek, *Euzko Gogo*a-ren bultzatzailea, sarritan aldizkarietik ateratako separatak zabaldu zituen independenteki, liburuxka formatuarekin. Horrela egin zuen, esaterako, Shakespeare -ren *King Lear* eta *The Tempest* itzulpenekin<sup>9</sup>, edo zenbait artikuluren bildumarekin, *Adizki berenkoiak Olabide'ren Itun Berria'n* lanaren kasuan, lehen 1958 eta 1959<sup>10</sup> urteetan artikulua bezala argitaratu zituztenak.

Aldi berean, entitate kultural eta politikoen bultzatuak zenbait argitalpen-proiektu sortu zen. Oro har, hauek ez zuten indar handirik eta liburuxka eta lan batzuk argitaratu ondoren, epe motzean, desagertzen ziren. Izan ere, Mexicoko Aklarre aipa dezakegu, Manuel Andujar, Simon de Otaola, donostiarra bera, eta Jose Ramon Aranaren eskutik. Mexicon ere Pizkunde argitaletxe-proiektua dugu; honek, 1945. urtetik, batez ere kreaziozko lanak atera zituen: Telesforo de Monzonen *Urrundik* (1945) poema-liburua, herbesteko lehenengo literatura lana, *Goldaketan* (1946) Jokin Zaitegiren beste poemarioa, *Gernika'tik*, *Berlin zear New York'era*, Agirre lehendakariaren liburuaren itzulpena, idazle klasikoen itzulpenak, hauek Zaitegi eta Andima Ibiñagabeitiak eginak... Bukatzeko, beste bat gogoratu behar dugu, Editorial Vasca izeneko; honetan agertu ziren Luis de Arangurenen *Memorias de un exiliado Vasco* (1958) eta Andoni de Astigarragaren *Historia documental de la guerra en Euzkadi* (1958) liburuak.

Urte batzuk beranduago interes handiko beste foku kulturala Venezuelan sortzen da. Hemen bi izen azpimarratuko dugu: Gudari Argitaletxea eta Cultura Popular Vasca-Erriaren Jakintza. Lehenengoa 1961ean agertu zen eta Gerra Zibi-



lean zehar Euskal Gobernuak ateratako liburuen berrargitaratzeari ekin zion. Horrela zabaltzen dira berriro ere George Steer eta Azpiazuren liburuak, Landabururen *La causa del Pueblo Vasco*, eta hauekin batera, beste lan politikoak, lehen-dakariaren hitzaldiak edo Jose Maria de Leizaolaren *El PNV en la vida práctica de tres cuartos de siglo* liburua. Erriaren Jakintza argitaletxearen kasuan liburu bakar bat ezagutzen dugu, Leizaolaren *Historia de la economía vasca* (1962). Bi enpresetan, beste politiko eta intelektualen artean, Alberto Elósegui, Jesús Dolara eta Mari Paz Matxainek hartu zuten parte.

Ameriketako beste tokitan ere zabalkunde mugatuagoko proiektuak sortu ziren; Chileko Pedro Ormaetxe Aldana izan daiteke horietako adibidea, 1947an *Ipuintxoak* eta urte bat geroxeago *Bigarren ipuintxoak* argitaratu zituen. Europan ere egin ziren saiakerak. 1945. urtean Baionako Comité de Relaciones de Euzkadi Norte erakundeak Manuel Chiapusoren *La ciencia y el joven libertario* liburuxka argitaratu zuen. Zoritxarrez, ekimen hauek porrot egiten zuten diru-faltagatik eta lanak zabalteko oztopoengatik zeren eta kontuan eduki behar baita liburu horien irakurleak gehien batean Hegoaldean aurkitzen zirela, frankismoan.

Kutsu abertzale eta politikoko enpresa hauekin batera zentzu oso desberdineko beste bat aipatu behar dugu, euskal ingurua gainditu zuena, bai argitaratu zituen liburuengatik baita ere zeuzkan helburu kulturalengatik: Buenos Aires-eko Goyanarte argitaletxea.

Juan Goyanarte intelektual ireki eta liberalak (1900-1967) bultzatutako lana izan daiteke, euren garrantzia kontuan izanirik, Euskal Herriko ezezagunetakoa. Hori horrela izan da gauza askoren ondorioz, batez ere Arrasateko idazle eta argitarazle honek oso erlazio eskasa izan zuelako bere jatorrizko herriarekin, ulergarria jakinez gero oso goiz aurrena Frantziara eta gero Argentinara alde egin zuela; azken herri honetan lortu zuen idazle eta negozio-gizonaren ospe handia.

Editorial Goyanarte izenarekin benetazko esperientzia aberatsa eta garrantzitsua eramaten da aurrera, Hegoameriketako kulturaren testuinguruan. Proiektuak bi alde izan zituen: liburu-aldizkari baten publikazioa, 1957. urtetik aurrera, *Ficción* izenekoa, eta entseiu eta nobeletako katalogo zabal baten argitalpena. Bertan agertuko ziren gaztelera oso idazle desberdinen lanak: Lanza del Vasto, Guy des Cars, Truman Capote, Albert Cohen, Cesare Pavese, Gore Vidal, William Faulkner. Aldi berean, argitaletxe honek idazle argentinarren liburuak aurkeztu zituen, Ezequiel Martínez Estrada, Osvaldo Seiguerman edo Hellén Ferro bezalakoak, eta, orokorrean, idazle hegoamerikarrenak, Miguel Angel Asturias-en kasuan. Argentinarraren barne Goyanarte bera aipatzen zen nobela errealisten autore bezala, ezagunenak *Lago argentino*, *Farsa*, *Quemazón* eta *Kilómetro 25* izanez.

Beste aldetik, azpimagarria da ere euskal idazle eta intelektualen partehartzea Espainaren exilioko beste zenbait proiektutan, esaterako Mexicoko Fondo de Cultura Económica delakoan edo, urte batzuk geroago, Pariseko El Ruedo Ibérico<sup>11</sup> argitaletxean. Zentzu berdinean, errepublikar koletibo batzuk bultzatu zituzten ere literatur lehiaketak eta sariak, atzerriko eta disidenten kultura indartzeko helburuarekin. Adibide bezala Mexicoko Unión de Intelectuales Españoles elkarteak 1958an Angela Figuera Aymerich idazle bilbotarrari «Nueva España» poesia saria eman zion, *Belleza cruel* liburuarekin; hau, urte berean, Compañía General de Ediciones-en argitaratua izango zen. Bestetan, euskal idazleen lanak atzerriarekin erlaziorik ez zeukaten argitaletxetan publikatu ziren. Horrela, Mexicoko Finisterre Ernestina de Champourcin-en zenbait poesi liburu ateratu zuen, Mexicokoa ere Cuadernos Americanos eta Córdoba Unibertsitateak (Argentina) gauza bera egin zuen Juan Larrea-ren liburuekin; Mexicoko Impresiones Modernas-ek argitaratu zituen Francisco Turrillas eta Toribio Echeverriaren lanak, Caracasko Ediciones del Cuatricentenario Vicente Amezagarenak, Montevideoko Editorial Florensak Ana Bidegarayen *Cuna vasca* aterako du... Adibide guzti hauetan ikusten da ez dela lan erreza Ameriketako bertako kultura, exi-

lioko kultura espainiarra eta euskal exiliatuen aportazioak bereiztea; azken finean konflikto berdintsuek bultzatuak eta inguru berdinean kokatzen ziren, nahiz eta jatorri geografiko desberdinekoak izan.

Euskal argitaletxe-mundura itzuliz, gure kulturarako lehen mailako garrantzia izango zuen proiektu bat geratzen zaigu aztertzeko, hau da, *Ekin* argitaletxearena, dudarik gabe gure herbesteko ahalegin nagusia, ondorioak eta luzera aztertzen baditugu batipat.

## SEBASTIAN DE AMORRORTU: AZPIEGITURA

*Ekin* Euskal Argitaletxea Buenos Aire s-en sortu zen, 1942. urtean. Dena dela zaila egiten da honen agerpena ulertzea lehentxeago sortutako beste enpresa bat aipatu barik, zeinak gerra garaian gogoa eta euskal erreibindikazioaren aldeko ekimena erakutsi zuen; hau da, Sebastian Amorrortu eta semeak inprimategia.

Sebastian de Amorrortu bilbotarra (1867-1949) euskal nazionalismoarekin lotura estuak izan zituen pertsona zen. Sabino Aranaren adiskidea, bizkaitar hiriburuan izan zuen moldiztegian, Euzko Izarran, honen lan asko argitaratu zituen. 1910ean emigratzera behartua ikusi zuen bere burua «con la empresa al borde de la ruina, con presiones sociales y políticas debido a su militancia nacionalista, abandona casa y tierra para dirigirse a la Argentina»<sup>12</sup>. Inprimategi desberdinetan lan egin ondoren Argentinako Córdobaan berea antolatzea lortu zuen, medikuntzari buruzko lanak argitaratuz batez ere. Poliki-poliki «lo que inicialmente fue un pequeño taller terminó constituyendo una de las imprentas más modernas y dinámicas del país»<sup>13</sup>.

Atzerrian ez ziren bukatu Sebastian de Amorrortu ren ideia abertzaleak; alderantziz, hasiera-hasieratik euskal borroka rekin edozein lotura zeukan proiektu guztien bultzatzailea bihurtu zen.

*Laurak Bat, Liga de los Amigos de los Vascos* delakoa edo Buenos Aires-eko *Uri Buru Batzar* elkarteak euren aktibitateen eszenatokiak izan ziren. Gerra zibilarekin batera heldu ziren exiliatuek indartu zuten joera hori, zeren eta une horretan hasi baitzen Euskal Gobernuan eta Argentinako Delegazioan buru belarri lanean, hauei laguntzeko asmoz.

Frankismoak erre presaliatuen aldeko lan guzti hau argitaletxeko lanean ere isladatu izan zen laster. Eta lehen argitaratuak bazituen Argentinako Euskal Etxeek eskatutako publikazioak, orduan, gerrarekin, aktibitate honek bulkada berri bat jaso zuen ere. Horrela, 1937an Bernardino de Estella apaizaren *La revolución y el criterio católico* liburua argitaratu zuen, idazlea «Areitz» izenordepean; 1938an Gabino de Garriga apaizaren *La rebelión militar española y el Pueblo Vasco*, «José de Aralar» izenarekin, eta *Informe sobre la guerra civil en el País Vasco* y *La verdad sobre la destrucción de Guernica*, biak Bernardino de Estellarenak, bigarrena «Orkoya» izenordearekin; 1939an Iñaki de Azpiazu apaizaren («Iñaki de Aberrigoyen») *El caso de los católicos vascos*.

Aldi berean, atera zituen baita ere eduki politikozko zenbait liburuxka. Hori dela eta, azpimarragarria da 1965. urtetik aurrera *Obras completas de Sabino de Arana* lanaren argitalpenari ekin ziola, Baionako Sabindiar Batza Argitaletxearen mandatuaz; azken argitalpen honek 2.478 orrialde izan zituen biblia motako paperan.

Horrela, Sebastian de Amorrortu berehala Argentinako euskal exilioaren erreferentzia bihurtu zen eta, gainera, azpiegitura tekniko bat prestatu zuen, Jose Angel Ascuncek definitzen duen «la gran realización cultural del exilio vasco»<sup>14</sup> eta Koldo San Sebastianek «uno de los hechos culturales más significativos del exilio»<sup>15</sup> bezala kalifikatuko duen proiektuaren alde, hau da, *Ekin* argitaletxea.

## LEHENENGO PAUSOAK

Lehen esan dugunez *Ekin* 1942an sortzen da eta haren hasierako bultzatzaile nagusia Andrés María de Irujo y Ollo nafarra izango da. Irujo, Buenos Aires-en lehorreratu bezain laster, 1941. urtean, «se cuestionó muy seriamente la posibilidad y eficacia de un trabajo cultural realizado en el exilio con la mira puesta en su tierra y en sus compatriotas. Frente a la proliferación de revistas y folletos (...) piensa en la necesidad de una información más consistente, duradera y universal»<sup>16</sup>.

Asmo hauekin Buenos Aires-en Euskal Gobernuak zuen ordezkaria eraginga jo zuen; honek, Ramon Maria de Aldasoro k hain zuzen, ideia ondo ikusi zuen eta Isaac Lopez de Mendizabal bertan sartzeko proposatu zion. Hurrengo urratsa Manuel de Irujo, Galindez eta Estornes Lasa anaien laguntza eskatzea izan zen; azken hauei, gainera, «Zabalkundea Sorta» saileko<sup>17</sup> zenbait liburu berrargitaratzeko baimena eskatu zien ere. Geroxeago garrantzi handikoa izango zen herbesteratutako kaputxinoen ekarpena, bereziki Jorge de Riezurena<sup>18</sup>, lortu zuen.

Une guztietan, proiektuaren azpian kultur erresistentziaren planteamendua isladatzen zen, Andres de Irujok berak argitzen duenez:

«Mi idea era crear un órgano para que nuestros hombres públicos pudieran transmitir sus ideas y puntos de vista sobre la guerra. Porque en el país teníamos mucha gente, pero no podían transmitir nada. Pero los del exilio tenían autoridad y era el mejor procedimiento para que los del interior tuviesen perspectiva. Así, nuestros libros, distribuidos clandestinamente, serían un elemento más de la Resistencia como, de hecho, ocurrió.»<sup>19</sup>

Eta azkeneko pausoa Sebastian de Amorrorturen laguntza eskatzea izan zen. Honen bulkada erabatekoa izan zen:

«Su respuesta fue fulminante, fantástica: ‘Ustedes tráiganme los originales y yo los corregiré, controlaré las pruebas y, antes de salir de la máquina, volveré a comprobarlos. De lo demás, no se preocupen’. Ninguno de los que están ahora, ninguno, hizo el trabajo de don Sebastián. Se volcó.»<sup>20</sup>

Lehenengo laguntza hauekin argialetxe berria Lopez de Mendizabalen etxebizitzan kokatu zen behin-behinean, Belgrano ibilbidean; geroxeago eta betirako Peru kaleko 175. zenbakian egokituko zen, *Laurak bat* elkartearen lokaletan. Eta lehenengo liburua agertzen da, Arturo Campionen *El genio de Navarra*-ren edizio berria (1942):

«Lo sacamos primero por la posición de Navarra en aquellos momentos; franquista, mientras que por su posición Vizcaya y Guipúzcoa estaban deshechas. Alava era diferente. Necesitábamos decir que aquellos, los que mandaban, eran vascos.»<sup>21</sup>

Zirkunstantzia horietan, proiektuaren bi gidari nagusien arteko eztabaida sortzen da. Irujo eta Lopez de Mendizabal ez daude ados argialetxeari eman behar zaion orientabidearen gainean. Irujoren ustetan *Ekin*-ek joera politikoagoa izan behar zuen, exilioari protagonismoa emango ziona. Lopez de Mendizabalek, ordea, nahiago zuen lan kulturala indartzea. Eztabaida honek talde sortu berria hausteko zorian utzi zuen baina Sebastian de Amorrotu-ren interbentzioak haustura ekidin zuen:

«Don Sebastián nos dijo que ambos campos eran importantes y que ambos tenían cabida en Ekin. Lo cultural correría a cargo de López de Mendizábal; lo político al mío.»<sup>22</sup>

## EKIN: ARGIA ILUNTASUNEAN

Iritzi hauekin ekintza kultural luze bat hasten da, gaur egun zabaltzen dena oraindio. Oinarrian lau sailetan egituratu zen hau: «Euskal Kulturaren Biblioteka», argialetxearen sail nagusia, «Beste publikazioak», «Aberri ta Azkatasuna» eta «Euskal Idaztiak». Sail hauen artean «Beste publikazioak» eta «Aberri ta Azkatasuna» izenburukoek edukin politikoagoak aurkeztuko zituzten, Irujoren irizpidea jarraituz. Guztien elkarren artean zegoen ardatza abertzaletasunaren ideologia defendatzea zen, EAJren ortodoxiaren barruan<sup>23</sup>.

Publikazio-lanak sail garrantzitsua izango zenarekin hasi zirenen, «Euskal Kulturaren Biblioteka»rekin hain zuzen, Arturo Campionen liburuarekin inauguraua. Geroago Enrique de

Gandiak eskaini zizkion argitaletxeari bi liburu berri, Donostian idatzitakoak: *Primitivos Navegantes Vascos*, sailaren bigarren zenbakia izango zena (1942), eta *Orígenes prearios del Pueblo Vasco*, hamargarrena (1943).

Poliki-poliki bilduma benetazko saski-naskia doa bihurtzen entseiu eta literaturaren oso arlo desberdinetako lanak publikatuz. Aipatu ditugun lan historikoetatik aparte edo gero agertuko direnetatik, Lopez de Mendizabalen *Breve historia del País Vasco* (1945) eta Prosper Boissonnade-ren *La conquista de Navarra en el panorama europeo*-ren itzulpena bezain garrantzitsuak, azken hau 1956tik 1961era lau tomotan atera zena, zuzenbideko lanak argitaratuko dira ere (Jesus de Galindez-en *La aportación vasca al derecho internacional*, 1942), musikakoak (Donosti eta Madina aiten *De música vasca*, 1943), hizkuntza (Lopez de Mendizabal-en *La lengua vasca: gramática, conversación y diccionario*, 1943), ekonomia (A. de Soraluze-ren *Riqueza y economía del País Vasco*, 1945), artea (M. Flores Kaperotxipi-ren *Pintores vascos y no vascos*, 1947), literatura (Aita Jorge Riezu-ren *Flor de canciones populares vascas*, 1948), antropologia (Jose Miguel Barandiaranen *El hombre prehistórico en el País Vasco*, 1953)... Liburu guzti hauek poltsikozko tamainan argitaratzen ziren (18x11), urtetan zehar kontserbatu den diseinu apal eta funtzional batez.

Beste liburu-sail handia «Beste publikazioak» lemapean agertzen zena dugu. Honetan ateratako lehenengo lana Jose Antonio Agirre ren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* (1944) liburu autobiografikoa izan zen, Andres de Irujok lehendakariari eskatu zion araberez:

«Cuando apareció Aguirre<sup>24</sup> yo le puse unas letras y le dije: 'Mira, si tú escribes por ahí lo que te ha pasado en Bélgica, en Alemania, aunque metas doctrina como la gente no te conoce literariamente, es fácil que no salga nada, o que sí salga. Pero si nos envías el original, haremos una buena edición, que sí tendrá repercusión'. Y, efectivamente, eso pasó. Tanto es así que *De Guernica a Nueva York* fue traducida al inglés. Pero tuvo una edición bien hecha, muy cuidada, como fue aquella primera.»<sup>25</sup>

Lehendakariaren liburua agertu ondoren, oraindik berriak ziren gertaera historiko-politikoak azaltzen zituzten publikazioek ikusi zuten argia: Pedro de Basalduaren *Con los alemanes en París* (1943), Andres de Irujoren *Los vascos y la República española*, «A. de Lizarra» izenordez (1944), eta Jesus de Galindezen *Los vascos en el Madrid sitiado* (1945). Edota izaera politiko hutsa zeukatenak: Jose Antonio Agirrerren *Cinco conferencias pronunciadas en un viaje por América* (1944), eta *La Comunidad Ibérica de Naciones* liburu kolektiboa, Armando Cortesao, Luis Araquistain, Manuel de Irujo eta Carlos Pi Sunyer politikoen artikuluekin (1945).

Hirugarren sorta, «Aberri ta azkatasuna», izenburuak berak argitzen duenez testu ideologikoak, doktrinamendu politikozko lanetarako gorde zen. Horretarako oso tamaina txikia aukeratu zen, eskuliburukoa, 14'5 x 11 eta 9 x 13. Azpimarragarria da nola sail honen lehenengo lana Lopez de Mendizabalek idatzitako *Gramática vasca abreviada* (1954) izan zen. Hurrengoa Fray Evangelista de Ibero ren *Ami vasco* liburuxkaren edizio berria izan zen<sup>26</sup> (1957), Sabino Aranaren ideologiaren laburpena katezismo baten itxuraz. Jarraian, zenbait opuskulu agertu zen: *El asesino de los fueros* (1957), 'Un navarro de la Ribera' izengoitiz sinatua, Iñaki de Azpiatzuren *El caso del clero vasco* (1958), Alberto Onaindiaren *Jóvenes de mañana* (1969), edo *Zure anaia ixilkari* (1961) lan anonimoa —geroago *Tu hermano de la clandestinidad* izenburupean itzulia—, zeinean *Ami vasco*-ren estiloa imitatuz, Euskal Herriko egoera sozial, politiko eta ekonomikoa aztertzen zen.

Zalantzarik gabe, garapen txikiena izan zuen liburu-saila euskaraz idatzitako lanei eskainitakoa izan zen, «Euskal idazkiak» izenburukoa hain zuzen. Hau ulertzeko nahikoa izan beharko zen ikustea ze inguru soziologikotan sortu eta zabaldu zen *Ekin* proiektua eta Euskal Herriko egoera linguistikoa bera, hizkutzatu batu barik eta izugarritzko euskal analfabetismo-tasekin. Azkeneko bilduma honetan azpimarra daitezke Juan Antonio Irazustak idatzi zituen elaberriak, *Joañixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950). Beste tituluak izan ziren *Hamlet* (1952) Vicente Amezagak euskaratua, Jose Eizaguirre ren *Ekaitzpean*



nobela (1948) eta *Kolonbiar olerki-txorta euzkeraz* (1967), Santiago Onaindia apaizak egindako Kolonbiako idazleen antologia eta itzulpena.

*Ekin* argitaletxeak frankismo garaian sortu zuen liburu-ondareak, esan ditugun lau bildumetan, ehun baino gehiago izenburu gorde du, hauetako asko oinarrizkoak gaur egungo euskal kultura ulertzeko. Hor barruan, goian aipatu ditugunetatik aparte, garrantzi handiko intelektualen lanak kokatzen dira: Cecilia Garcia de Gilarte, Norbert Tauer, Justo Garate, Isidoro de Fagoaga, Miguel Pelay Orozco «Olarso», Michel Iriart, Martin de Ugalde, Gabino Garriga, Luis Ruiz de Aguirre «Sancho de Beurco», Jesús Maria de Leizaola, Victor Ruiz Añibarro... Zentzu honetan liburuen aukeraketa oso egokia izan zen, bati-pat «Euskal Kulturaren Biblioteka» sailean.

Diaspora zela eta lanen aukeraketa ez zen lan erraza izan; honek exigitzen zuen mundu guztiko kolaboratzaileak mugitzea liburu berrien bila. Prozesu honen adibide bezala Francisco Javier de Landaburuk, EAJko burukideak, 1945eko urriaren 25ean barnerako idatzitako oharra dugu:

«La editorial vasca de Buenos Aires Ekin se nos dirige diciendo que es muy posible que algunos compatriotas del Interior hayan escrito durante esta época obras originales, de asunto vasco. Señalan concreta y confidencialmente el nombre del canónigo navarro don Néstor Zubeldia a quien suponen autor de un interesante trabajo inédito sobre la guerra civil. Igualmente les interesan temas de literatura, historia, folklore vascos. Nos ruega la editorial citada se gestione de esos autores el envío de los originales a Francia para ser retransmitidos a la Argentina donde serán publicados por Ekin, como lo han sido otros, asegurando el mayor secreto sobre la persona del autor si éste desea guardar anónimo su nombre o revestirlo de un nombre supuesto.»<sup>27</sup>

Edizioari dagokionez esan behar dugu oso zaindua zela. Lan hori kontu handiarekin eramaten zen aurrera eta beharrezkoa zenean, sartzen ziren ere marrazkiak eta argazkiak. Arlo horretan kolaboratzaileen zerrenda azpimagarria da: Elvira Gascon, Nestor Basterretxea, Luzuriaga, Itorrotz, Flores Kaperotxipi. Batzuetan liburuekin batera argitaratzen ziren edu-

kin abertzaleko laminak: Euskal Herriko mapak, zazpi lurraldetako harmarriak, ikurrinak, eta abar.

Horrela gauzak 1965ean Isaac Lopez de Mendizabal bere jaioterrira, Tolosara, itzultzen da. Hutsune horrek argitaletxearen gestioa Andres de Irujoren eskuetan laga zuen, gaur arte, eta horrela honek euskal atzerriko kultur enpresa handiena burutu egingo du.

Lan guzti honen garrantzia erakusteko datu bat aipa dezakegu: orain gutxi Bilbon hasi da *Ekin*-eko ondarearen zenbait liburu-rænberrargitaratzea eta oraindik Argentinatik azkeneko edizioen zabaltze-lanak jarraitzen dira; nolabait hortxe dugu ekimen honen gaurkotasuna agerian. Martin de Ugaldek baieztatzen du aurrekoa *Ekin* «ha sido el faro donde han mirado los vascos que querían saber de la producción literaria vasca en momentos en que no había dónde mirar»<sup>28</sup> esanez.

*Ekin*-eko liburuak, frankismoak debekatuak eta zigortuak, penintsulan klandestinoki sartzen ziren, galtzaile eta euskal disidenteentzat benetazko orratz ideologiko eta kulturala izan ziren. Publikazio guzti hauen zabaltzeko lanetan sakonduz esan daiteke aktibitate hori oso ekintza arriskutsua zela. Exilioko aldizkariak zein liburuak debekatuta zeuden eta penintsulan sartzeak edo jendearen artean banatzeak kartzela-zigorra suposa zezakeen. Horrela dio Jon Etxaidek:

«Isilpean eta kontrabanduz sartu behar izaten zen (Euzko gogoa-ri buruz hitz egiten). Zenbait aldiz pakete osoak erori ziren poliziaren eskutan eta zabaltzen zen guztia ez zen kobratzen zoritxarrez. Horrela, Aita Zaitegi'k lur jota bukatu zuen eta aldizkaria ateratzeari utzi behar izan zion. (...) Ni neu ere poliziak detenitu ninduen bi aldizkari horien zabaltzailatzat (beste *Gernika* aldizkaria dirudienez) eta kolaboradoretzat salatuz eta Martutene'ko gartzelan sartu ninduten aurrena eta gero Gasteiz'ko gartzelara esposaturik eraman.»<sup>29</sup>

Bestaldetik, poliziak egindako liburuen bahiketak diru-galera gogorrek suposatzen zituen argitaletxeentzat

Penintsulan liburuak sartzeko bide desberdinak zeuden; normalena pasabide zuzena izaten zen, sistema desberdinak erabiliz. Horrela kontatzen du Anton Ormazak:

«En Caracas se editó la primera edición en castellano de 5.000 libros (se refiere al libro de Steer *El árbol de Gernika*). Tuve yo esas noticias y una mañana me fui al otro lado y preparé un camión con unas cámaras interpuestas en la cabina y con dos camiones que iban allí al transporte de una mercancía a Hendaya para cargar en los vagones de ferrocarril, se metieron en unos cuantos sacos y los pasé (...) También pasamos los primeros «posters» que vinieron del difunto José Antonio Aguirre y algunas otras publicaciones.»<sup>30</sup>

Beste zenbait kasutan diplomatikoen bitartez egiten zen, zeren hauek bide libreak zeuzkaten eta, edo baita ere kontra-bandista profesionalen laguntzaz.

*Ekin* argitaletxearen garrantziaren azterketarekin jarraituz, esan daiteke ekimen hori barne eta kanpoko euskaldunen arteko benetazko lokarria izan dela, gerra aurreko eta gerra ondorengo kulturaren arteko zubia; aldi berean, exilioa eta migrazioa batu zituen ahalegina. Azkeneko zentzu honetan azpimarragarria da nola poliki-poliki proiektua Ameriketako mundu kulturalean integratu zen; hori ikus dezagun esaterako Jose Hernandez-en *Martín Fierro*-ren itzulpenaz, Enrique Garcia Velloso idazle argentinar ezagunaren *Gernikako arbola* liburuaren argitalpenaz (1963), edo titulu adierazgarrien agerpenaz: Jose Cecilio Vidaurretaren *Argentina: una nueva y gloriosa nación* eta Juan Goyetxearena *Los gauchos vascos* (1975).

Horrela, Leonidas de Vedia-ren hitzek *Ekin* buruz esanahi osoa lortzen zuten: «un generoso impulso solidario, un propósito de fraternal unión con otros pueblos y otras culturas»<sup>31</sup>.

## BEHIN-BEHINEKO KONKLUSIOA

Artikulu honen helburua normalean ahaztua gelditzen den ikerketa-arlo bat erakustea izan da. Bertan saiatu gara erakusten nola exilioko argitaletxeen panorama sarritan suposatzen den baino askoz konplexu eta aberatsagoa den; zori-

txarrez, argialetxe horien esfortzua gehiagotan iluntasunean gelditu da. Hala ere, guzti hauei esker posible izan zen balore eta ideia batzuk bizirik mantentzea. Horregatik orain arte azaldu ditugunekin batera beste batzuk aipatu behar ditugu behinik behin nahiz eta garrantzi apalagoa izan: Toulouseko *Egi-indarra*<sup>32</sup>, Caracasko *Ediciones Agur-Ana*<sup>33</sup>, Castor Narvarte irundarrak bultzatutako Santiago de Chileko *Izarra* argialetxea, Donibane Lohizuneko *Askatasuna* eta *Axular* Argialetxeak<sup>34</sup> edo alderdi politiko desberdinetako publikazioak, esaterako EAJren Alderdi Edizioak. Guzti hauek merezi dute azterketa zehatza eta sakonagoa bere neurri osoan egin zuten lana ondo baloratzeko. Errealitate honek gure konklusioaren behin-behinekotasuna justifikatzen du.

1. «El Fondo y don Daniel». *Libro conmemorativo del primer medio siglo del Fondo de Cultura Económica (1934-1984)*. F.C.E. Mexico, 1984. 13 or.
2. Dena dela eta normala denez, sarritan bi aktibitateak batzen ziren pertsona eta proiektu berdinetan, hau da, aldizkari bat bultzatzen zuten lantaldeek batzuetan argialetxea sortzen zuten ere edo alderantziz. Askotan liburua ikusten zen proiektu baten gailurra bezala.
3. SAN SEBASTIAN, Koldo: *El exilio vasco en América. 1936/1946 - Acción del gobierno*. Txertoa. Donostia, 1988. 18 or.
4. ANASAGASTI, Iñaki; SAN SEBASTIAN, Koldo: *Los años oscuros*. Txertoa. Donostia, 1985. 28 or.
5. Editions de l'Aube. Paris, 1937.
6. Koldo San Sebastianek kontatzen duenez lan horiek argitaratzeko euskal delegazioak Modern Age argialetxearekin mantendu zituen kontaktuak ezer lortzeke. *The Basque Problem* Smith Hart idazlearen laguntzari esker zabaldu zen (*The Basque Archives. Vascos en Estados Unidos (1938-1943)*). Txertoa. Donostia, 1991. 43-44 or.)
7. Seix & Barral argialetxea. Barcelona, 1937.
8. Euskal Gobernua. Paris, 1939ko apirila.
9. Biak Bedita de Larrakoetxeak itzuli zituen, *Lear errege* eta *Ekatxa* izenburuz.
10. Liburu hau Baionako Darracq inprimategiak argitaratu zuen.
11. Esaterako, hemen argitaratu zuen Luciano Rincón-ek bere *Nuestros primeros veinticinco años* liburua eta Ortzti Letamendiak *Historia de Euskadi. El Nacionalismo Vasco v ETA*.
12. ASCUNCE, Jose Angel: «Sebastián de Amorrortu: hombre de ideales y de realidades». *El Diario Vasco*. Donostia, 1992ko martxoaren 10ean, 58 or.
13. Ibidem.
14. Ibidem.
15. SAN SEBASTIAN, Koldo: *El exilio vasco en América. 1936/1946 - Acción del gobierno*. Txertoa. Donostia, 1988. 85 or.
16. ASCUNCE, José Angel: «Andrés M. de Irujo: desbrozando futuros». *El Diario Vasco*. Donostia, 1992ko maiatzaren 12an, 66 or.
17. ESTORNES LASA anaien erantzuna baiezkoa izan zen eta zeuzkaten liburu guztiak proiektu berrirako eman zituzten.



# ENPRESEN I+Gko IHARDUERAK EAEn

MIKEL NAVARRO

---

**E**uskal Autonomi Elkarteko (EAE) enpresen Ikerketa eta Garapeneko (I+G) iharduerak aztertzerakoan, informazio-iturri estatistikorik osatuena eta fidagarriena, EUSTATEk aurreratuak «Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Iharduerari Buruzko Estatistika» dugu. Dena den, aipaturiko ihardueraz informazio gehiago jasotzeko beste zenbait informazio-iturritara ere joko dugu artikulu honetan: Zentro Teknologiko Babestuek, Eusko Jaurlaritzaren Industri Sailak eta CDTIk eskainitako datuetara, alegia. Ikus dezagun EAEko enpresen I+Gko iharduerari buruzko informazio-iturri hauek guztiek ematen dituzten informazioa.

## EUSTATEN ESTATISTIKAREN DATU-AZTERKETA

EUSTATen estatistika hau, OCDEk argitaratutako «Frascati-ren eskuliburuan» ezarritako metodologian oinarritzen da. Hori horrela, estatistika horrek kontabilizatutakoa egiazki I+Gko iharduerei legokiekeela pentsa lezake batek. Eta, egia esan, orain dela gutxi arte argitaratu eta erabili izan diren hainbat estatistikarekiko (bereziki Eusko Jaurlaritzaren Industri Sailarenekiko) hobekuntza galanta ekarri dute. Hauetan I+Gko ihardueren barruan kontabilizatzen zena ez zen errealtatean beti I+G izaten, beste zerbait baizik (adib. kalitatea hobetzeko ekintzak).

Hala ere, EUSTATen estatistikaren egileek ez dute enpresek inkestari erantzundakoa zalantzan jartzen enpresa eta enpresa batek esaten badu bere ekintza I+Gkoa dela, aitorten hori eztabaidatu edo egiaztatu gabe bere hartan onartzen dute. Haatik, enpresek I+Gko iharduerak sustatzeko programetara aurkeztutako proiektuen ebaluazioak ederki asko erakutsi du haiek I+G kontsideratutakoak ez duela behin baino gehiagotan kategoria hori merezi, eta, beraz, enpresen aitortenak bere hartan hartzeak EUSTATen estatistiken I+G iharduerei buruzko datuak ere zerbait puztuta egotea ekar dezakeela.

Ohar hauek eginda gero, goazen ikustera EUSTATen estatistikak eskaintzen dizkigun datuetatik zer ondorio atera daitezkeen EAeko enpresen I+Gko ihardueraz.

### I+GKO IHARDUERETAKO GASTUAREN BANAKETA SEKTOREEN ARTEAN

Lehen laukian ikus daitekeenez, sektore guztien I+Gko gastuaren ehunekoa (BPG) Barne Produktu Gordinaren aldean txikiagoa da EAEn herrialde aurreratuetan baino, EAEn Espainian baino handiagoa bada ere.

Enpresa sektorearen I+Gko gastuaren ehunekoa BPGren aldean apalagoa da, halaber, EAEn herrialde aurreratuetan baino. Esan behar da, ordea, herri aurreratuaren indizetik EAE-ren indizera dagoen aldea txikiagoa dela enpresa-sekto-

rean, sektore guztien kasuan baino. Hau da, I+Gko gastuan enpresa-sektoreak protagonismo handiagoa du EAEn beste herrialdeetan baino.

Alde batetik, hori positibotzat jo daiteke, zeren eta horrek adieraz baitezake EAEn egindako I+G gure produkzio-sistemaren beharrianei lotuago dagoela. Baina bestetik, enpresa-sektorearen protagonismo hori zor dakieke gure Unibertsitateak ikerketa-alorrean duen funtzionamendu txarrari, Administrazio Zentralak sortutako organismo publiko gehienak EAEz kanpo egoteari eta EAEko zentro teknologiko babestuak enpresa-sektorean kontabilizatzeko hartu den erabakiari.

#### I+G EGIN DUTEN ENPRESEN KOPURUA

Bigarren laukian ohar daitekeenez, I+G egin duten enpresak 429 dira: 4 nekazaritza-arrantzakoak, 360 industriakoak eta 65 zerbitzuetakoak. Kopuru horri buruz bi gauza esan liteke:

- bateko, I+G egin duten enpresen kopurua apala dela ekonomian dauden enpresa guztien zenbatekoarekin alderatzen badugu (enpresa industrialen kasuan, lehengoak ez dira enpresa guztien %4ra ere iristen);
- besteko, gure Autonomi Elkartearen teknologi egoera ezagututa, ez dirudiela inondik ere EAEn 200 enpresa baino gehiago gauza denik egiazko I+G egiteko, eta, beraz, EUSTATen estatistika EAEko enpresen I+Gko iharduera-maila puzten ari dela.

#### I+G EGIN DUTEN ENPRESEN ETA IKERTALDEEN TAMAINA

Daukaten enplegua kontuan hartzen badugu eta EAEko gainerako enpresekin alderatzen baditugu, I+G egiten duten euskal enpresak ertain-handiak direla esan genezake. Eta, o robat, enpresa horietan I+Gko iharduretan ari diren lan-taldeak gehienetan txikiak direla esan liteke.

Ikertaldeen txikitutasunak eragin negatiboa dauka, noski, ikerlanen eraginkortasunean. Halaxe gertatzen da, bederen,



Espanian, aditu askoren ustez. Eta hori han horrela baldin bada, antzeko gauza bat gertatuko da EAEn; izan ere EAeko enpresen ikertaldeak Espainiakoarenak baino txikiagoak dira batezbeste (ikus 3. laukia).

#### I+GKO IHARDUERETAN EGINDAKO AHALEGIN ABSOLUTUA

I+Gko ihardueretan enpresek egindako murru-barneko gastu guztitik bi heren, gutxi gorabehera, industriari dagokio eta beste herena zerbitzuei. Laugarren laukian ikus daitekeenez, bere gastuagatik nabarmentzen diren sektoreak honako hauek dira: Hezkuntza eta ikerketa eta Enpresentzako zerbitzu eta bestelakoak, zerbitzuetan<sup>1</sup>; eta Makineria eta material elektrikoa, Material elektronikoa, Kimika, Makina erreminta, Garraio-materiala eta Bestelako makineria, industrian. Aipatutako zortzi sektoretan biltzen da enpresek egindako gastu guztiaren hiru laurdenak baino gehiago.

Enpresen I+Gko gastuaren kontzentrazio sektoriala ez da EAeri bakarrik dagokion gauza; laugarren laukian ikus daitekeenez, Espainian ere gertatzen da. EAEn enpresen I+Gko gastuaren kontzentrazio sektorialaren berezitasuna bere mailan baino, bere sektore-banaketan datza: zerbitzuei dagokien ehuneko askoz handiagoa da EAEn Espainian baino; eta, industriari dagokionez, Kimika, Material elektronikoa eta Garraio-materiala ren ehunekoak apalagoak dira eta Produktu metalikoen erakuntza eta Makina erremintarenak, handiagoak. Azken buruan hori lotuta dago, alde batetik, gure industriaren espezializazio produktiboarekin; eta, bestetik, EAEn zentro teknologikoen izan duten garapenarekin. Azken hauek izan duten ezohizko garapena EAeko Unibertsitateak eta Ikerketako Organismo Publikoek produkzio-sistemaren eskakizunei erantzuteko erakutsi duten ezintasunari zor zaio, besteak beste.

Derragun azkenik —enpresen I+Gko gastuaren kontzentrazio sektorialaren azterketa bukatzeko—, EAeko enpresen I+Gko iharduera sektore tradizionaletan zentratua dagoela, bereziki, eta puntako edo teknologi maila aurreratuko sektoreei dagokien ehuneko EAEn OCDEko herrialdeetan baino askoz txikiagoa dela. (Ikus 5. laukia)

## I+GKO IHARDUERETAN EGINDAKO AHALEGIN ERLATIBOA

Gorago azaldu denez, enpresa-sektorea ren murrubarneko I+Gko gastuaren ehunekoak BPGren aldean txikiagoa da EAEn, herri aurreratuetan baino: zerbait txikiagoa EEerekiko eta dexente txikiagoa EEBB, Japonia edo Alemaniarekiko.

Bigarren laukian agertzen zenez, EAeko sektoreen artean ezberdintasun handiak daude murrubarneko I+Gko gastuen ehunekoetan Balio Erantsi Gordinaren aldean, edota D.O.B.n I+Gra dedikaturiko pertsonalaren ehunekoetan sektoreko pertsonal guztiaren aldean. Ahalegin erlatiborik handiena egiten duten sektoreak Makina erreminta, Makineria eta material elektriko eta elektroniko eta Kimika dira.

## ENPRESEN I+GKO IHARDUEREN FINANTZABIDEAK

Murrubarneko I+Gko gastua baliabide bereki edo propioez finantzatzen da industriaren kasuan, eta besteren baliabidez zerbitzuen kasuan (ikus 6. laukia). Hori gertatzen da, alde batetik, zerbitzu-sektoreko enpresak hein batean bere zerbitzu teknologikoak enpresa industrialei saltzetik bizi direlako; eta bestetik, Administrazioak zerbitzu-sektorean dauden zentro teknologikoen I+Gko iharduerak proportzio handiagoan finantzatzen dituelako, enpresa industrialenak baino. Izan ere, Administrazioaren ustez, zentro teknologiko babestu eta sektorialetan emandako aurrerapen teknologikoak gero enpresa industrialetara transferituko dira, azken hauek haiekin izaten dituzten harremani esker.

Inoren fondoez finantzaturiko industriaren I+Gko gastuaren ehunekoak, txikia izateaz gainera, oso ezberdina da sektore batzuetatik besteetara: adib. %0,4 da Janari-industrian eta %31,1 Energia. Finantzapenean dauden ezberdintasun horiek ez dute zerikusi handirik sektore bakoitzean I+Gko ihardueretan egindako ahalegin erlatiboarekin. Esate baterako, besteren finantzapen handia duten sektoreen artean badaude bai I+Gko ihardueretan ahalegin erlatibo handia egin duten sektoreak (adib. Makina erreminta eta Makineria eta material elektriko eta elektroniko) eta bai ahalegin txikia egin dutenak ere (Erakuntza metalikoak, Energia eta ura...)

Inoren fondoan jatorriari dagokionez, 7. laukiak erakusten digu besteren fondo gehienak Administrazioetik datozela, zerbitzu-sektorean izan ezik. Azken honen kasuan gogoratu behar da, zentro teknologikoak eta enpresentzako zerbitzuak bere teknologi zerbitzuak enpresei saltzetik bizi direla neurri handi batean. Hala ere, kontuan hartu behar da, orobat, enpresa batek zentro teknologikoekin kontratu bat sinatzen duenean askotan enpresa horrek, zerbitzu teknologiko hori erosteko, Administrazioetik laguntza bat jasoko duela, hemen kontabilitzatuta ez dagoena; eta beraz, horrela, zeharbidez—hots, enpresak zentroari ordaindutako kopuruaren bidez—, zentro teknologikoak ere Administrazioaren laguntza jasotzen duela.

Administrazioetik etorritako finantzapenez, 8. laukiak datu harrigarri bat agertzen digu: I+Gko iharduerak bultzatzeko Administrazioak eratutako programetatik enpresek diru ugari eta erraz lor dezaketelako imajina badago ere, I+Gko iharduera izan duten enpresa guztietatik ia erdiak (%47) ez du laguntza publikorik jaso bere gastua finantzatzeko. Agian hori gertatzen da Bruselas eta Madrilgo laguntza-programek, urruti gelditzeaz aparte, maila teknologiko altua eta paper-betetze asko eskatzen dutelako; eta EAEko erakundeek, proiektu bakoitzeko eman ohi duten laguntza urriagatik, zenbait enpresak eskusartze publiko, informazio-emate eta tramitazio burokratikoaren kontra duen jarrera aldatzeko gauza izan ez direlako.

Administrazioak emandako laguntzekin jarraituz, 7. laukiak erakusten du Administrazio Autonomoak eta Zentralak antzeko finantzapena eman dietela EAEko enpresa-sektoreari (lehenengo arria pixka bat handiagoa da bigarren arria baino). Komeni da esatea laguntza horien barruan EUSTATEk ez dituela kontabilizatzen Madrilgo CDTIk ematen dituen kreditu bigunak edota interesgabeak. EAEko erakundeek laguntza publikoak neurtu edo zenbartzeko egiten duten bezala geuk ere egingo bagenu, eta beraz, kreditu horiek zer-nolako subentzio garbi baliokidea suposatzen duten kalkulatu ondoren EUSTATEk eskaintako kopuruari gehituko bagenio, Administrazio Zentralak emandako finantzapena Administrazio Autonomoaren

baino handiagoa izan dela irtengo litzateke. Eta azpimarratu nahi dugu EAEn enpresen I+Gko ihardueren finantzapenean Administrazio Zentralak duen paper behinen hori, hainbat idazlanen bitartez alderantzizko ideia zabaldu izan baita.

Zazpigarren laukian ikus daiteke, era berean, Administrazio Autonomoak eta Zentralak guztira finantzapen antzekoa eskaini arren, lehenengoak bere laguntzak bigarrenak baino enpresa-kopuru handiagoaren artean banatzen dituela. Hots, Administrazio Autonomoak enpresa bakoitzari laguntza-kopuru txikiagoa ematen dio, Administrazio Zentralak baino. Hori oso garbi azaltzen du 8. laukiak: Administrazio Autonomoak askoz enpresa gehiagotara hedatzen ditu bere laguntza-programak eta, Administrazio Zentralaren programen aldean, programa horietara enpresa txiki gehiago hurbiltzen da.

Hau da, Administrazio Zentralaren programek enpresen proiektuei maila teknologiko eta tramitazio zorrotzagoak eskatzen dietenez gero, EAEn enpresa gutxiagok jo ahal izan du haietara, eta haietara jotzen dutenen artean enpresa ertain eta handiak dira nagusi; baina, bestalde, bai proiektu horiek tamaina handiagoa izaten dutelako eta baita Administrazioak proiektuaren aurrekontuarekiko finantzapen handiagoa ematen dutelako ere, enpresa bakoitzak jaso ohi duen laguntza handiagoa izaten da. Administrazio Autonomoaren programek, ostera, galdakizun teknologiko eta administratibo gutxiago dute, eskuragarriagoak eta hurbilagoak gertatzen zaizkie bertako enpresa txiki eta ertainei, eta teknologia berrien sorkuntza sustatzea eta teknologi aukeraketa baino «ereintza» politika dute helburu.

Zenbaiten ustez, Administrazio Autonomoaren jokabide hori positiboa da. Buesak (1992), adibidez, Administrazio Zentralak ezarritako lehentasun teknologiko eta sektorialak gogor kritikatzeko, bai lehentasunak ezartzearen kontra dagoelako eta bai ezarritako lehentasunak Espainiako produktio-sistemaren beharrezanekin bat ez datozela uste dutelako. Gainera, berak egindako ikerketan ikusi du, Administrazio Zentralak ezarritako lehentasunak gero mimetikoki Autonomi Elkarteek eta Administrazio Lokalek ere bere egiten dituztela.

Buesaren ikerketaren arabera, EAE da mimetismo horretan erortzen ez den Autonomi Elkarte bakarra, berak positibo irizten diona. Gehientzat, ordea, baliabideak urriak dira eta, beraz, ondo aukeratu behar da non inbertitu edo zer bultzatu. «Denentzako kafea» politikak ondorio on gutxi dakar. Teknologi politikan estrategia eta lehentasunek egon behar dute; eta estrategia eta lehentasun horiek, besteak beste, produkzio-sistemaren premia teknologikoak aintzat hartuz ezarri behar dira.

Azkenik, enpresen I+Gko gastua besteren fondoez nola finantzatzen den analisia amaitzeko, 7. eta 8. laukiek erakusten digute EEEren programen laguntzez EAEko oso enpresa gutxi (20 denera) baliatzen dela, eta EAEko enpresetara datozen fondoak, handiak ez izateaz gainera, neurri handi batean zentro teknologikoetara doazela.

#### ENPRESEN I+GKO IHARDUERAK IZANDAKO EBOLUZIOA

EUSTATEk hiru urtetarako bakarrik argitaratu ditu datuak: 1989-91 urteetarako, alegia (ikus 9. laukia). Urte gutxi horietan enpresen I+Gko iharduerak izan duten eboluzioa positiboa izan dela dirudi gainbegiratu batean: I+G egin duten enpresen kopurua eta enpresen murrubarneko I+Gko gastua handituz joan dira. Dena den, gastuaren eboluzioa pezeta arruntetan neurtu beharrean, pezeta konstantetan neurtuko bagenu, hazkunde ez dela hain handia izan ohartuko ginateke (batez ere industrian). Bestalde, kezkarria da D.O.B.ko pertsonalaren hazkunde-eza eta berari lotua dagoen ikertalde batezbesteko tamainaren gutxipena; izan ere, gutxipen horrek ikerketaren eraginkortasunean ondorio negatiboak izan litzake.

Nahiz eta enpresa batek I+G egin, batzuetan gertatzen da, hainbat arrazoiengatik (gidazerrendan sartua ez egoteagatik edota hari bidalitako inkestari erantzun nahi ez izateagatik, esaterako), estatistiketan jasota ez egotea; eta urte batez geroztik, estatistikan emandako hobekuntzengatik, jasota agertzea. Fenomeno hori EUSTATEn estatistikan ere ematen dela uste dugu, zer neurritan ez badakigu ere. Beraz, EAEko enpresen I+Gko ihardueretan lehen agertutako hazkundearen zati bat ere

zor lekiok estatistikan egondako hobekuntzari, eta ez enpresen I+Gko ihardueren hazkundeari.<sup>2</sup>

## BESTE ZENBAIT ESTATISTIKAREN DATU-AZTERKETA

Atal honetan aztertuko ditugu, enpresen I+Gko iharduerari buruz informazioa eskaintzen duten beste zenbait estatistikaren datuak, hala nola EITerenak (zentro teknologiko babestuei buruzkoak), Eusko Jaurlaritzaren Industri Sailarenak (bere programetara jo duten enpresei buruzkoak, zentro teknologiko babestuak kenduta) eta CDTirenak (bere programetara jo duten enpresei buruzkoak).

Datu hauek aintzakotzat hartzeko, honako arrazoiak aipa litezke: 1) orain dela gutxi arte, hauek ziren eskura zeuden datu bakarrak eta, beraz, orain arteko literaturan gehienbat erabiltzen zirenak; alde horretatik, datu hauek kontuan hartuz segida ematen diegu orain arteko azterketei; 2) enpresen I+Gko iharduerak izan duten eboluzioa aztertzeko informazio-iturri bakarra dira datu hauek; gainera, eboluzioaren azterketa, 1989 baino lehen jazotakoaz ezezik, 1992an gertatutakoaz ere osatzen da; eta 3) EAEko enpresen I+Gko ihardueran eragin handia duten hainbat erakunderen eginkizuna hobeki ezagutzeko aukera ematen digute.

### ZENTRO TEKNOLOGIKO BABESTUAK (ZTB)

ZTBren gastu arrunten aurrekontuetan 1980ko hamarkadaren hasieratik ematen ari zen hazkunde bizia 1992an gelditu zen. Inbertsioan —inguruabarrean egondako aldaketak azkarago eta bortizkiago isladatzen dituen aldagaia— 1992ko inflexio edo makurgunea are agerikoagoa izan zen: inbertsioaren gutxipena nabarmena da, pezeta korrontetan zein konstantetan.

Hori lotuta dago —esan beharrik ez— ekonomian bizi den kinka larriarekin. Diru-estuasunak hasten direnean, enpresek gastuak murrizteari ekiten diote eta, nahiz eta haien geroko lehiakortasun eta bideragarritasunerako teknologia oso garrantzitsua izan, moztu erraza denez gero, sarritan lehenengo gastu-

-murrizketak I+Gko ihardueretan egin ohi dituzte. Hori horrela, industri enpresei zerbitzu teknologikoak saltzetik zentro teknologikoek eskuratzen dituzten fondoak gutxitu edo estankatu egiten dira.

Dena den, ZTBren hazkundearen 1992ko inflexio edo makur-gunea aurreko parrafoan azaldutakoari baino, Eusko Jaurlaritzaren Industri Sailak zentro hauen proiektu orokorrak finantzatzeko eman ohi zituen laguntzen murrizketari zor izan zaio. Proiektu orokorreatik sarre ren ehunekoa ZTBren aurrekontuen aldean 1986az geroztik gutxituz bazetorren ere, pezeta konstantetan mantendu egin ziren 1991 arte. Baina 1992. urtean, bapatean, proiektu orokorreatik sarrerak nabarmen erori ziren, pezeta korrante zein konstantetan. Murrizketa hori zurrizteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen behin-behineko neurria zela, «3R Plana» finantzatu beharrak sortarazitakoa.

Aurten, Eusko Jaurlaritzak agindu bezala, gauzak bere onera itzuli dira, ZTBri dagokionez behintzat. Zentroen proiektu orokorren sarrerak biziki handitu dira (kontuan izan, baina, 1993ko datuetan bi zentro teknologiko gehiago sartu direla ZTB kategoriaren azpian), eta horri esker ZTBren inbertsio eta aurrekontuak suspertu direla berriz.

### EUUSKO JAURLARITZAREN ENPRESEN I+GRAKO LAGUNTZA-PROGRAMAK<sup>3</sup>

Hamaikagarren laukian jasotzen dira Eusko Jaurlaritzaren Industri Sailak duen «Enpresen I+Grako laguntza-programa» dagozkion datuak. Baina lauki horretan agertzen diren datuekin sartu aurretik, egin ditzagun bi ohar: 1) Programaren izenburuak bestela pentsarazi balezake ere, programa honek subentzionatutako proiektu guztiak ez dira I+Gkoak izan; badaude, I+Gko proiektuez gainera, beste proiektu-mota batzuk programa honek lagunduak (diseinu, kalitate eta abarri buruzkoak). 2) Urte batetik bestera aldatu ohi ziren subentzionatzen ziren iharduerak eta I+Gko iharduerak baloratzeko erabilutako irizpideak.

Esandakoagatik garbi dago 11. laukian agertzen diren datuek ez dutela enpresen I+Gko ihardueren eboluzioa behar bezala isladatzen. Dena dela, besterik ezean, horietara jo beharrean gaude, EAEn enpresen I+Gko iharduerak 1980ko hamarkadaren hasieratik izan duten eboluzioa sumatzeko.

Aipatutako laukiak erakusten duenez, 1989an inflexio edo makurgune bat ematen da ordura arte aldagai gehienek izandako eboluzio positiboan. 1989az geroztik gutxitzen hasten dira I+Gko pertsonala, pezeta konstantetan adierazitako batezbesteko I+Gko aurrekontuak eta Industri Sailaren subentzioak; eta laukiaren behealdean jasota dauden ratioak ere (I+Gko pertsonala/plantila guztia, subentzioak/aurrekontuak, subentzioak/enpresa-kopurua...) txartu egiten dira.

Bereziki txarrak dira 1992ko datuak: bai enpresak kinka larrian dabiltzalako eta bai Industri Sailak urte horretan programa honen baliabideak biziki murrizten dituelako, 1989az geroztik hasitako makurtzea egiaztatu eta areagotu da. 1992ko datuak 1989koekin alderatzen baditugu, emaitzak ezin izan daitezke kezkarriagoak: I+Gko programek lagundutako enpresa-kopurua %40 erori da, enpresa horien I+Gko pertsonala %36, I+Gko aurrekontua pezeta konstantetan %41 eta subentzioak %45. Eta 1993an, datu handirik ez badugu ere, badirudi behe-rakadak jarraitu egingo duela. Izan ere, ZTBren kasuan 1992ko diru-murrizketen ondoren Industri Sailaren laguntzak handitu baziren ere, «Teknologia gehitzeko laguntza» programak enpresa pribatuen kapital-eragiketetarako 1993ko aurrekontuetan aurrikusi dituen transferentzia eta subentzioak ez dira ailegatu ere egiten 1992an aurrikusitakoetara<sup>4</sup>. Alde horretatik, teknologi programen laguntzen murrizketak, Industri Sailak behin-behineko eta ezohizkotzat jo bazuen ere, 1993an aurrera iraun du.

Bukatzeko, programa honetara jotzen duten enpresa eta proiektuen zenbait alderdi kezkarri aipatu nahiko nuke. Izan ere, ez da nahikoa I+Gko iharduerak egitea; iharduera horiek eraginkorrak izatea ere txit garrantzizkoa da. Eta onartzen baldin badugu ikerkuntzan eraginkorrak izateko eskuarki gutxieneko tamaina kritikoak behar direla, Industri Sailaren



I+Gko programetara jotzen duten enpresa eta proiektuek askotan ez dituztela baldintza horiek betetzen ondorioztatuko genuke: programa honetaz baliatzen diren enpresen I+Gko batezbesteko ikertaldea 6 pertsona ingurukoa da<sup>5</sup>; enpresa horietan dagoen pertsonal guztiaren aldean, I+Gko pertsonala %2 ingurukoa; proiektuen batezbesteko aurrekontua 20 milioi pezeta ingurukoa; etab.

#### CDTIREN LAGUNTZA JASO DUTEN ENPRESEN I+GKO PROIEKTUAK

Industri Ministerioren kontrolpean aurkitzen den CDTI izeneko erakundeak ere enpresen I+Gko ihardueretarako finantza-laguntzak ematen ditu: teknologi garapeneko proiektuetarako kreditu bigunak eta Ikerkuntzako Plan Nazionalaren lerroetan sartzen diren proiektu hitzartuetarako interesik gabeko kredituak. Bi proiektu-mota hauei dagozkien datuak 12. laukian jasota daude.

CDTIren laguntza jaso duten EAEko enpresen proiektuen eboluzioa, oro har, positiboa da. Ezohizkoa izan zen 1989. urtea alde batera utzita, proiektuen kopuru, aurrekontu eta jasotako laguntzak handituz joan dira urtez urte. EAEko enpresen eboluzioa hobea izan da Espainiaren enparatuarena baino, laukiko azken bi zutabeek erakusten duten bezala. Azken urtean CDTIk onartutako proiektuen %14 inguru EAEko enpresenak ziren, hots, EAEko ekonomiari Espainiako ekonomiaren aldean dagokion pisua (%6) bikoiztu baino gehiago egiten duen ehunekoa. Baliteke, ordea, 1992ko hazkunde bortitza hein batean abagunezko edo koiunturala izatea, hau da, EAEko enpresek Eusko Jaurlaritzaren I+Gko programetatik laguntzak jasotzeko 1992an izan zituzten zailtasunek eragindakoa izatea.

Bestalde, alderatzen baldin badira 1. eta 12. laukiko datuak berehala ohar gaitzke CDTIk onartutako proiektuen batezbesteko aurrekontua handiagoa dela Industri Sailak onartutakoena baino; laguntzaren ehunekoa proiektuaren aurrekontuaren aldean beste horrenbeste; aurkeztutako proiektu guztien aldean onartuak izan direnen ehunekoa, aldiz, txikia-

goa... Laburbilduz, CDTIra aurkeztutako proiektuen maila eta galdakizun teknologikoa handiagoa da eskuarki Eusko Jaur-laritzaren programetara aurkeztutakoena baino. Horrek ematen die proiektu horiei balio kualitatibo bat, zenbatekoen alde- rapen hutsean antzeman ezin daitekeena.

## AIPATURIKO LIBURUAK ETA INFORMAZIO-ITURRIAK

BUESA, M. (1992): «Política tecnológica: una evaluación global». Economistas 52 zenb.

(CDTI) CENTRO PARA EL DESARROLLO TECNOLÓGICO INDUSTRIAL (zenbait urte): «Memoria».

EUSTAT (zenbait urte): «Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Ihardueri Buruzko Estatistika».

INE (1993): «Estadística sobre las Actividades en Investigación Científica y Desarrollo Tecnológico (I+D) 1990».

MOLERO eta beste (1990): «Empleo e innovación». Centro Nacional de Investigación y Documentación Educativa. Madrid.

NAVARRO, M. (1992): «Actividades empresariales de I+D y política tecnológica del Gobierno Vasco». Ekonomiaz 23 zenb., 2. lauhilekoa.

OCDE (1992): «Main science and technology indicators» 2/1992 zenb.

## ERABILITAKO SIGLAK

BERD: Enpresa sektorearen murru-barneko gastuak

BPG: Produktu-barne Gordina

CDTI: Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroa

DOB: Dedikazio Osoaren Balioberdintasuna

EAE: Euskal Autonomi Elkarte

EEBB: Estatu Batuak

EEE: Europako Ekonomi Elkarte

EITE: Euskal Teknologikoen Ikertegien Elkarte

**EUSTAT:** Euskal Estatistika Erakundea

**GERD:** Murru-barneko I+Gko ihardueren gastuak guztira

**I+G:** Ikerketa eta Garapena

**INE:** Estatistikako Institutu Nazionala

**LAGEP:** Lukro-Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuak

1 Hezkuntza eta ikerketa-gastu gehiena bost zentro teknologiko babestuei (Ceit, Ikerlan, Inasmet, Tekniker eta Inasmet) eta hiru zentro teknologiko sektoriale (Ideko, Fatronik eta Cidemco) dagokie. Bizkaiko Foru Diputazioak sortutako talde teknologikoak (Robotiker, Teletek, Gaiker, Biotek eta Embiker) EUSTATEk ez ditu enpresatzat jotzen, ikerketako organismo publiko baizik, eta beraz estatistika honek ez ditu barne hartzen. Berrikitan, 1993an alegia, Robotiker eta Gaiker zentro teknologiko babestu bihurtu dira; hori dela eta, 1992az geroztik estatistiketan bi zentro horiek organismo publikoen sektoretik atera eta enpresa-sektozera aldatuko ditu EUSTATEk.

2. Fenomeno hau, adibidez, oso nabarmena izan da Espainiaren kasuan: Molero eta bestek (1990) erakusten dutenez, 1984-86 urteetan I+G/BPG indizeak Espainian izan zuen hazkundearen %70 horri zor zitzaion. EAEn kasuan kontuan eduki behar da I+G egin duten enpresen gidazterrenda. EUSTATEk 1989. urterako sortu ondoren, hurrengo urteetan hobetuz eta osatuz joan dela; eta 1991ean enpresek inkestari egindako erantzun-maila arras ona izan dela.

3. Aurreko apartatuan ZTBrekiko datuak eta laguntzak azalduak izan direnez gero, atal honetatik kanpo utziko ditugu.

4. 1992ko aurrekontuan programa horrek aurrikusia zuen kopurua 1.250 milioi pezetakoa zen eta 1993koan 1.240 milioikoa (pezeta korrontetan). Hobeki baloratzeko 1993ko aurrekontuaren (1.865 milioi) heren bat txikiagoa izan zela (pezeta korrontetan).

5. Gainera ez da zehazten pertsona hori I+Gra D.O.B.n dedikaturiko pertsonala den ala I+Gra denbora partzialean dedikatzen den.

## 1. Laukia

### I+Gko GASTUAREN TAMAINA ERLATIBOA ETA GASTU HORREN BANAKETA SEKTOREEN ARTEAN

	GERD (%) BPGrekiko	GERDen BANAKETA I+G EGIN DUTEN SEKTOREEN ARTEAN (%)					BERD (%) BPGrekiko
		Guztira	Unibertsitate sektorea	Organismo Publikoen sektorea	LAGEP sektorea	Enpresa sektorea	
EAE	1,27	100,0	10,6	4,0	0,0	85,3	1,08
ESPAINIA	0,81	100,0	19,4	22,1	0,0	58,6	0,47
EEE	2,00	100,0	16,3	17,4	1,5	64,8	1,30
EEBB	2,77	100,0	16,0	11,0	3,1	69,9	1,94
JAPONIA	3,07	100,0	17,6	7,5	4,1	70,9	2,18
ALEMANIA	2,81	100,0	14,4	13,2	0,4	72,0	2,02

Iturria: EUSTAT, "Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Ihardueren Buruzko Estatistika (I+G)".

Oharra: EA Eren datuak 1991. urteari dagozkie; gainerako herrialdeenak 1990. urteari.

Siglen esanahia: GERD: Murru-barneko I+Gko ihardueren gastuak guztira.

BERD: Enpresa- sektorearen murru barneko gastuak

LAGEP: Lukro-Asmorik Gabeko Erakunde Pribatuak.

BPG : Barne Produktu Gordina.

EAE : Euskal Autonomi Elkartea.

EEE : Europako Ekonomi Elkartea.

EEBB: Estatu Batuak.

## 2. Laukia

### ENPRESA-SEKTOREAREN I+Gko IHARDUERARI BURUZKO ZENBAIT ADIERAZLE (1991)

	I+Gko iharduerarekiko enpresen kopurua	Dedikazio osoaren balio berdintasunezko (D.O.B.ko) pertsonala	Murru-barneko I+Gko ihardueretarako gastuak (milioi pta.tan)	Murru-barneko gastuen % F.I.B.E.G.en aldean (1)	Batezbesteko enplegua I+Gko iharduerarekiko enpresetan	% sektoreko enpresa guztiaren aldean (2)	D.O.B.n I+Gra dedikaturiko pertsonala sektoreko pertsonalaren guztizkoaren aldean. Milako tasa
<b>NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>	4	18,6	194.277	0,30	8	–	–
<b>INDUSTRIA GUZTIRA</b>	360	2.973,7	23.153.025	1,57	227	1,3	10,2
Energia eta ura	4	73,1	904.980	0,55	975	1,5	13,2
Oinarritzko metalikoak	10	88,0	707.370	0,63	848	8,3	4,7
Industria ez-metalikoak	7	38,8	281.802	0,57	247	1,5	3,8
Kimika	30	307,0	2.491.859	4,24	159	11,7	35,7
Eraikuntza metalikoak	33	196,5	1.420.580	1,27	279	1,8	6,2
Artikulu metalikoak	38	182,8	1.491.993	1,23	155	1,8	7,6
Makina erremintak	33	296,1	2.381.684	7,38	94	19,4	44,9
Bestelako makineria	59	297,2	2.198.195	2,29	127	7,7	15,2
Bulego-makinak eta doitasunezkoak	4	17,6	78.739	1,65	166	2,3	9,6
Makineria eta material elektrikoa eta elektronikoa	71	868,1	6.266.168	7,32	173	10,8	38,9
Garraio-materiala	17	335,8	2.317.899	2,97	638	5,2	14,5
Janari-industriak, edariak eta tabakoa	4	13,5	116.021	0,16	379	0,3	1,0
Egurra eta altzariak	12	50,3	388.607	0,92	95	0,7	5,2
Papera eta arte grafikoak	6	40,6	577.179	0,89	221	0,7	2,8
Kautxua, plastikoa eta bestelako manufakturgileak	28	138,2	1.251.998	1,38	227	2,6	6,6
Eraikuntza	4	30,1	277.951	0,10	793	0,0	0,9
<b>ZERBITZUAK GUZTIRA</b>	65	1.057,3	12.255.693	0,70	63	–	–
Merkataritza eta ostalaritza	2	2,5	18.249	–	18	–	–
Enpresentzako zerbitzuak eta bestelakoak	47	385,6	4.628.105	–	66	–	–
Hezkuntza eta ikerketa	16	669,2	7.609.339	–	60	–	–

Iturria: EUSTAT. "Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Iharduerari Buruzko Estatistika (I+G)". 1991

(1) Murru-barneko I+Gko gastuen guztizkoaren portzentaia, fabrikatik irteerako Balio Erantsi Gordinaren aldean.

(2) 1990eko ratioak, 1991. urteari dagozkionetan pertsonalaren eta enpresen guztizkoa ez izateagatik.

(-) Ez dago daturik.

### 3. Laukia

## I+G EGITEN DUTEN ENPRESAK, TAMAINAREN ETA D.O.B.n DIHARDUTEN PERTSONEN ARABERA EAEn ETA ESPAINIAN (1990)

	EAE		ESPAINIA		EAEko enpresa-kopurua Espainiako enpresa-kopurua x 100
	Kopurua	(%)	Kopurua	(%)	
<b>ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA</b>					
Pertsonak <25	100	24,2	343	21,0	29,1
Pertsonak 25-49	57	13,8	225	13,8	25,3
Pertsonak 50-99	73	17,6	253	15,5	28,9
Pertsonak 100-249	95	22,9	331	20,3	28,7
Pertsonak 250-499	54	13,0	223	13,7	24,2
Pertsonak 500-999	19	4,6	123	7,5	15,4
Pertsonak ≥1000	16	3,9	132	8,1	12,1
<b>I+G EGITEN DUTEN ENPRESAK</b>	414	100,0	1.630	100,0	25,4
<b>DUTEN D.O.B.ko PERTSONALAREN ARABERA</b>					
Pertsonak <5	353	85,3	1.250	76,7	28,2
Pertsonak 5-9	28	6,8	178	10,9	15,7
Pertsonak 10-24	22	5,3	133	8,2	16,5
Pertsonak 25-99	27	6,5	58	3,6	46,5
Pertsonak ≥100	5	1,2	11	0,7	45,4

Iturria: EUSTAT eta INE (neronek landuak).

#### 4. Laukia

### ENPRESEN I+Gko IHARDUEREN MURRU-BARNEKO GASTUAREN BANAKETA, IHARDUERA-ADARRAREN ARABERA, EAEn ETA ESPAINIAN

	EAE (1991)		EAE (1990)		ESPAINIA (1990)	
	Milaka pta.tan	%	Milaka pta.tan	%	Milaka pta.tan	%
<b>NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>	194.27	0,5	145.804	0,5	1.781.242	0,7
<b>INDUSTRIA</b>	23.153.025	65,0	20.944.285	66,5	208.747.851	84,8
Energia eta ura	904.980	2,5	347.750	1,1	13.227.379	5,4
Oinarrizko metalikoak	707.370	2,0	878.390	2,8	3.074.133	1,2
Industria ez-metalikoa	281.802	0,8	247.105	0,8	3.948.841	1,6
Kimika	2.491.859	7,0	2.313.590	7,3	36.160.540	14,7
Produktu metalikoen eraikuntza	2.912.573	8,2	3.091.059	9,8	6.216.836	2,5
Makina eraikuntza eta ekipo mekanikoa	4.579.879	12,8	4.505.261	14,3	11.302.839	4,6
Bulego-makinak eta doitasunezkoak	78.739	0,2	85.305	0,3	18.290.101	7,4
Makineria eta material elektrikoak	3.548.601	10,0	2.913.515	9,2	10.839.202	4,4
Material elektronikoa	2.717.567	7,6	2.269.297	7,2	39.674.370	16,1
Garraio-materiala	2.317.899	6,5	1.489.873	4,7	47.742.316	19,4
Janari-industriak, edariak eta tabakoa	116.021	0,3	147.464	0,5	6.335.022	2,6
Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	-	0,0	-	0,0	1.110.423	0,4
Egurra eta altzariak	388.607	1,1	481.324	1,5	763.955	0,3
Papera eta arte grafikoa	577.179	1,6	332.787	1,1	1.939.938	0,8
Kautxua eta plastikoa	1.251.998	3,5	1.054.162	3,3	6.062.620	2,5
Eraikuntza	277.951	0,8	445.503	1,4	2.059.336	0,8
<b>ZERBITZUAK</b>	12.255.693	34,4	10.418.087	33,1	35.709.598	14,5
Merkataritza eta ostalaritza	18.249	0,1	155.755	0,5	163.093	0,1
Enpresentzako zerbitzuak eta bestelakoak	4.628.105	13,0	4.145.230	13,2	24.544.883	10,0
Hezkuntza eta ikerketa	7.609.339	21,4	6.117.102	19,4	11.001.622	4,5
<b>GUZTIRA</b>	35.602.995	100,0	31.508.176	100,0	246.238.691	100,0

Iturria: EUSTAT eta INE (neronek landuak).

## 5. Laukia

### TEKNOLOGIA HANDIKO SEKTOREEN BERDen EHUNEKOA ENPRESA- SEKTOREAREN BERDen ALDEAN

	EAE	ESPAINIA	EEE	EEBB	JAPONIA	ALEMANIA
Industria Aeroespaziala	0,1	7,0	11,5	25,3	0,0	7,8
Industria elektriko-elektronikoa	17,4	19,3	24,5	16,5	34,0	26,6
Bulego-makina eta ordenagailuen industria	0,0	5,8	4,5	–	–	3,3
Farmako-industria	2,2	8,7	9,1	5,1	5,6	5,5
<b>TEKNOLOGI HANDIKO SEKTOREAK GUZTIRA</b>	19,7	40,8	49,6	–	39,6	43,2
Bestelako industri manifakturgilea	42,1	36,6	41,7	–	57,7	52,8
Manifakturgileak ez diren industriak	38,2	22,5	8,8	8,1	6,5	4,0
<b>GUZTIRA</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: OCDE. "Main science and technology indicators 1992/2".

EUSTAT. "Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Iharduerari Buruzko Estatistika (I+G)".

Oharra: EAren datuak 1991. urteari dagozkio, EEE eta Japoniarenak 1990. urteari eta Espainia, EEBB eta Alemaniarenak 1989. urteari.



## 6. Laukia

### ENPRESEK EGINDAKO I+Gko MURRU-BARNEKO GASTUEN FINANTZAPENA EAEn (1991)

[	I+Gko murru-barneko gastuak (milaka pta.tan)	Finantziapena fondo berekiez (%)	Finantziapena besteren fondoez (%)
<b>NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</b>	194.277	85,2	14,8
<b>INDUSTRIA</b>	25.153.025	86,5	13,5
Energia eta ura	904.980	68,9	31,1
Oinarrizko metalikoak	707.370	94,1	5,9
Industria ez-metalikoa	281.802	89,5	10,5
Kimika	2.491.859	91,3	8,7
Eraikuntza metalikoa	1.420.580	80,1	19,9
Artikulu metalikoak	1.491.993	92,7	7,3
Makina erremintak	2.381.684	86,9	13,1
Bestelako makineria	2.198.195	93,7	6,3
Bulego-makinak eta doitasunezkoak	78.739	91,0	9,0
Makineria eta material elektrikoa	3.548.601	88,1	11,9
Material elektronikoa	2.717.567	80,1	19,9
Garralo-materiala	2.317.899	73,0	27,0
Janari-industriak, edariak eta tabakoa	116.021	99,6	0,4
Egurra eta altzariak	388.607	97,7	2,3
Papera eta arte grafikoak	577.179	99,4	0,6
Kautxua eta plastikoa	1.251.998	94,1	5,9
Eraikuntza	277.951	91,4	8,6
<b>ZERBITZUAK</b>	12.255.693	31,3	68,7
Merkataritza eta ostalaritza	18.249	100,0	0,0
Empresentzako zerbitzuak eta bestelakoak	4.628.105	45,3	54,7
Hezkuntza eta ikerketa	7.609.339	22,7	81,3
<b>GUZTIRA</b>	35.603.995	67,5	32,5

Iturria: EUSTAT, "Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Iharduerari Buruzko Estatistika (I+G)".

## 7. Laukia

### ENPRESEN I+Gko IHARDUERATARAKO BESTEREN FONDOEN JATORRIA IHARDUERA-ADARRARI JARRAIKI (1991)

	Guztira	Fondo berekiak	INOREN FONDOAK							
			Guztira	Enpresak	Administ. Zentrala	Administ. Autonomoa	LAGEP	EEE Programak	Agentziak eta nazioarteko erakundeak	Atzerriko herrialdeak
Nekazaritza	194,3	165,6	28,7	-	7,2	9,5	-	12,0	-	-
Energia eta ura	905,0	623,5	281,5	-	53,7	32,3	28,5	167,0	-	-
Oinarrizko metalikoak	707,4	665,6	41,7	-	22,2	19,7	-	-	-	-
Industria ez-metalikoa	281,8	252,2	29,6	-	-	29,6	-	-	-	-
Kimika	2491,9	2274,0	217,9	-	96,1	121,8	-	-	-	-
Eraikuntza metalikoak	1420,6	1138,6	282,0	-	82,2	149,0	-	51,0	-	-
Artikulu metalikoak	1492,0	1383,2	108,8	-	24,2	75,3	-	9,3	-	-
Makina erremintak	2381,7	2069,5	312,2	110,4	31,6	168,6	-	0,6	-	1,0
Bestelako makineria	2198,2	2059,2	139,0	-	22,3	116,7	-	-	-	-
Bulego-makinak eta doitasunezkoa	78,7	71,6	7,1	-	-	7,1	-	-	-	-
Makineria eta material elektrikoa	3548,6	3127,3	421,3	66,3	145,9	207,2	-	1,8	-	-
Material elektronikoa	2717,6	2177,3	540,3	70,0	264,5	201,2	-	4,6	-	-
Garraio-materiala	2317,9	1692,9	625,0	-	543,3	77,5	-	4,2	-	-
Janari-industriak, edariak eta tabakoa	116,0	115,6	0,4	-	-	0,4	-	-	-	-
Egurra eta altzariak	388,6	379,7	8,9	-	-	8,9	-	-	-	-
Papera eta arte grafikoak	577,2	573,4	3,8	-	-	3,8	-	-	-	-
Kautxua eta plastikoa	1252,0	1178,6	73,4	-	-	63,4	5,0	5,0	-	-
Eraikuntza	278,0	254,1	23,9	-	-	16,1	-	7,8	-	-
Merkataritza eta ostalaritza	18,2	18,2	-	-	-	-	-	-	-	-
Enpresentzako zerbitzuak	4628,1	2097,8	2503,3	19,7	1425,7	129,2	-	41,3	914,4	-
Hezkuntza eta ikerketa	7609,3	1724,0	5885,3	2596,3	580,1	2151,3	131,3	399,1	-	27,4
<b>GUZTIZKOA (1)</b>	<b>35603,0</b>	<b>24042,1</b>	<b>11560,9</b>	<b>2862,7</b>	<b>3298,8</b>	<b>3588,1</b>	<b>164,8</b>	<b>703,6</b>	<b>914,4</b>	<b>28,4</b>
Guztizkoaren banaketa (%)	100,0	67,5	32,5	8,0	9,3	10,1	0,4	2,0	2,6	0,0
Inoren fondorik hartu duten enpresak (2)	-	-	238	15	57	246	3	20	-	3
Enpresako jasotako finantzapena: (1)/(2)	-	-	48,6	190,8	57,9	14,6	54,9	35,2	-	314,3

Iturria: EUSTAT

## 8. Laukia

### I+G EGIN DUTEN ENPRESEN KOPURUA, TAMAINAREN ETA IZANDAKO FINANTZAPENAREN ARABERA (1991)

	ENPRESA-KOPURUA								EHUNEKOAK							
	Guzt.	<25	25-49	50-99	100-249	250-499	500-999	≥1.000	Guzt.	<25	25-49	50-99	100-249	250-499	500-999	≥1.000
Enpresak guztira	429	119	61	73	95	49	19	13	100	100	100	100	100	100	100	100
Besterenfinantzapen gabeko enpr.	191	63	27	38	37	14	9	3	45	53	44	52	39	29	47	23
Besteren finantzapena duten enpr.	238	56	34	35	58	35	10	10	55	47	56	48	61	71	53	77
Finantz. publiko gabeko enpresak	201	67	29	38	41	14	9	3	47	56	48	52	43	29	47	23
Finantz. publikoa duten enpresak	228	52	32	35	54	35	10	10	53	44	52	48	57	71	53	77
Besteren finantzazio nork emana:																
Beste enpresak	15	4	2	3	5	1	-	-	3	3	3	4	5	2	-	-
Administrazio zentralak	57	16	2	6	16	9	2	6	13	13	3	8	17	18	11	46
Eusko Jauriaritzak	202	42	31	31	49	31	10	8	47	35	51	42	52	63	53	62
Administrazio Lokalak	44	9	3	7	9	11	2	3	10	8	5	10	9	22	11	23
EEEren programak	20	3	1	3	8	2	-	3	5	3	2	4	8	4	-	23
Beste atzerri-erakundeak	3	-	-	1	1	1	-	-	1	-	-	1	1	2	-	-
LAGEPek	3	1	1	1	-	-	-	-	1	1	2	1	-	-	-	-

Iturria: EUSTAT

## 9. Laukia

### ENPRESA-SEKTOREAREN I+Gko IHARDUEREN EBOLUZIOA 1989tik 1991 ARTE

	NEKAZARITZA		INDUSTRIA			ZERBITZUAK			GUZTIRA		
	1990	1991	1989	1990	1991	1989	1990	1991	1989	1990	1991
1. I+G egin duten enpresen kopurua	3	4	343	353	360	53	58	65	396	414	429
2. (1)/sektoreko enpresen kopurua (%)	-	-	4,0	3,9	-	-	-	-	-	-	-
3. D.O.B.n I+Gra dedikaturiko pertsonala	8	19	3036	2895	2974	1011	1020	1057	4046	3924	4050
4. (3)/sektoreko pertsonal guztia (%)	-	-	11,8	11,5	10,2	-	-	-	-	-	-
5. (3)/(1) (%)	2,6	4,8	8,9	8,2	8,3	19,1	17,6	16,3	10,2	9,5	9,4
6. Murru-barneko I+Gko ihardueretako gastua (Milaka pta.tan)	146	194	20.593	20.944	23.153	7.612	10.418	12.256	28.205	31.362	35.409
7. (6)/Balio Erantsi Gordina (%)	0,2	0,3	1,5	1,5	1,6	0,5	0,7	0,7	-	1,0	1,1
8. (6)/(1) (%)	48	48	60	59	64	144	180	189	71	76	83
9. Inoren fondoak/(6) (%)	25	15	-	11	13	-	63	69	-	32	32

Iturria: EUSTAT (neronek landuak)

## 10. Laukia

### ZENTRO TEKNOLOGIKO BABESTUEN IHARDUERA

	INBERTSIOA		GASTU ARRUNTEN AURREKONTUA		PROIEKTU OROKORREN SARRERAK		PROIEKTU OROKORREN (%) AURREKONTUEN ALDEAN	PERTSONALA		
	M. pta. korronteak	M. pta. konstanteak	M. pta. korronteak	M. pta. konstanteak	M. pta. korronteak	M. pta. konstanteak		Laborala	Bekaria	Guztira
<b>1986</b>	465	465	1.614	1.614	815	815	50,5	345	95	440
<b>1987</b>	681	644	1.937	1.831	955	903	49,3	367	93	460
<b>1988</b>	560	501	2.274	2.034	958	857	42,1	397	138	535
<b>1989</b>	939	784	2.842	2.374	1.050	877	36,9	455	134	589
<b>1990</b>	1.064	828	3.627	2.822	1.146	892	31,6	507	154	661
<b>1991</b>	1.221	876	4.559	3.270	1.265	907	27,7	528	171	699
<b>1992</b>	939	630	4.727	3.172	890	597	18,8	538	165	703
<b>1993*</b>	1.158	732	6.409	4.050	1.700	1.074	26,5	664	237	901

Iturria: EITE (neronek landuak)

\* : Aurrikuspena

Oharra: Pezeta korronteak konstante bihurtzeko, BPGren deflatazailea erabili dut.

Robotiker eta Gaiker 1993an EITEn sartu dira, eta urte horretan bere datuak barne daude.

## 11. Laukia

### EMPRESEN I+G BULTZATZEKO PROGRAMAREN EMAITZAK

	1982	1983	1984	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992
Enpresa-kopurua	42	69	122	204	221	206	242	299	261	334	182
I+Gko pertsonala	574	751	1.098	1.242	1.479	1.550	1.455	1.681	1.455	1.428	1.082
I+Gko aurrekontua: Milaka pta.tan korrontek	1.285	2.176	5.057	6.045	8.167	9.269	10.571	11.886	12.596	13.150	8.796
Milaka. pta.tan konstanteak*	1.916	2.908	6.089	6.705	8.167	8.761	9.455	9.930	9.802	9.578	5.902
E.J.ren subentzioa: Milaka. pta.tan. korrontek	158	267	704	1.020	1.215	1.268	1.596	2.620	2.075	2.450	1.786
Milaka. pta.tan konstanteak*	236	357	848	1.131	1.215	1.198	1.428	2.189	1.615	1.784	1.199
I+Gko pertsonala / enpresa-kopurua	13,6	10,9	9,0	6,1	6,7	7,5	6,0	5,6	5,6	4,3	5,9
I+Gko pertsonala / plantila osoa (%)	7,6	3,5	2,1	1,9	2,0	2,3	2,1	2,3	2,2	1,9	1,9
I+Gko aurrekontua ( Milaka. pta.tan. korront.) / enp.-kopur.	30,6	31,5	41,5	29,6	37,0	45,0	43,7	39,8	48,3	39,4	48,3
I+Gko aurrekontua ( Milaka. pta.tan konst.) / enp.-kopur.	45,6	42,1	49,9	32,9	37,0	42,5	39,1	33,2	37,6	28,7	32,4
E.J.ren subentzioa / I+Gko aurrekontua (%)	12,3	12,2	13,9	16,9	14,8	13,7	15,1	22,0	16,5	18,6	20,3
E.J.ren subentzioa (M. pta. korront.) / enp.-kopur.	3,8	3,9	5,8	5,0	5,5	6,2	6,6	8,8	8,0	7,3	9,8
E.J.ren subentzioa (M. pta. konst.) / enp.-kopur.	5,6	5,2	7,0	5,5	5,5	5,8	5,9	7,3	6,2	5,3	6,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Industri Saila

(\*): Pezeta korrontek konstante bihurtzeko, BPGren deflatatzailea erabili dut

## 12. Laukia

### CDTIk LAGUNDUTAKO ENPRESEN I+Gko PROIEKTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

	EAE					ESPAINIA			EAE / ESPAINIA	
	(1) Proiektuen kopurua	(2) CDTIren ekarpena (Milaka pta.tan)	(3) Proiektuen aurrekontua (Milaka pta.tan)	(3/1)x100	(2/3)x100	(6) Proiektuen kopurua (Milaka pta.tan)	(7) CDTIren ekarpena (Milaka pta.tan)	(8) Proiektuen aurrekontua	(2/7)x100	(3/8)x100
<b>1987</b>	7	647	1.895	271	34	97	7.358	22.427	8,8	8,4
<b>1988</b>	13	1.224	2.647	224	46	213	14.119	35.969	8,7	7,4
<b>1989</b>	32	2.427	6.790	212	36	284	15.947	44.242	15,2	15,3
<b>1990</b>	25	1.471	3.526	141	42	307	17.644	46.945	8,3	7,5
<b>1991</b>	28	1.951	4.937	176	40	319	17.879	46.873	10,9	10,5
<b>1992</b>	46	2.439	6.852	150	36	331	15.810	45.863	15,4	14,9

Iturria: CDTIren memoriak (neronek landuak).

# EUSKAL ARTEAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

MARI JOSE ARANBURU

---

**H**erri honetako Artearen Historia ukitzerakoan, nahitahiezkoa omen da ia, batzuk uste horretan daude behintzat, *Euskal Artea bai / Euskal Artea ez* delako polemikara jotzea, baina ez hori bakarrik, baita printzipio--aitorpen bat egitea ere, eta halako moduz gainera non arteaz diharduen obra oro, izenburutik bertatik karga ideologiko handi batez jantzita etortzeaz gain, sarritan euskaltasuna definitzeko saio bihurtzen den.

Ez genuke gai horretan sartu nahi, baina Arte-bibliografian dagoen polemikaren tamaina ikusita komenigarria da gutxienez zenbait matizazio egitea. Ehun urte dira berezko *Euskal Arte* bat ba ote dagoen eztabaidatuz idazten hasi zela. Joan



den mendearen amaieratik pinturak bizi izan duen garapenak (Bilboko gorakada ekonomikoarekin eta ideia abertzaleen hedapenarekin batera gertatu zenak) bide eman du Euskal Pintura Eskola deritzanaren sorkuntza (sorkuntza literarioa behintzat) gauzatu dadin, bai eta, hedaduraz, edozein une historikotako arteak «euskal» izenlaguna soinean eraman dezan. Era horretan, eta polemika modu garbi samarrean onartuz, idazle gehienek ekoizpen artistiko honen edo haren euskaltasuna, bai eta izaera gipuzkoar, arabar edo nafartarra ere, definitzeko nahi bat isladatzen dute beren iritzietan; eta hainbat obratan bateratzeko joera dagoen bitartean, beste batzuetan, berriz, euskalduna eta nafartarra denaren arteko bereizketa garbia egin nahi da, eta harreman eta loturak ekartzen dira orduan hizpidera.

Polemika honen atzetik, funtsean, kutsu ideologiko nabarmena dago, baina merkatua dela edo komenigarritasun-arrazoiak direla, kontua da izenburuetan bakarrik azaleratzen dela hori: askotan liburua saltzea da garrantzitsuena, eta erosleak izenburua begietaratzen du lehenik. Idazpuru soil bat, hala ere, gezurrezkoa gerta daiteke, eta ez da harritzekoa, horregatik, obrak jasotzen duen jarrera bat izatea eta izenburuak beste bat defenditzen duela ematea. Ikuspegia, hasi «Euskal Artea» delakotik «Artea Euskal Herrian» deitutakora iritsi arte, oso zabala da, eta itzulinguru luzeetan ibili ohi gara definizio-rik eman ez eta sentsibiltateak ez mintzearren; hortxe daude, adibidez, «El Arte...del País Vasco y sus vecinos» gisako izenburuak.

Seriotasunez hartuz gero, kontu hau ez da huskeria bat; arte lana «euskal» arte bezala sailkatzean edo beste izendapen bat ematean, gure ondarearen atal handi bat eta gure historiaren alderdi garrantzitsu bat ahaz daiteke; izan ere, kanpotik ekarritako obrak anitzak izateaz gain (horrek agerian uzten du, bestalde, nolako kultur harremanak izan dituen Euskal Herriak mundu zabalarekin eta zenbateraino eragin eta aldarazi duten horiek mailako lokal ekoizpenaren egoera), garbi dago dauden estiloak forma eta tekniken inportazioaren ondorio baino ez direla, eta forma eta teknika horiek, leku gehienetan gertatu ohi den bezala, tokian tokiko behar eta gustuetara egokitu direla gero.

Gauzak horrela, beharrezkoa da politika eta ekonomiarekin nolabait lotuta dagoen auzi hau ahaztu eta, gure Artearen Historia hobeto ezagutzen lagunduko digun bibliografia aintzatzat hartzea, doitasun zientifikoz eta seriotasun metodologikoz egina denean noski. Baina Artearen Historiaren ikerketak Euskal Herrian daukan tradizio eskasa dela eta, arazotsua gertatzen da hori; ikerketa serio urriak kanpotik egiten ziren eta, batzuetan, lehenagotik sortutako eskemak erabiliz eta ez oso datu fidagarriekin gainera. Gaurko egoera pozgarriagoa da, Artearen Historia Unibertsitateak lantzen da eta. Nafarroako Unibertsitateak, honez gero, urte-mordoa darama lan horretan, eta berdin esan dezakegu Deustukoaz; berriagoak, Euskal Herriko Unibertsitateak sortutako Geografia eta Historia Fakultatea eta Arte Ederretako Fakultatea ditugu ikerketa-lanari bultzada berria ematen; Gasteizeko EPHIALTE izeneko Ikerketa Ikonografikoetarako Institutuaren sorrera ere beste oinarri sendo bat izan daiteke gure iragan artistikoaren ezagupen sakonagoa eskainiko duten ikerketen garapenean.

Ezbairik gabe Artearen Historia bat ez dago egiterik historiatu nahi den ondarea zein den ezagutu gabe, eta egia esanda, Euskal Herriaren ondare historiko-artistikoa aski ezezaguna gertatzen da. Tarteka-marteka inbentario ofizialak burutu badira ere, fitxak, zenbaitetan, irizpide historiko-artistikorik gabe osatu dira eta, gainera, ez daude argitara emanda. Katalogazioa guztiz premiazkoa da, baina zorionez errealitate bihurtzen ari da. Bi gauzarengatik suertatzen da interesgarri: alde batetik, dauden obren korpua ezagutzea ezinbestekoa dutelako arte-historialariek eta, bestetik, ondarearen kontserbaziorako eragile ere badelako (berau ez ezagutzea da, hain zuzen, galeraren funtsezko arrazoi).

Katalogoak egiterakoan irizpide probintziala jarraitzeko joera dago, Eliz ondarea eta gainontzekoa bereiztuz sarri askotan. Gisa horretakoa dugu, esaterako, argitara eman zen lehen katalogoa, *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria* delakoa, 1967an argitaratzen hasi eta, honez gero, 6 bolumen plazaratu dituena; hauetako bakoitzean (irizpide geografikoaren arabera gauzatuak) sarrera historiko bat eta garai desberdinetan

zeharreko ikuspegi artistikoaren azterketa egiten da lehenik, katalogazioari ekiteko gero udalerrien arabera. Bertan aditu desberdinak izan dira lankide (Micaela PORTILLA dugu aipagarriena, bere esku maisuari esker hainbat bolumenetan kalitatezko kutsua utzi duena), eta monumenturik esanguratsuenen azterketa monografikoak ere agertzen dira; obra hau ederki dokumentatuta dago eta jarraitu beharreko eredutzat har daiteke.

1980. urtean *Catálogo Monumental de Navarra* obraren lehen alea kaleratu zen. M<sup>a</sup> Concepción GARCIA GAINZAK maiutasunez zuzendutako obra honetan probintziako aberastasun artistiko ugaria biltzen da hiri-arkitektura eta aztarna arkeologikoeekin batera. Egundaino Tuteran, Lizarran, Olite eta, osoki ez bada ere, Zangoztako merinaldeei buruzko aleak argitaratu dira. Aurrekoa bezalaxe, hau ere, zorrotzasun handiko obra da, ederki dokumentatua, eta kontutan hartzeko informazio grafikoaz hornitua, gainera.

Bizkaiaren lehen katalogazioa 1958. urtean egin zen J. DE YBARRA Y BERGEREren eskutik *Catálogo de monumentos de Vizcaya* izenburupean, baina metodologi aldetik hankamotz gelditzen zen argi eta garbi. Gaurko egunean, Deustuko Unibertsitateko ikerlari-talde batek, J.A. BARRIO LOZAREN zuzendaritzapean ari delarik, *Catálogo del Patrimonio Artístico de la Diócesis de Bilbao* delakoa dauka esku artean. Dokumentazio eta argazki ugariz hornitua (tenplu guztien planoak barne) laster kaleratuko den hau funtsezko oinarria izango da, zalan-tzarik gabe, geroko ikerketetarako. Probintzia honekin jarraituz, aipatzekoa da, halaber, BARRIO LOZAK berak zuzenduriko obra hau: *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura histórica*, (3 ale, Bilbo, 1989, 1990 eta moldiztegia).

Gipuzkoako ondarea katalogatzeke dago oraindik, eta berdin esan daiteke Iparraldeko probintzietan dagokienez, bertako errealitate artistikoa oso gutxi ezagutzen delarik.

Planteamendu arras desberdinekin (zientzian baino gehiago salmentetan pentsatuz), Euskal Herriaren ondare artistikoaren zati bat biltzen duten hainbat obra eta gida eman dira argitara, eta helburua dibulgetzailea badute ere, emaitzak, pentsatzekoa zen legez, ez dira inondik ere berdintsuak. *Monumentos Nacio-*

*nales de Euskadi* obraren 3 aleek (Bilbo, 1985) Euskal Autonomi Elkartearen hiru probintzietan «Momumentu Nazional»tzat jo diren eraikinei buruzko lan monografikoak jasotzen dituzte, kalitate-aldeetik oso desberdinak hala ere. Ia horren jarraipen bezala, eta antzeko irizpide bat erabili delarik, *Monumentos de Bizkaia* izeneko lanaren lau aleak argitaratu ziren J.A. BARRIO LOZAREN zuzendaritzapean (Bilbo, 1987); bertan, eta ikerketa-lanak izateagatik interesgarriagoak diren monografiak aurkezteaz batera, oinarri zientifiko eta kritiko eskasak duten ohizko gordinkeriak ere sartu dira.

Talde berean sartu beharko lirateke, beharbada, ETOR argitaletxeak kaleratutako *Ibaiak eta haranak* bilduman ondare historiko-artistiko eta paisajistikoari eskainitako bolumenak (2, 4 eta 6.ak), bertako artikulua oso gorabeheratsuak direlarik; haxe da benetako koordinazio-lan bat jarraitu gabe eta hainbat autoreren artikulubiltegi bilakatzen diren obra haue-tan oro har nagusitzen den tonika.

Probintzi mailako katalogoak alde batera utzita, badira zenbait lan, ekimen instituzional nahiz pribatukoak, udal-mailako artea aztergai dutenak (Arte lokalaren Historiak monografia historikoetan gehigarri beharrezko, eta sarritan, eze-roso bezala daukan presentzia kontutan hartu gabe). Ekimen ofizialak azpimarratzekoak dira, hortxe baitaude, adibide gisa, Bizkaiko hainbat herritako ondare monumentalari eskainita bertako Foru-Aldundiak *Ezetz Jakin* delako bilduma sustatzean argitaratu dituen monografia historiko-artistikoak.

Atal berean sartu beharrekoak lirateke, halaber, ekimen ofizialak zein pribatuak eraginda, herri desberdinen inguruan egindako monografiak. Ugari samarrak direla esan daiteke, Historia lokala (Arte lokalaren Historia, beraz) gaur egun ikerketa-eremurik interesgarrienetako bat bilakatu delarik. Hona hemen zenbait adibide: Oñatiko haranaren ondare historiko eta monumentalari *Inventario Histórico-artístico del valle de Oñati* delakoan izan da jaso irakasle-talde baten eskutik (Gasteiz, 1982); interesgarria gertatzen da, batez ere, zonalde horretan artistiko izan daitekeen guztia bildu, deskribatu eta argazki bidez erakusten duelako. Probintziako ondare artistikoa bere

osoan jasotzen duen katalogaziorik ez izatean, gisa honetako ekimen pribatuak aintzakotzat hartzekoak dira erabat. Juan Cruz LABEABA MENDIOLAK, bestalde, *Viana Monumental y Artística* izeneko obra eskerga eta eruditoa eman du argitara (Iruña, 1984), lan honen planteamendua neurri batean katalogo huts bat izatera mugatu bada ere. Ez hain eruditoa, baina bai aberatsagoa bere planteamenduetan (finantzaketa, inportazioa, arte-egilea, bere jatorria eta egoera,...) M<sup>a</sup> Jose ARANBURUK eta Jesus GIL MASSAK *Artea Bergaran. Erdi eta Moderno Aroak* izenburupean Bergarari eskainitako ikerketalana dugu (Bergara, 1991). Hauetaz gain, badira gero ikerketa interdisziplinarioak, Bilbo hiriarri arestian dedikatu zaiona kasu, non *Bilbo, Arte eta Historia* izenburupean, eta hiri-errealitateari buruzko azterketa bikaina dela medio, autore desberdinen artikuluko-sorta bat agertzen baita ikuspegi zabal eta joria eskainiz. Eta badira, orobat, ikerketa partzialak herri baten egoera artistikoaren alderdi jakin bat bakarrik aztertzen dutenak; honen adibidea *Arquitectura y urbanismo de Laguardia* izenarekin F. MARTINEZ DE SALINASek buruturiko lana dugu (Gasteiz, 1991).

Intereskorreko azterketaren bat egina badago ere, ikerketa-eremu hau, interesgarritasun handikoa bestalde, ia landu gabe aurkitzen da. Hortxe daude, gai batzuk aipatzearen, estiloen iraunkortasuna, ekoizpen artistikoaren europeismoa edo ez europeismoa, enpresa artistikoen mezenazgoa eta finantzaketa, e.a... Oraingoz, obra bakar bat azpimarratu daiteke, hain zuzen, J.I. LINAZASOROK idatzitako *Permanencias y arquitectura urbana. Las villas vascas de la época romana a la Ilustración* liburua (Bartzelona, 1987); bertan hirigintzak Euskal Herrian dituen arazoak aztertzeaz gain, hiri-tipologiarik adierazgarrienak eta berauen elementu osatzaileak sailkatzeko dira, etxeko arkitektura eta estilo artistikoez horretan duten eragina ere jasotzen direlarik.

Inbentario, dokumentazio eta katalogazio mailan behar adinako ikerketa-lanik ez egotean, Euskal Herriko arte-lanari buruz dakiguna, hortaz, partziala baino ez da. Gainera, obra, multzo monumental edo artistei eskaini zaizkien lan mono-

grafikoak, ikerketa zabalago baten oinarria izan behar duten analisi arkeologiko, historiko-dokumental eta formala bateratu behar dituen metodologia zorrotzaren arabera burutu direnak, urriak dira oraindik, aipatuak eta aipatu gabe gelditu diren beste asko gorabehera, eta hau oztopoa baizik ez da a rgitalpenetan hain beharrezkoa diren sintesi egokiak burutu ahal izateko.

Gauzak horrela, egin diren sintesiak ez dira asko, eta ez dute elkarren artean koherentzia handirik gordetzen.

Hutsune batzuk betez, 1976-77 urteetan Euskal Kulturari buruz Donostian ospatutako I. Ikastaro a ren hitzaldietako testuak eman ziren argitara *Arte Vasco / Euskal Artea* izenarekin (Donostia, 1982). Ordurarte ezagutzen zenaren sintesia nahi du izan obra horrek. Nahiz eta, panorama bibliografikoaren gabezia dela eta, liburu guztiz beharrezkoa izan, ez du -obra-mota hauetan ohizkoa denez- osotasunik gordetzen, eta esan ere esan liteke J.M. de Lekuona bezalako pertsonaia ospetsuen parte hartzeak kutsu tradiziozalea eta errealitatetik urrunduera erantzen diola, iritzi pertsonala, batzuetan, oinarri zientifikoaren objektibotasuna baino gehiago azpimarratzen delarik.

Erabat desberdinak *kanpotik egindako* beste zenbait obra ditugu, March Fundazioak Nafarroa eta Euskal Herriari eskainitako monografiak, esate baterako. Oro har hartuta, elkarte autonomo bakoitzaren Arte-Historia ederki laburtzen dutela esan daiteke —orain arte argitaratu denean oinarriturik, jakina, datuak ez baitira kontrastatu eta honek, noiz edo noiz, errakuntzak egitera eraman dezake—, ez dira aurriritzi eta joera erradikaletan murgiltzen (argitalpenaren planteamenduak aurrerik ezarritako lurralde-banaketan salbuetsita), eta mugatuak izan arren horregatik, oso obra baliagarriak, planteamenduan garbiak eta behar bezain zuzenak ditugu gure iragan artistikoaren ezagupenean abiapuntu egokia izateko. Nafarroaz ari den testua Rogelio BUENDIari zor diogu (*Navarra, Pueblos de España* bilduma, Noguera argitaletxea / March Fundazioa, Madrid-Barcelona, 1988), eta Euskal Autonomi Elkar-teaz diharduena Salvador ANDRES ORDAXen eskutik dator (*Pais Vasco*, 1987).

Joera arras desberdinekoa K. BARAÑANOK, J. GONZALEZ DE DURANAK eta J. JUARISTIK *Arte en el País Vasco* izenburuean kaleratutako liburua da (Madrid, 1987), bere ezaugarri nagusia —eta birtutea beharbada— obra polemikoa izatearena delarik. Bere argitalpenari, izan ere, beste ezein obrak inoiz piztu ez duen polemika periodistikoa jarraitu zitzaion. Ez da, egia esatera, Euskal Herriko Artearen Historiari buruz eskuliburu moduan egina den sintesia, Euskal Herriko sor-kuntza artistikoaren errepaso historikoan oinarriturik gogoe-tak eta espekulazioak egiten dituen obra pertsonala baizik. Euskal arte baten existentzia edo honen eza, berankortasuna, artista eta formen inportazioa, e.a., interesgune dira obran, arte eta artisten inguruko iritzi kritikoa, gugandik zenbat eta hurbilago egon orduan eta biziagoa, ugaria delarik.

Liburua atal desberdinetan dago banatuta. Aurrenekoan azalpen teorikoak ematen dira aztergai hartuta Artearen Historiak Euskal Herrian dituen arazoak, tradizio-eza, eta Euskal Pintura Eskola bat aztertu eta definitzeko ikuspuntu teoriko-tik egindako ahaleginak. Historian zehar errepaso txiki bat egin ostean, obra Arte Garaikideari batez ere eskainitako liburu gisa eratzten da, garapen historikoa gai nagusiari, Euskal Artearen inguruan gaur dagoen polemikari hain zuzen, berriro hel-tzeko aitzakia baino ez delarik. Liburuaren planteamenduak —Literatura eta arte plastikoak ere sartu dira eta— oso gai suge-rikorrak agertzen ditu gerorako aztertzeke, baldin eta azterketa hori liburuak aurkezten duen baino ikuspegi zabalago batetik abiatuta egiten bada, zeren eta, benetako sintesia ez denez, printzipio-aitorpen bat baizik, zenbait gai oso azaletik ukitu baitira, aipatu gabe ere gelditzen ez direnean, Gotikoaren kasuan gertatu den bezala. Nolanahi dela ere, oso obra inter-resgarria da beste askorekin parekatuz gero.

Jesús M<sup>a</sup> GONZALEZ DE ZARATEk idatzitako *La Literatura en las Artes. Iconografía e Iconología de las Artes en el País Vasco* liburua obra berritzailetzat jo zen argitaratu zenean (Donostia, 1987). Hala ere, eta izenburuak asmo handikoa eman badezake ere, egia esatera, Euskal Herriko Artearekin nolabaiteko lotura izan dezaketan obrei buruzko artikulubil-

keta bat baino ez da. Mitoa, irudi literarioa, zentzu enblematikoa edo irudi sakratua metodo ikonografiko-ikonologikoa erabiliz aztertzen dira autoreak hautaturiko obretatik abiatuta, emaitzak gorabeheratsuak izanik. Ez da hau, beraz, benetako sintesi-obra bat, metodo honek Euskal Herriko arteari aplikatuta dauzkan posibilitateak erakusteko saioa baizik.

Aipatzekoa da, azkenik, 1989. urteaz geroztik eta *Euskal Artearen Historia* izenburupean Donostian atalka argitaratzen ari den sintesi-obra. Kapituluak autore desberdinen eskutik izan dira idatziak, eta benetako koordinaziorik ez duten gisa honetako obretan gertatu ohi den bezala, emaitzak gorabeheratsuak dira batzuen eta besteen artean. Ereku geografikoa, Euskal Herria bere osoan hartzen baitu, eta argazki bidez eskaintzen duen dokumentazio zabala, azpimarratzekoak dira dena den.

Euskal Herriko Arteari buruz idatzi diren obretara irizpide kronologikoaren arabera hurbilduz, Historiaurrea dela eta argitaratu diren obra-pila nabarmendu beharra dago. Gehienak, halabaina, irizpide arkeologiko soilean oinarritzen dira, osagai artistikoan asko sakontzera iristen ez direlarik. Interesa ez da gutxiagotua gertatzen, hala ere, J. ALTUNA eta J.M. APELLANIZen obretan.

Beste hainbeste esan liteke Aintzinaroaren aztarna arkeologikoen inguruan aldizkari berezietan argitaratu ohi diren ikerketetaz. M<sup>a</sup> Angeles MEZKIRIZ edo I. BARANDIARAN ikerketa-mota honetako produkzioaren erakusgarri onak dira.

Aintzinaroaren aztarna artistikoak eskasak baldin badira, ezin gauza bera esan Erdi Aroak Euskal Herrian utzi duen ondareaz. Arte Erromanikoa eta Arte Gotikoa benetako hito bihurtu dira Herriaren bilakaera artistikoan, nahiz eta ahaztu behar ez den obren banaketa territoriala desorekatsua gertatzen dela, barnealdeko probintzietan askozaz ugari eta aberatsagoa delarik. Horren ondorioz, ikerketak ere partzialak gertatzen dira, eta Araba eta Nafarroari buruz makina bat lan plazaratu den bitartean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Iparraldeari dagokienez kopurua nabarmenki jaisten da.



Biurrun, Apraiz eta Lekuonaren ikerketa jada zaharrek, bai eta Gaya Nuñorenak ere, bibliografia berri, eta nolabait, oparo ari utzi diote lekua Erdi Aroko Arteari dagokionean.

Arte Aurreerromanikoak neurri handi batean ezezaguna izaten darrai oraindik, eta bere inguruan burutu diren ikerketak, askotan, Arkeologian murgiltzen dira gehiago Artearen Historian baino. Hau gorde diren aztarna urri eta sakabana-tuekin, eta historiaren aldi honek ikerketa-lanari dakarzkion zailtasunekin lotu-lotuta dago.

Nafarroako Ertaroko Arteaz aztertzen duen obra bat, eskerga bera, baita asmo handikoa eta joria ere azalpen grafikoari dagokionez, baina nahaspilatsua dudarik gabe eta ez ondo editatua, *Arte Medieval Navarra* izeneko liburua dugu, J. Luis URANGAk eta Francisco IÑIGUEZek idatzia (Iruña, 1973). Denboraren poderioz guztiz aztertzekoa den material-bilketa ugari jasotzen du bertan eta oso tarte zabala eskaintzen die, bestalde, Arte Aurreerromanikoak Nafarroan eta inguruko zenbait lurraldetan utzi dituen obrei. *Iglesias rupestres visigóticas en Alava* izenburupean LATXAGAK idatzitako liburua (Bilbo, 1976) interes-maila berdinean mantentzen da material grafikoaren bilketari dagokionez. Horrela, beraz, arkitektura aurre-erromanikoa ikerketa-lanen beharrez dagoen eremua da oraindik, zenbait artikulu interesgarri argitaratuta badaude ere. Beste izaera arras desberdinekoa Soledad SILVAK *Iconografía del siglo X en el reino de Pamplona-Nájera* izeneko liburua da, bertan Errioxako eskriptoria mozarabiarren miniatura sakonki aztertzen delarik. Tintera aurreerromanikoaren arte islamiarra ongi ezaguna dugu B. PAVON MALDONADOK *Tudela ciudad medieval. Arte islámico y mudéjar* izenarekin idatzitako liburuan Gómez Morenoren artikuluari egin zion berrazterketa dela medio (Madrid, 1987), ikerketa-mota honetarako eredu metodologiko aparta bihurtzen delarik.

Arte Erromanikoak, hala eskultura eta arkitektura mailan dauden erakusgarri ugariengatik nola bere aberastasun eta aniztasunagatik, aukera handiagoak eskaintzen ditu ikerketarako. Horrexegatik da hau seguraski, Artearen Historian bibliografia gehiago sortarazi duena. Asko dira hainbat obra,

lurrealde, alderdi ikonografiko, e.a., aztergai hartuta egin diren ikerketa partzialak, aldizkari berezietan argitaratuak gainera; baina oraingoz ez da Erromanikoa Euskal Herrian aztertzen duen obra orokorrik egin.

Nafarroako Erromanikoa da ikerketetan ugariena. Lehen adierazitako *Arte Medieval Navarra* delakoarekin batera, J.M. de LOJENDIOren *Navarra* liburua aipatu behar dugu, «La España Románica» sailaren barruan aurkitzen dena (Madrid, 1978) eta duela urte dexente «La Pierre qui Vire»-n inauguratutako bildumaren eredu tradizionalari jarraitzen diona zenbait obrari buruzko monografi sorta bat aurkeztuz; ezin da, hori dela eta, osotasuna duen obratzat hartu. Dokumentazio grafikoan erabilitako seriotasuna eta erreproduzioen kalitatea aipatze-koak dira, hala ere.

Eskultura monumentala ikerketa anitzetan izan da aztertua eta oso ikuspegi desberdinetatik gainera, irizpide ikonografikoa izan delarik gehien erabili dena. Argia ikustera iristen ez diren lan puntualak (tesinak, e.a.) etengabe egiten ari badira ere, bada ikerketa-sorta ugari bat normalean «Principe de Viana» aldizkarian argitaratua, egilea bat edo bestea izanik, ikusmoldea eta sakontasuna aldakor dituenak.

Imajinagintza, Ama Birjinari dagokiona behintzat, Clara FERNANDEZ-LADREDAren lanari esker dugu ezagunago. Taila erromaniko eta gotikoak katalogatu ondoren, egile honek tipoak definitu eta obrak taldekatzeari ekin dio eredu ikonografikoen jatorria eta kontserbaturiko tailen arteko loturak ezarriz. Bere ikerketak, funtsezkoak dudarik gabe Nafarroako Ertaroko imajinagintzaren ezagupenari dakarkion laguntzagaritik eta beste aztergai edo lurrealde batzuetarako aplikatu litekeen eredu metodologiko bihurtzeagaritik, izen honekin eman dira argitara: *Imaginería medieval mariana en Navarra* (Iruña, 1988).

Aralar S. Miguel basilizan aurkitzen den erretaula esmaltatua, maisu-lana berez, zehazki aztertua izan da 1979. urtean lapurtua izan eta goitik behera berriztatu ondoren; ikerketa hauen emaitzak berriztatze-lanak amaitu ostean ospaturiko erakusketa zela eta *El retablo de Aralar y otros esmaltes navarros* izenez argitaratutako katalogoan daude ikusgai (Iruña, 1982).

Arabako erromanikoa kalitate handiz dago jasota —egileak ohi duen bezala— Micaela PORTILLAk buruturiko laburpe-  
nean (*Alava en sus manos*, IV. alea, Gasteiz, 1983). «Catálogo  
Monumental de la Diócesis de Vitoria» liburuan agertzen diren  
monografieta batzuk, J. M<sup>a</sup> de AZCARATEk Armentia eta  
Estibalitzeko basilikiei eskaini dizkienak kasu, bereizturik  
eman dira argitara. Azken monumentu horren inguruan badago,  
halaber, beste monografia bat Jesús GONZALEZ DE ZARA-  
TEk metodo ikonografiko-ikonologikoa erabiliz gorpuztu duena.

Beste probintzietako erromanikoak, ez hain ugaria bes-  
talde, ez du horrenbeste arretarik sortarazi. Bizkaiari dago-  
kionez, J. L. BARRIO LOZAK *La arquitectura románica vizcaína*  
deritzan liburua dauka argitaratuta (Deusto, 1979), eta berri-  
kuntza handiko lana ez bada ere, baliagarria gerta daiteke sin-  
tesi gisa. Isabel ESNAOLAK Gipuzkoako erromanikoa aztertu  
zuen *Euskal Artearen Historia* liburuan gai honi eskaintzen  
zaion atalean sintesi bat argitara emanez. Iparraldeari gagoz-  
kiolarik, Santa Grazi eta Ospitale-St. Blas-i buruz M. DUR-  
LIATEk eta V. ALLEGREk *Pyrenées Romanes* liburuan agertu-  
tako bi azterketa monografikoak bakarrik aipa daitezke (La  
Pierre qui Vire, 1982).

Arte Erromanikoarekin gertatzen den bezala, Arte Gotikoa  
ere ugariago eta aberatsagoa den lekuetan izan da azertuagoa,  
Nafarroan eta Araban, alegia, Baiona bezalako gune garran-  
tzitsua ahaztu gabe, bertako katedralak merezi duen arreta  
behar adinako zehaztasunez oraindik jaso ez badu ere.

Nafarroako Gotikoari dagokionez, *Arte Medieval Navarra eta*  
*Imaginería Medieval Navarra* izeneko liburuetan eskaintzen  
zaizkion atalez gain, badira hiru obra, gai eta ikuspegi aldetik  
desberdinak, azpimarratuak izatea merezi dutenak:

Horma-pintura M<sup>a</sup> Carmen LACARRA DUCAYk hartu zuen  
aztergai *Aportación al estudio de la Pintura Mural Gótica en*  
*Navarra* izenarekin burutu zuen tesi doktoralesan (Iruña, 1974).  
Bertan, XIV eta XV. mendeetako nafartar multzo piktoriko  
nagusien azterketa egiten du aski tradizionala den metodolo-  
giari jarraituz: deskribapena eta ikonografia, estilo eta tekni-

karen azterketa, beste eskola eta obrekiko loturak, e.a., interes handiko datu ugari ere erantsiz; obra egina izan zen lekua-ren azterketarekin eta Nafarroako orduko egoera historikoaren analisiarekin osatzen da guzti hori, gaiari osotasun egokia ematea lortzen duelarik.

XV. mendeko eskulturgintza R. Steven JANKEk aztertu du *Janin Lome y la escultura gótica posterior en Navarra* izenburupean argitaraturiko liburuan (Iruña, 1977). Obra hau garrantzi erabatekoa da Janin Lome bere garaiko europear eskultorerik nagusienetako bat dela egiaztatu eta XV. mendeko hilobi-arte nafartarra ezagutzeko; gorde diren obren azterketa monografikoekin batera, autoreak aurkezten duen dokumentazioa ere dugu aipagarri.

Badago, bestalde, Nafarroako gotiko garaiko artegintzari eskainitako panorama bibliografikoan berriago eta berritzaile gertatzen den ikerketarik ere. Javier MARTINEZ DE AGUIRREk bere *Arte y Monarquía en Navarra, 1328-1425* delako liburuan esaterako (Iruña, 1987), luze eta zabal hitzegiten digu Evreux dinastiak Nafarroan egindako mezenazgo lanari buruz. Nahiz eta mezenazgoa, erregetzaren nahiz pribatua, arteaz egin den ikerketetan nola edo hala beti agertu den, orain, Euskal Herriari dagokionez, liburua-ren gai nagusi bihurtzen da. Evreux etxearen erret patronatua, Nafarroari mende joria eman ziona artegintzan, zehatz-mehatz aztertzen du egileak tintontzian ezer utzi gabe: arkitektura zibil eta militarra, erlijio-mailakoa, arkitektura ez iraunkorra, eskultura eta pintura lanak edo arte suntuarioak. Gainontzeko arte europearrekin aldi honetan dagoen harremana aztertzerantz iristen da, bai eta, itxuraz hutsalak eman arren, materialen iturria, prezioak edota alderdi zeharroteknikoak ere. Baina bada, horretaz gain, beste interes-gune bat: artisten arazoak, jatorria, soldata eta gizarte-balorapena bezalako aspektuak ukitzen dira artea panorama historiko zabalago batean kokatuz, alderdi ekonomiko eta sozialak barne, baina obrak Arteari buruzko lan bat izateari utzi gabe.

Arabako Arte gotikoa Soledad SILVAREN *Iconografía Gótica en Alava* deritzan argitalpenean izan da aztertua (Gasteiz, 1987).

Besteak beste aipatzekoa da, aldi gotikoa baino haruntzago joan arren, Micaela PORTILLAK *Torres y casas fuertes de Alava* izenburupean kaleratutako obra eskerga (Gasteiz, 1978), garai horren azterketa ere egiten duelarik. Ikerketa bikaina da bera, Euskal Arteari buruzko liburutegi orotan egon beharrekoa. Autoreak sistematizazio-lan bat egiten du probintziako obra zibilek osatzen duten ondare handi hori kronologia, geografia eta gorabehera historikoen arabera bereiztuz, motatan taldekatuz, e.a., eraikuntzen azterketak eta familia sustatzaileen aipamenak leku hartzen dutelarik.

Errenazimendua aldirik emankorrenetako bat izan da ekoizpen artistikoari dagokionean. Obrak eta iturri dokumentalak ugari izateak bide eman du ikerketa franko egin daitezen, garaia oraindik oso ezaguna ez bada ere. Gogora dezagun dau den obrak inbentariatu eta katalogatzeko lehen aipatu dugun behar hori. Askotxo dira hainbat obrari buruz argitaraturiko monografiak, kalitate aldetik, eremu zabalagoa hartu duten beste zenbaitetan bezala, eskasak izan arren.

Iparaldeko produkzioak gutxi ezagutzen dira; Bizkaian, F. SESMAROren aspaldiko lan bat eta J.A. BARRIO LOZAK, garai honetako bizkaitar artegintzari buruzko perspektiba berri bat ekarriz, egin berri dituen ikerketak aurkitzen ditugu. Gipuzkoari dagokionez, M<sup>a</sup> Asunción ARRAZOLAren *El Renacimiento en Guipúzcoa* liburua eskura eduki behar den lana da oraindik (Donostia, 1969); obra honek egina izan zen garaian nagusitzen zen eredu metodologikoari jarraitzen dio (katalogazioa, deskribapena eta ahalik eta dokumentaziorik osoena eta eruditoe-na), eta gai honen inguruan egin den lehen hurbilketa dugu, bai eta bakarra ere, aldi hau jorratu gabe baitago oraindik. Lan monografikoei dagokienez, ezin ahaztu daiteke, metodo ikonologikoa erabiltzen du eta, J. GONZALEZ DE ZARATEren *Arquitectura e iconografía en la Universidad de Oñate* izeneko lana (Iruña, 1992). Irizpide berbera erabiltzen du egile horrek *El Palacio Escoriaza-Esquivel* liburua gorpuzterakoan (Gasteiz, 1987). Arabako errenazimenduaren beste zenbait aspektu X. CASTAÑERrek *Mito y religión en la plástica alavesa* idatzitako liburuan aurki daitezke (Gasteiz, 1989), nahiz eta, Nafarroaren kasuan gertatzen den bezala, gehien aztertu den joera Erro-

manismoa izan. Zentzu honetan, S. ANDRES ORDAXek buruturiko *La Escultura Romanista en Alava* (Gasteiz, 1974) eta *El escultor Lope de Larrea* (Gasteiz, 1976) izeneko obrak ditugu, artistei buruz etorkizunean egin daitezkeen ikerketetarako eredu metodologikoa direlarik.

Nafarroak, Artearen Historia ia osoan bezala, bibliografia zabalagoa dauka. Biurrun, Castro, Altadill edo Urangaren ikerketa honez gero klasikoen ondoan, artikulua ugari daude idatzita, batzuk apartak benetan, garapen zabalagoa duten eta bikainki burutu diren beste batzuekin batera. Hautetako bat M<sup>a</sup> Concepción GARCIA GAINZAK *La escultura romanista en Navarra. Discípulos y seguidores de Juan de Anchieta* izeneko liburua dugu (Iruña, 1969). Obra honetan, egileak Nafarroako tailer erromanista desberdinen produkzio ugaria sailkatu eta sistematizatzen du autore, kontratu, produkzio-modu, eta abarri buruzko datu arras interesgarriak aurkeztuz, interes historiko-soziologikoa duten beste zenbait xehetasun, hala nola, prezioak, materialak, teknikak edota arautegi legalak ahaztu gabe. Euskal Herriko artearen panorama bibliografikoa aberastuta gertatzen da obra apart honekin, bertan aurkeztzen zaigun dokumentazio zabala eta eranskin grafikoa arras lagungarriak direlarik.

Aldi honetako pintura aztergai harturik, E. CASADO ALCALDEK *La pintura en Navarra en el último tercio del siglo XVI* liburua eman zuen argitara (Iruña, 1976), errenaisantzako ekoizpen artistikoan ordurarte ezezaguna genuen alderdi hau ezagutu eta baloratzeko funtsezko obra bihurtuz. Kolorearen munduak beste argitalpen interesgarri bat ikusi du arestian Pedro ETXEBERRIA GONĪren eskutik.

Barrokoa gutxiago ezagutzen da eta, hortaz, gutxiago ere sistematizatu izan da. Obra arkitektonikoak eta erretaulak aztertzen dituzten lanak, bai eta sintesi aurrerakorrak ere, ia probintzia guztietan egin dira, baina denetan aipagarriena M<sup>a</sup> Isabel ASTIAZARAINek garatutako lan eskerga dugu, Gipuzkoako arkitektura barrokoari buruz hainbat liburu argitaratu dituelarik; Loiolako Santutegiari eta Donostiako Sta. Mariari eskaini dizkien monografiez gain, *Arquitectos guipuzcoanos del siglo XVIII* delako liburua nabarmendu beharra dago (I. alea

Donostia, 1988; II. alea, 1989; III. alea, moldiztegi). Egileak Gipuzkoako panorama artistiko aberatsaren banan banako azterketari ekiten dio bertan, eta sarrera zabal bat egin ondoren, garaiko maisurik puntakoenen biografia historiko-artistikoari heltzen dio. Obra hau, planteamendu aldetik, tradizionala dela esan badaiteke ere, beste edozein azterketa-mota egin aurretik ezinbestekoak diren katalogazio eta dokumentazioa, pertsonalitate nagusien definizioa, autoreen arteko erlazioak, obrak, joera estilistikoak, e.a. jasotzen dituenetakoa dugu; hitz gutxitan esanda, lan hau funtsezkoa gertatzen da Gipuzkoako, eta beraz, Euskal Herriko arte barrokoa ezagutzeko.

XIX. mendea ikertzaileen interesgune izan da, baina ez neurri berean. Zalantzarik gabe Neoklasizismoak adibide interesgarriak utzi ditu Euskal Herrian —gogora dezagun Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak artearekin izan duen harremana, egun M. Ruiz de Ael aztertzen ari dena— ikerketa sistematikorik oraindik burutu ez bada ere. Arkitektura eta hirigintza bai izan direla aztergai hainbat lanetan; hortxe dugu, esaterako, D. FULLAONDOK *La arquitectura y el urbanismo de la región y entorno de Bilbao* izeneko liburuan burutu duen material-bilketa (Madrid, 1969 eta 1971), M.C. RODRIGUEZ SORONDOK *Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián —1813-1922—* delakoan Gipuzkoako hiriburuaren garairik oparoenan nagusi ziren joera eta korronteei buruz egin duen azterketa (Donostia, 1985), edota *Arquitectura y urbanismo en Pamplona a finales del siglo XIX y comienzos del XX* izenburupean A. ORBE SIVATTEK argitaratutako lana (Iruña, 1986); badira, horietaz gain, hirigintza-alorrean argitara eman gabe dauden beste zenbait azterketa, bereziki euskal hirien zabalketaz dihardutenak. Dena den, idatzitako guztiaren ahaleginik handienak (*Arte en el País Vasco* liburuan gogorarazten den bezala) Euskal Pintura Eskola definitzera zuzendu dira.

XIX eta XX. mendeak besarkatuz, eta ikuspegi ideologiko desberdinetatik abiatuta, oso bibliografia joria dago Euskal Pintura Eskolaren inguruan. Artistei eskainitako biografiak, handikerian murgilduta batzuk, anitzak dira berez —adibide gisa «La Gran Enciclopedia Vasca»k *Pintores y escultores vas-*

*cos de ayer, hoy y mañana* izenburupean plazaratu duen biografi sorta aipa daiteke—, baina maila on bat erakusten duten sintesiak, berriz, urriak. Kritika zorrotzak jaso baditu ere —hizkeragatik batipat— J.M. ALVAREZ EMPARANZAREN *Origen y evolución de la pintura vasca* liburuak ez du interesgarritasunik galdu (Donostia, 1973), honen jarraipen gisa egileak geroago idatzi zuen *La pintura vasca contemporánea 1935-1978* delakoa eskasagoa gertatu delarik (Donostia, 1978).

XX. mendeko gorabehera historiko aldakorrek lagungarri izan dira ikuspegi guztiz desberdina duten ikerketak egin daitezten. Hauetako bat M<sup>a</sup> José ARRIBASEN *40 años de Arte Vasco 1937-1977. Historia y Documentos* deritzan liburua dugu (Donostia, 1979), eta izenburuan igartzen den bezala, lan honek urte horietako Euskal Herriaren bizitza artistikoaren islada izan nahi du dokumentuen bitartez; esan behar da, hala ere, helburu polit hori hutsala gertatzen dela bere emaitzan, interesgarritasuna bere dokumentazioan soilik mantentzen delarik.

Interes handiagokoa Ana M<sup>a</sup> GUASCHEN *Arte e ideología en el País Vasco 1940-1980* izenarekin kaleratutako liburua da (Barcelona, 1985), bertan, eta urte horiek hartuta, irudi, sorkuntza artistiko eta joera ideologikoen arteko harremana sakonkiago aztertzen duelarik.

Badira, bestalde, hainbat artistaren inguruan oso kontuan hartzekoak diren monografiak, hala nola, Kosme BARAÑANOK Uzelayri eskainitakoa (Bilbo, 1981) edo J. GONZALEZ DE DURANAK Guiardi buruz egindakoa (Bilbo, 1984). Eta batez ere, ez dugu ahaztu behar Euskal Eskultur Eskolari, edo hobeto esanda, bere adierazgarri puntakoenak diren Oteiza eta Txillidari, eskaini zaizkien idatzi ugariak, idatziak, bestalde, gehienetan polemikoak gertatu direnak herrialde honetan ezinezkoa baita zerbait edo norbait baloratzea besteak gutxietsi gabe.

Kontuak kontu, eta egungo egunean Euskal Herriko produktio artistikoari buruz dakiguna asko bada ere, erakusketetako katalogoetara eta egunkarietako albisteetara jotzea —azken hauek, batzuetan, aldekoikerian erori arren— ezinbestekoa egiten da oraindik. Baina horrek hemen azaldutakoaren mugak gainditzen ditu.





ARTEA  
ZIENTZIA  
KULTURA  
GIZARTEA  
LITERATURA  
IKUSKIZUNAK  
SOZIOLINGUISTIKA

## ARTEA

---

JOXEAN MUÑOZ

### ARTISTAREN LORATEGIA

Itsasoaren aurrean, omenaldia egin berri dio Txillidak Rafael Ruiz Balerdiri. Betirako geratuko dira burdin besarkatuak Donostiako badiaren txoko honetan. Kresalari, haizerauntsiari eta denboraren harramazkari aurre egingo diote, elkarrengana loturik. Horretarako, artistak lekua aurrez moldatu behar izan du, landare eder bat aldatu behar duenaren arretarekin. Eta burdinak etxean eduki ditu, hiri zabalean txertatu baino lehen, agerian baina babesturik, bere lorategian, herdoilak apur bat jan ditzan, egokitzen joan daitezzen.

Izan ere, ageriko eskulturak arrisku bereziak ditu eta ez bakarrik fisikoak. Hondatzeko, herdoiltzeko, zikintzeko eta

puskatuak izateko arriskua baino larriagoa da lekuarekin eta lekuaren erabiltzaile arruntarekin harremanetan sartu beharra. Gure bizitza arruntaren erdi-erdian kokatu nahi eta, galaria eta museotako kutxa itxiak utzi izanaren arriskuak dira. Hiria axolagabetasunari, denboraren zurrumbilo aldakorri iraun beharko dio ageriko eskulturak. Lekuarekin bat bilakatzea, «lekuko» bihurtzea, ez da beti gertatzen eta ez dago zertan nahitaezkoa kontsideratu. Aprobak egin behar izaten dira, bizitzan bezalaxe.

Ulertzekoa da artistak, Txillidak kasu honetan, beldurrez zaindu nahi izatea artearen eta bizitzaren topagune hauskor hori. Lekurik ederrena edertzeko gai dela erakutsi digu, baina baita ere bere eskulturak elkarrekin nahi dituela, bereiz, bakan, lorategi bat egin nahi duela hirian, **bere** lorategia. Etxeko leihotik ikusi eta erakusteko modukoa. Izan ere, egunkarian Ruiz Balerdiren oroigarria inauguratzen zelako albistearekin batera, «Txillida ibilbidea» itxita geratu zela esaten zitzaigun. Hondartzaren ertzean, itsasoaren aurrez aurre. Lekuaren aukerak Txillidaren ukitua dauka, orriotan egindako omenaldi zorrotz eta eder batean Ramon Saizarbitoriak kontaktu zigunez, barandilatik hondar gainera salto egiten zuen gaztearena, Ruiz Balerdirena baino gehiago, Rafael alegia, «Ez Sanzio».□

#### «LEKU EMAN, LEKU EMON»

Leku xumeagoa espero nuen, bortitzagoa, lorategiak baino leku basagoa merezi zuelakoan paper zakarretan klarionaz pintatzen zuenak, auzoetako eskoletan edertasunaren alde konspiratzen zuenak. Zer egingo dut bada, «Besarkada» horretan, maitasuna baino gehiago angustia ikusten badut, besarkadak itotzen duen izaki bat, besarkadaren itolarri izugarria. Iritziak dira, sentipenak, susmoak. Agian, eskulturaren egi-leak arrazoi izango du eta iritzia aldaraziko dit bertara gehiagotan joandakoan, obrarekin maizago egondakoan. Badakit ageriko eskulturari, harreman guztiei bezala, denbora eman behar zaiola, leku eman behar zaiola amore emateko prest

dagoenaren leialtasunaz. «Leku eman, leku emon» erakusten digu Azkuek hiztegia: «dar consentimiento».

Aukera eder bat galtzen ari garelako beldurra ordea ezin kendu dut burutik. Haize Orrazearekin Kontxako badian egin-dako lan zoragarriaren ondoren, besteak haren osagarri, haren hornidura ote diren. Leku ederrak ziren lehenago ere, ederregiak apika, apainegiak. Nik Txillidaren indar trinko horren premia, beste paraje, beste kontestu batzuetan ere sentitu izan dut, leku horiek ere erakuts diezaizkidan. Maisu bat delako, ikustarazi egiten duena. Baina artistaren lanen esperoan egoteak ez dauka zerikusirik lur-sailik onenak eskaini beharrezekin. Garestienak esan nahi dut; pitxia pitxiaren truke. Lorategia ez den Donostian ere Txillidaren begia antzematuko aukera galdu ote dugun beldur naiz.

«Txillidaren ibilbidea» kontzeptuak ageriko erakustoki bat adierazten du, Txillida ikustera joateko leku edo ibilbide berezi bat. Halako egun batez itxi egin dena. Aparte, bakan. Honela erakargarriagoa izan badaiteke ere, nik kale gorrian nahiago nukeen Rafael Ruiz Balerdiren izena. Bizitzaren zurrumbiloan, lekuarekin borrokan. Bizirik.□

## TOPO EGIN

Agian, oraintsu jakinarazi duenez, Tolosako Udalak Oteitza, Basterretxea, Ugarte eta Santxotenaren eskulturak hirian kokatzen dituenean izango dugu berriro ageriko eskulturaz hitz egiteko aukera. Arriarango urtegia bisitatuko dugu, geldiro, lekuarekiko beste harreman-mota bat, lekua antzoki bihurtzen duen estetika baten adierazpide. Nestor Basterretxeak bere obra guztian zehar agertu duen arkitekturarekiko, diseinuarekiko, apainkuntzarako kezkek, urtegi bateko murrua gizakoiago, gizakumeon neurrikoago egiteko enkarguarekin egin du topo. Ageriko arteaz komunitatearen artea egiteko apustuan Basterretxeari zor diogun beste urrats bat.

Orduan izango dugu topo-egiteari buruz hitz egiteko beta. Bila joan eta zer aurki daitekeen Juan Luis Zabalak kontatu

zigun ederki Egunkarian. Eskulturari begira geratu ordez, Arriarango harrobi txiki batek erakarri zuen. Begira zegoelako; erne. Hori egiten dute eskulturek, begiratuarazi, lekua neurtu eta aztertu eta ibilarazi. Eskultura ez diren gauzak ere beste modu batera ikusten laguntzen dute; osasungarriak dira.□

## CONTAINER

Baina gure artean sonarik handiena lortu duten obrak, obra benetan publikoak, publikoarentzako eginak, horiek kutxak dira. Kutxa itxiak, etengabe zainduak, administrazioaren irudia eman behar dutenak. Hor, artea itxian bizi da, babesean, geldirik. Hala dirudi behintzat. Baina kutxa horiek, museo eta arte-areto handi horiek aspaldi egin ziren mugikor. Kontainerrak bezala eraman eta ekartzen dira, trukatu, alegia, saldu, erosi eta Bilbon, alokatu.

Koldo Mitxelena Kulturunea albiste da Gipuzkoan, orain artean ez genuelako artea behar bezala jasotzeko kontainerrik. Rekalde albiste da Bilbon, punta-puntako erakusketak antolatu eta ekartzeko gai delako. Orain arte ez genuen hain maila altuko harreman komertzialik izan. Hain zuzen, kontainerrak jasotzeko kaian ipiniko duten Guggenheim museoaren itzala emankorra dela frogatu nahi dutenen ikurra bihurtu da. Bilborako irudi berri baten ametsa omen dago atzean. Kultur produktuak jasotzeko portu bat, superportu bat nahi bada, baina airean dago gure kultura kutxatan antolatzearen arazoa. Gure politika kulturalaren arduradun nagusiak, bere bakardade izugarrian, gureak genituen kontainer txikiak, Bilboko eta Gasteizko museo bikainak, saihesturik, *shock*-a terapeutikotzat jo du eta kolpetik egin gaitu, gure diruarekin baina baimenik eskatu gabe, punta-puntako arte-enpresa baten harpidedun. Bejoindeigula.□

# ZIENTZIA

INAKI IRAZABALBEITIA (ZETIAZ-ELHUYAR)

## SUPEREROALEAK EPELTZE BIDEAN

1911n Heike Kamerling Onnes fisikari nederlandarrak supereroankortasuna aurkitu zuenez gero fisikari teorikoen interesa soilik pizten zuen bitxikeria zientifiko moduan egon zen fenomeno hori 1980.eko hamarkadaren erdialderarte. Supereroankortasuna zenbait konposatu kimikok agertzen duten portaera berezia da eta besteak beste bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, gorputz horrek korronte elektrikoa eroateari erresistentziarik ez dio egiten eta bestetik, substantzia imantatu baten gainean lebitatu egiten du (Meissner efektua).

Horrelako materialak dituen abantailak agerikoak dira: erresistentzia elektrikorik ez badu, korronte elektrikoa energi galerarik gabe urrutira garraia daiteke (bidenabar, guk elektrizitatearen mardainagirian potentzi galera hori ordaindu egiten dugu) edota korronte elektrikoa eroale itxi batean injektatuz nahi den denboraz gordetzea. Honek esaterako, hainbat energi iturri estazionalak (eguzkitiko energiak edo hidoelektrizitateak) une konkretu batean ekoiztutako energia elektrikoa behar denean erabiltzeko gordetzea ahalbidetuko luke. Meissner efektuak lebitaziozko trenak arrunt egingo lituzke, bestetik.

Alabaina material horiek arazo txiki bat dute: hotzean baino ez direla supereroale. 1986 arte tenperaturaren goi-muga 20 K (-253 °C) inguruan zegoen. Harrapa ezazu hori! Beraz, supereroaleak ez ziren goian aipatutako aplikazioetan erabilgarriak. Gainera, tenperatura-muga gainditzeko itxaropenik ez zegoen eta horrexegatik, bitxikeria zientifikoa baino ez ziren.

1986an IBMko Zurich-eko bi ikerlarik supereroaleen tenperaturaren goi-muga ikusgarri handiagotzen zuten material zeramiko supereroaleen familia berri bat aurkitu zuten (1987ko Nobel saria eskuratu zuten horren karian). Urtebeteren buruan

goi-muga 125 K inguruan zegoen, aplikazio teknologikoen ikuspegitik oso interesgarria zen tenperaturan hain zuzen. Izan ere, nitrogenoaren lurrintze-tenperatura (63 K) baino altuagoa da hori eta nitrogeno likidoaren bidezko hozte-teknika arrunta, eskuragarria eta merkea da. Zer esan nahi du horrek? Hainbat aplikazio praktikotan supere roaleak erabili egin daitezkeela. Hala ere, goi-muga hori aplikazioak arrunt eta ohizko bilaka ditzakeen puntutik, giro-tenperaturatik alegia, oso urrun zegoen.

Material berri horiek gainera beste arazo bat ere badute: oso hauskorak eta konformatzeko zailak dira. Horregatik esaterako, material horiez kableak egiteak arazo larriak ditu.

Supereroaleen mundua pil-pilean dago berriz ere. Alde bate-tik, Michel Laguës ikerlari frantsesak bere ikerketa-taldeak 250 K-tan (-23 °C-tan) supereroale den material bat prestatu dutela aldarrikatu dute. Tenperaturaren goi-muga gainditzea inportantea da noski, baina are garrantzitsuagoa zera da: ikerlari frantsesek tenperaturaren goi-muga igotzeko arazoa ez dagoela fisikak jartzen dituen mugetan, baizik eta material horiek prestatzeko moduan frogatzea. Bestetik, EEBBetako *American Superconductors* etxeak 77 K-tan supere roale den material zeramiko batekin metro bat luze kablea egin duela aldarrikatu du. Kable hau nitrogeno likidoz hoztu daiteke eta enpresaren bozeramailearen hitzetan «egun nitrogeno likidoa esnea baino merkeagoa da».

Metrobateko kablea motza da oraindik. Horren erabiltzaile diren konpainia elektrikoek kilometro bateko kable-zatiak nahi izaten dituzte lanerako. Alabaina, aurrerapauso garrantzitsua da orain arte zentimetro gutxiko kableaz ari ginela kontuan hartzen badugu. Temperatura horretan, 77 K-tan hain justu, lan egiten duten kableak lurrazpian erabil daitezke nitrogeno likidoz hozten badira eta gainera, kable horiek sekzio bereko kable arruntek baino bi bider energia elektriko gehiago garraiatuko lukete. Kobrezko lurrazpiko kable arruntak erresistentzia dela medio berotu egiten dira eta ondorioz, olioa pasaraziz hoztu egin behar izaten dira. Kalkulatu denez ekoiztutako energia elektrikoaren %10-12 inguru garraioan galtzen da. EEBBetan

bakarrik 13.000 km lurrazpiko kable dago eta konpainia elektrikoek milioika dolar galtzen dituzte bero-xahutze moduan.

Energi iraultza baten atarian ote gaude? Aipatu berri ditudan bi aldarrikapen horiek egiaztatzen badira, erlazio energetikoen aro berri baten atarian izango gara dudarik gabe. Izan ere, energiaren erabilpen orekatuagoa ekar dezakete, energi galerak txikiagoak izanik, energia gutxiago ekoiztu beharko bailitzateke energi eskaera berdinari erantzuna emateko. Eta horrek aldi berean, energia sortzeak dakarren poluzioa gutxiagotuko luke.

Esne-saltzailearen ipuina dirudi honek. Balizko ola da oraindik, baina beste tramankulu teknologiko itxuraz miresgarri batzuk, fusiozko energia nuklearra hain justu, baino gertuago dago nik uste.□

#### DENBORAREN AUTOPISTAK

H.G. Wells-ek *Denboraren Makina* idatzi eta gero, denboran zehar eginiko bidaiak hizpide eta idazpide izan dira zientzi fikzioan zein zeintzia huts eta gordinean. Zientzi fikziozko idazleek denboran zehar eginiko bidaien paradoxak azaltzen eta erakusten saiatu dira, batez ere antzinatean eginiko bidaiak etorkizunean eragindako ondorioez aritu direlarik.

Fisikariek ordea, denboran zehar bidaiatzea posible ote den izan dute azteragai. Fisikari gehienek denboran zehar eginiko bidaiak posible ote den oso dudagarri ikusten dute. Beste batzuek teorikoki ezinezkoa dela esaten dute, horien aintzidari Stephen Hawking ezaguna delarik. Antza, ideia horren defentsa egiteko Hawking-ek baliatzen zuen oinarrietako batek hutsuneak izan ditzake Haifako Teknologi Institutuko Amos Ori-ren esanetan.

Eztabaida honen historia luzea da, kulebroi baten modukoa. Azken kapitulua, 1980.eko hamarkadaren bukaeran gertatu zen. Kaliforniako Teknologi Institutuko Kip Thorne-k zera iradoki zuen: denboraren makina egiteak arazo praktiko asko izango



bazituen ere, fisikaren legeek, gaur ezagutzen ditugun neurrian bederen, ez zutela bidaia hori galerazten. Beste ikerlari batzuk Thome-ren argudioen ahuleziak bilatzen saiatu ziren eta Thome-ren ideiek «energia ahularen baldintza» betetzeko arazoak zituztela adierazi zuten. Baldintza horrek zera dio: behatzaile erreala batek energia negatiboak ez eta positiboak bakarrik neur ditzakeela. Baldintza honek denboraren makina teoriko batzuk baztertzeko ditu, esaterako energia negatiboko material exotikoak erabiliz irekita iraunarazitako zulo beltzak baliatzea.

Denboraren makinaren beste arazoetako bat singularitateak dira. Singularitateetan espazio-denbora mugagabeki makurtzen da eta bukaera batera iristen da, bertan fisikaren legeak betetzen ez direlarik. Erlatibitatearen teoria klasikoak puntu horiek auresaten baditu ere, horietan zer gertatuko den jakiterik ez dauka.

Amos Ori-k, Erlatibitatearen teoria klasikoa erabiliz, singularitaterik aurkitu gabe eta energia ahularen baldintzak betetzen dituzten denboran atzera egiten duten espazio-denboraren deskripzio matematikoak aurkitu ditu. Beraz denboran zehar eginiko bidaiak ezin dira egungo ezagutzaren karian baztertu bere iritzi.

Ez dakit denboran bidaiatzeaz egiten diren eztabaida teoriko hauek inoiz aplikazio praktikorik izango duten, baina maiz, izan dezaten desio dut. Izan ere, denboran atzera joanez herri honen historia aldatzeko tentaldiari muzin egitea neketsua da, jakinaren gainean egonik ere, aldaketa horrek presente hau posible egingo ez zuena, hain segurki edota akaso, nire eskuhartzeak eraginik ez zuela izango.□

## ZIENTZIA BIRUSA?

New Scientist zientzi astekari britainiarrak eguberrietan egin ohi duen ale berezien azkenekoan, *Infected with Science* (Zientziak Kutsatuta) izeneko artikulu interesgarria argitaratu zuen Mark Ridley antropologo eta biologoak.

Artikuluua oso interesgarria iruditu zait, besteak beste razio-naltasun eta erlijiozkotasunaren eztabaidan ikuspegi berri eta interesgarria plazaratzen duelako. Hori dela eta, artikulu horren pasarte batzuk hona ekartzea JAKINen irakurleari interesgarria gertatuko zaiola iruditzen zait.

Ridleyk kulturen eboluzioa aitzakitzat hartuta, erlijioa garunaren birus moduan definitu ote daitekeen aztertzen du. Bide-nabar, horrela definitzen du Richard Dawkins biologoak XX. mendeko pentsalari handi batzuen harian, Bertrand Russell-en bidetik besteak beste.

«Eboluzio kultural zein genetikoan interes profesionala daukagunontzat, erlijioa birus bat izatearen ideia beste arrazoi bategatik ere interesgarria zaigu: kultur parasitoen eta kulturako beste osagaien arteko bereizketa egitea posible dela onartzen duelako.

Organismo biologikoetan zehaztasun handiz bereiz daitezke eboluzio-aldaketa bat jasaten ari den populazioa eta parasitox kutsatuta dagoena. Alabaina, bereizketa zaila da, edo zentzugabea finean, kulturari gagozkiolarik.»

«Beraz, giza kulturen alorrean parasitismo eta eboluzio-aldaketaren arteko bereizketak azterketa sakonagoa behar du.... Kultura baten (edo zati baten) benetako helburua ezagutzen baduzu, parasitoak identifikatzea erraza da; baina kultura bere bidez zabaltzen ari diren ikur eta ideien arabera definitzen hasi bezain laster, parasitoak eta ostalariak itxuragabe nahasirik agertzen dira.»

«Giza garunaren ohizko gertaera bat eta kultur birus bat bereiztea zaila bada ere, ikerketa txiki bat egin daiteke. Atzera begira dezakegu esaterako, giza garunaren jatorriari begiratu eta zer egiteko eboluzionatu zuen lehenik galdetu.... Gure garun-zirkuituak natura eta gizarteari buruzko pentsamendu razional edo zientifikoa eroateko sortu ziren edota horiek erlijiozko pentsamenduekin mistifikatzeko?

Dударик ez egin gure arbasoek bizirik irauteko trebetasun razional batzuk behar zituztela, baina erantzuna zera behar du

izan: giza garunak organo razional moduan ez eta erlijiozko moduan eboluzionatu duela. Zientzia razionala gutxiengo baten interesekoa da bakarrik.... Erlijioa ordea, kultura unibertsala da eta seguruenik, egungo jendearen gehiengoaren garun-ari-ketarik ohizkoena.»

«Zergatik ez gara gu razionalago? Zergatik ez gara gu robo-tago? Pentsa ezazue duela gutxi gorabehera milioi bat urte Ekialdeko Afrikan bizi ziren gure arbasoez. Populazioan bi motako garuna zuten pertsonak zeuden: razionala mota batekoak eta erlijiozkoa bestekoak. Protogizakiei ez diet robot erantzun sinple eta malgutasunik gabekoak bakarrik eman zitza-ketelako esaten, baizik eta bere iharduera kontrol-sistema razional baten arabera bano ez zelako.

Logikoa denez, baldintza horietan hautespen naturalak roboten iraupena lagunduko luke. Razionaltasun zientifikoak sineskeria irrazionalak baino efikazia handiagoa du... Bizit-zeko borrokan, protogizaki razionalek arazoez gogoetak egingo zituzketen eta ondoriorik onena lortzeko eginahalak obratuko zituzketen.»

«Argudioa okerra da, okerra behar du izan, irabazle okerra aurreratu duelako. Gu garun erlijiosoen ondorengoak gara, ez ordea robotena. Zer gertatu da bada? Nik erantzun osoa ez dakit, baina akaso, darwinismoak aldarrikatutako bizirauteko borrokoaren arabera, erlijio-zaletasunak razionaltasuna ito du.»

«Suposa dezagun gure arbasoak jende razionala zirela. Beraiek objektibotasunez kalkulaten zuten zer-nolako aha-lerinak egin behar zituzten borroketan eta bestelako gatazke-tan eta auzolanean, talde barnean zein kanpoan. Joera erli-jiosoko mutanteak topatu arte ondo ibiliko ziren.

Erljiozale etorri berri horientzat lurraren balioa ez zen ema-ten zuenaren arabera bakarrik, esanahia zuen beraien-tzat: bere jaungoikoen etxea zen eta sinesgabeek ezin zuten bertan egon. Borroketan arrisku irrazionalak hartzen zituz-ten, beren jaungoikoen bataila ostean zainduko zituztelako eta hilez gero sarituko zituztelako. Horietako batzuek gainera

etsaiak esterminatuko zituzten, batere razionala ez dena bide-nabar, batez ere beren jaungoikoak Itun Zaharreko jaungoiko odolzale armantzekoak baziren, jeinu txar genozida baten jabe zena eta datuei jaramon egin behar badiegu, historiako masa-hiltzailerik handiena izan zena. Horrela erlijiozaleek razionaltasuna ito zezaketen.»

«Razionaltasunaren abantaila nabarmena gure espezieki-deek beren garuna erabili nahiago duten moduarekin kontr-esanean dagoela dirudi. Eta nahiz eta ezein izan hautespen naturalak robot razionalak ez laguntzeko arrazoaia, erlijioaren itxurazko lehentasunak gure garunen eboluzio-helburuarekiko duda gutxi jartzen ditu. Eboluzioaren ikuspegitik, kultur birusik bada, hori zientzia da.» □

#### NORA DOA IKERKETA?

Aurreko batean Jose Maria Asua Donostiako Kimika-Fakultateko ikerlari saritu berriari egin nion elkarrizketan beste batzuen artean bi gauza interesgarri esan zizkidan: Euskal Herrian egiten den ikerketak Europan ibiltzeko lotsarik ez duela alde batetik eta euskal ikerketa Europan lehen mailan ibiltzea nahi badugu, industrian doktoreak sartu behar direla lanera, bestetik. Bigarren puntu hori nola burutu zitekeen ez zekiela aitortu zidan.

Bestetik, Jose Mari Rodriguez Ibabe Donostiako CEIT ikerketa-zentrotako ikerlariak material zeramikoei buruzko ikerketa egiteko egun dirurik ez dagoela aipatu zidan. Bidenabar, ikerketa-lerrohorrek azken urteotan finantzazio publiko oparoa jaso du. Zergatik? galdetu nionean erantzuna erabat argigarria izan zen: «erakunde publikoek material horien ikerketa finantzazeari utzi egin diote eta material horiekin lan egiten duen enpresarik ez dago Espainian».

Gogoetarako bi puntu jartzera bultzatzen naute bi datuok. Nork erabakitzen du zer ikerketa finantzatu eta zer irizpideren arabera? Unibertitate eta ikerketa-zentroetan ikerketaren

sakontasuna eta kalitatea gorantz doan une honetan, nola transferitu joera hori industriara?

Azken finean, euskal ekonomiaren indartzeak bide horretatik etorri beharko du.□

## KULTURA

---

*HASIER ETXEBERRIA*

JOAN GABETAN NATOR. TORREALDAIREN ERRUA

Munduan ez dago agur esan eta joan gabe geratzea baino gauza itsusiagorik. Halako zerbait gertatu zait neuri. Jakin-en azken alean adio esan irakurleari, eta hemen naiz berriro blagan. Neure mesedetan esan dezadan, hala ere, Torrealdaik daukala errua eta ez beste inork. Inongo irakurlek ez didala pelmadarekin jarraitzeko eskatu, baina zuzendari hau, antza, ez da sekula asebetetzen gure kontuekin.

Merkeak izango gara agian, edo bestela itsuen lurraldeko begibakar bakanak. Gainontzean ez dago ulertzerik.

Izanak izan, hemen gara berriro eta barkaidazue aurreko hartan alferrik esandako agur haren ordetan, oraingo kaixo hau jartzeko eskatzen badizuet.□

URIBEETXEBARRIAREN ERRUA

Anje Duhalderi egin diotenak ez dauka izenik. Kulturaren izenean eta kultura zuzpertzegatik bere sosa ateratzen duen Tomas Uribeetxebarria jaunak, Herriz Herri zirkuitutik kendu egin du faszista kutsua duen erabaki bat indarrean ezarriz.

Eta ni behintzat, harritu egin naiz. Akaso injenuitatez jositakoa naizela esango du baten batek, baina egia esan behar

badut, zintzoen eta zuzenen erreinuan sartuta neukan Bizkaiko Kultur Diputatua.

Errealitateak, ordea, bere neurria ezartzen du beti eta hemen ere ezarri du berea: lantzi eta Kalparsororen heriotzak zirela eta, bat egin nahi izan zuen Anje Duhaldekin samin hartan, kantaldi bateko bi abesti opatuz. Akabo, kitto. Nahiko arrazoi izan zen oroitzapen hura, kantariari lana kentzeko.

Beste behin ere gehiegikeriaren hatzaparretan gabiltza. Nahastu egin ditu Uribeetxebarriak zerbitzu publikoak eta norberaren gela. Ez da gauza bera kultur azpiegitura publiko bat eta E.A.J.ren edozein batzoki.

Seguruenik gainera, txaloak joko zizkioten auzoan, Duhalde delako *frantses* hori ere, terroristen ezpal berekoa dela susmatuz. Zenbat terrorista gaude hemen, ordea? Denok al gara ETAKoak? Euskal idazleak, euskal artista plastikoak, euskal zinegileak, euskal kazetariak... denak terroristak? Ez da txan-txa, alajaina!

Zer nahi dute, baina? Nor dute beraiekin? Ez al dira ohar-tuko sekula, aukera ezin hobea alferrik galtzen ari direla? Nola liteke kultur eragile gehienak, guztiak ez badira, kontra edukita herririk egitea? Noiz arte erokeria honetan?

*Indarkeriaren kontra nago* esan behar al da norberaren lanaren balioa erreklamatzeko? Hala bada, bedi: indarkeriaren kontra nago. Uribeetxebarriaren indarkeriaren, partzialkeriaren eta gehiegikeriaren kontra nago, gainerantzeko indarkerien aurka nagoen neurri berberean. Ala indarkeriak ere *labela* behar du arbuatua izan dadin?

Badirudi PNVkoen lorategian bizi behar dugula denok isilik, diskrepantziarik gabe, ametsik gabe, iritzirik gabe eta batzokietako txorizo egosiaren koipeak gure kaikueta laga duen arrastoa, Txinbo jaboiaz garbitzen.

Nahastu egin zara Tomas, eta zuk nahi ala nahi ez, Adierazpen-Askatasunari txiza egin diozu, burutik behera. Beste batzuk ere izango dituzu, ez dut dudarik, baina hau ere sartu zeure merituen artean. □

## GALERISTEN ERRUA

Galeristak ez dira aspaldian isiltzen. Arco dela eta ez dela, hamaikatxo gorabehera izan dira, artearen merkatua aitzaki dela.

Euskal Galeristen Elkarteak, behingoagatik elkartuta jokatu du azken edizioan. Aspaldi erakutsitako izpiritu ausartenari eutsiz, artista bana aurkeztu dute Madrilen, proposamen bana, honek euki ditzakeen arrisku komertzialak aintzakotzat hartu gabe.

Ez dira garai bikainak galeristentzat. Bonito Oliva, Veneziako biurterokoaren zuzendari ospetsuak adierazi berri duenez, arte-galeriak hilda daude jada. Beraien lekuan artelan eta proposamen berriak erosten dituzten museo agresiboak gainditu dira. Artista gazteak aurkitu eta museo periferiko txikiagoen bitartez ezagutzera ematen dituztenak, Guggenheim kasu.

Eta Guggenheim aipatu dudanez, esan dezadan lotsatze-koa izan dela Durana eta Jose Luis Merinoren artean gertatutakoa. Merinok, bere kabuz atera zuen Guggenheimgo maisulanak ikusteko gida bat. Duranak eta Rekaldekoek, erretiratu egin zituzten, ordea, Merinok argitaratutakoak. Arrazoia, antza, senitartekoa ez izatea eta aspaldidaniko arantzak presente egotea. Bestela ezin uler liteke, Merinok egindako lan ederra banatzen ez uztea. Azkenean, Guggenheim kontsortziokoek hartu behar izan zuten epaia eta Merinoren lana banatzen laga zuten. Batzuek, antza, kultura eskusiban nahi dute beraientzat, hala dirudi Durana eta Barañanoren kasuan: lehenik beraiena Rekalde argitaratu eta ondoren El Correo Español-i saldu, gainera beste inoren parte hartzea debekatuz. Montaje polita Bilbo aldean dutena.

Madrila etorritako beste bat, Leo Castelli ifarramerikarra izan zen, Arco-k omendu nahi izan zuen mundu guztian den galeristarik famatuena. Pollock, Jasper Jones, Warhol eta hala-koen aitapontekoa den Castellik, Miquel Barceló du orain maite, eta berari zor zaio neurri handi batean mallorkarrak aspaldion duen kotizazio aparta.

Castellik, ordea, gure artistetako bati ere mesede ederra egin dio. Cristina Iglesias donostiarrari hain zuzen ere. Cristinak Venezian erakutsitako lana zoragarria zela esan du Castellik, eta horrek, automatikoki biderkatzen du Cristinaren lan bakoitzaren salneurria. Ez zitzaion batere gaizki etorriko, Txillida eta gero atzerrian entzute gehien daukan gure artista honi.□

#### MODAREN ERRUA

Atxaga bera ere harrিতuta dago azken nobelaz gertatzen ari denarekin. Egun gutxi batzuetan hamar mila ale saldu ditu dagoeneko Pamielak eta lasai esan liteke, halako bakardade publikorik ez duela sekula ezagutu euskal literaturak.

Alde batetik poztu egiten du horrek, baina bestetik merkatuari eta, azken finean, irakurle goari buruzko gogoetara eramaten gaitu. Publizitatea, moda eta snobkeria gure artean ezarrita daudenetik, esan dezagun jada, kultura normaldu bat dela gurea. Auzoko kulturek dituzten ajeak behintzat badi-tuela berarekin.

Bern ardo Atxagari bat baino gehiago etorri zitzaion, argitaratu eta biharamonera, Gizona Bere Bakardadean irakurri berri zuela esanez. «Noiz irakurri duzu, ordea?» galdetzen zien Bernardok harriturik. «Bost ordutako takada batean» erantzun zioten fan sutsuek.

Bemardok errepasoa egiten zuen orduan eta bere bizitza guztian nobela bat hain azkar irakurri gabekoa zela konturatu zen. Nobelek beraien tempo propiala behar dutela irakurriak izan daitezen, egunak eta asteak behar dituzte mesanotxean, ardoa bezala ontzeko.

Irakurtzeko gainontzeko erak modaren erruak dira.□



## GIZARTEA

---

*ELIXABETE GARMENDIA*

Tankera europarra hartu zuten kaleek, jendea zesuma, ohizko bildulekurik, hau da, tabernarik gabe, egun osoa paseatzeko, ikusmiran egoteko, ertzean harrapatutakoarekin hitzaspertua egiteko... Baita «Ostiral Santu itxura» ere, lagun batek esaten zidan bezala: Urtarrilaren 27a zen, azkenaldiko modari jarraituz U-27 bezala pasako dena historiara.

Ohizko zifra-dantzaren arabera ez zen galtzailerik egon. Begi hotzez so eginez gero huelga, orokorra eta erabatekoa izen zen, gure inguru honetan behintzat. Lanuzteko deia egin eta jarraitu zutenen poza justifikatua dago beraz, eta ez nizkioke inori ozpindu nahi horrelako ekintza baten partaide izateak berekin dakartzan sentipenak: elkartasuna, duintasuna, askoren artean egindako indarrarena... Baina zifren eta itxuren azpian arakaturaz gero, huelgaren erabatekotasunari zuloak ageri zaizkio. Eta ez naiz ari, hain zuzen ere, pertsiana itxien atzean ihardun zuten bulego eta banketxetako langileez, edota noiznahi eta nonahi otzantasuna bertutetzat daukatenez. Opor egin genuenon konbentzimendu-graduaz ari naiz.

Lehenengo eta behin, horrelako huelga bat sindikatuei ematen zaien txeke zuria da, eta berorren errentagarriasuna ez da berehalakoa, ez neurtzen samurra ere. Hortik inguruan inoiz baino gehiago entzundako galdera eszeptikoa: zer lortuko dugu bada? Bitartekoa besterik ez dena, huelga, helburu eta helmuga bihurtzen baita honela, eta beraz kuestionagarria baldin bada bitarteko gisa, zer esanik ez helburu huts bezala, nahiz eta baten batzuk Gobernuari zaplaztada ematearekin konformatuko diren.

Sindikatuetikiko konfiantza zenbaterainokoa den jakin beharko litzateke, batez ere belaunaldi gazteenetan, langile gisa baino langabe bezala hobeto definitzen diren horietan. Formari dagokionez ere balegoke zer esanik. Ezin zalantzan

jarri zenbait tokitan piketeak mesedegarri eta ongiatorri izango direla, baina jendea lanetik burumakur eta gogoz kontra ateratzeak ez al du, nola esan, usain zaharkitua? Berdin sindikatuen diskurtso eta panfletok. Ez dut esaten coca-colaren iragarkiak egiten dituen publizitate-agentziaren eskutan jarri behar dutenik, baina komunikazioa arte eta teknika bilakatu den honetan, balegoke zer ikasirik mezuak jendearengana helarazteko. Gainera kontua ez baita buzodunarengana edota besteren kontura lan egiten duenarengana soilik iristea, hau da, ohizko klienteengana, gizatalderik zabalenera baizik, eta hori Eibarko langile grebalarrien koplak, beren ederrean, arkeologiaren apaletara paseak diren garaietan. □

#### OBJEKZIOAREN ASTINDUA

Nik ez dakit nola lortu duten beste hauek, kontzientzi eragozle eta intsumisioek, gizatalde hain zabaletara iristea. Kenketa eta zatiketari baino batuketa eta biderketari iaioago nonbait, azken hamarkadetakoa mugimendu zabal, batu eta aurrerakoiena daramate aurrera. Hauen mezua bai erne dela nonahi. Dagoeneko txistea ere egiterik ez dago: «Zer, semea soldaduska bidean honez gero?». «Ez, alaba da, baina mutikoa balitz ere, ez litzateke soldaduskara joango». Glup!

Kontzientzi eragozpen eta intsumisioaren fenomeno honek astindu bat eman digu «ilusio iraultzaileak» izan genituen belau-naldikooi. Aitarena edo anai nagusiarena eginez, nola ez ditugu ba babestuko eta epailearen aurrean beren alde deklaratu. Gero, adierazpen horrek konpromezu handiagoa dakarrenean, gauzak konplikatu egin daitezke. Hori aitortzen zidan lagun batek, buelta bat eta bi eman dizkiola buruari, hasitako bideari, datorrena datorrela, kontsentimendua eman aurretik.

Kontua da Hegoaldean dagoeneko gazteen erdiak baino gehiagok egiten diola uko soldaduskari. Horren atzetik Catalunya datorrenez, sentipen abertzaleei egozten hasiak dira Armada zerbitzearen ezetza. Bejondeiela, zerbaitek ez die koardratzen abertzaletasuna joera atzerakoienekin lotu nahi izaten dutenei.

Mugidari neurria hartzeko, datu esanguratsu bat: jadanik, Justiziaren aurretik pasa behar duten guztiak zorduntzat jo eta gartzeleratuko balituzte, zortzirehundik gora lirateke Hegoaldean, ETA rekin zerikusia izateagatik itzalean daudenak baino talde handiagoa noski.

Gauzak honela, Armadaren egungo modeloa bera ere kolokan omen dago, behar adina «carne de cañón» izango ez duelako hiru urteko epean. Badirudi beraz orain arte pilatu den indar guzti hori, gizartean sortu duen erantzun hori, ez direla alferrik galtzekoak. Soldaduskaren aurkako mugimendu honek beste pauso bat eman dezake agian: inguruan bildu duen gizataldea Defentsako gastuekiko objekzio fiskalaren bidean jartzea. Hori bai astindua.□

#### GURASO ZAHARREN SINDROMEA

«Azainak» kontatzea kirol unibertsal eta hilezkorra izanik, urte batzuk barru soldadu garaikoak ez baino soldaduskaren kontrako mugidakoak irentsi beharko dituzte haur eta gazte-txoek. «Azainak» kontatzea adinaren fruitu da, zahar daren ezaugarri, «zahar» hori litekeen erlatibotasun guztiaz hartuta. Erlatibotasun eta guzti, guraso berantiarren ugaltzea dela eta, hamar, hamabost, hogeitau urte barru, gero eta gehiago izango dira aitamak oso helduak izango dituzten seme-alabak. Guraso adinean aurreratua, garaiz jubilatuak eta hutsaren hurrengo pentsioekin, ekonomiaren arduradunak iragartzen ari zaizkigunez. Horixe koadroa.

Orain arte problematikotzat jo izan bada guraso zaharrak izatea, edonork inoiz bota izan badugu esplikazio errukior gisa, «jakina, guraso zaharrak ditu eta», hemendik aurrera ez bati eta ez biri buruz, askorengatik esan ahal izango da hori, guraso zaharren sindromea izango dugu hizpide.

Zalantzarik ez derrigorrean eta garaizegi, behar bezalako konbentzimendu eta prestaketarik gabe guraso, eta sarri askotan ama bakarti, gertatzen direnen aldean abantaila dutela helduaroan, konzientzia osoz eta gogo biziz aita-ama izatera iris-

ten direnek. Baina oztopo eta ezinak ere hor daude. Hirurogei-hirurgeta bost urterekin, indarrak ahultzen eta atsedena irriki, kemena behar da gero familia bat zuzentzeko, areago baldintzak errazak ez izanik.

Hamar-hogei urte barrurako erronka da, astia badago baina abisatuta gaude, nola eta belaunaldi oso bat umezurtz utzi nahi ez dugun.□

## LITERATURA

---

XABIER MENDIGUREN

### ATXAGA GURE ARTEAN

Urte berriak, otsailaren 22 honetan, ez digu oraindik berri handirik eskaini eta urte zaharrekoek, berriz, badute zer komentatua ugari. Eguberri bezpera-bezperan kaleratu zen *Gizona bere bakardadean*, Bernardo Atxagaren azken liburua, urteko —eta urte batzuetako— argitalpen garrantzizkoena, itxura guztien arabera. Erakusgarri moduan, hara zer kontatzen zidan egun horiexetan eskutitza bidali zidan adiskide idazle batek:

«... eta etzi berriz Gabona. Alai eta kontent egoteko garaia, omen, nahiz eta zertaz poztu behar dugun fedegabeok oraindik ez dakigun. Ah, bai, bazekiat zertaz poztu behar dugun. Bernardok nobela berri bat kaleratu dik. Albiste ederragorik. Zeren ez omen den nolanhiko nobela ere: hiri eta denbora jakinetan kokatua, giro urbanoaren islada, eta arazo «modernoen» inguruko hausnarketan gainean eraikia. Apurtxo bat pentsatu ezker, euskal letretako bidetxiorretan barrena ibiltzen edo estropezukatzen garenok ez gaudek hain gaizki ere: badiagu eredu bat, gida bat. Jerusaleme zaharra *Beacon Unto The Nations* izateko sortu zen bezala, Atxaga *Beacon Unto The Per* -

*plexed Basque Writers* izateko sortua zirudik. Hura gabe zenbat pobreago ez ginbateke izango, zenbat umezurtzago.»

Gehiago ere luzatu zen nire adiskide hori, eta sinetsi hare n hitzetan ez dagoela ironia apurrik ere: Bernardorekiko errespētu guztizko eta maitasun gartsu baten adierazgarri dira. Atxaga behin baino gehiagotan agertu izan da kexuka, bere herrian behar adinako estimaziorik ez zaiola egiten eta minbera; arrazoi du, noski, hemen inork ez du jasotzen berak maitatuaren ehuneko hamar edo hamabosteko maitasunik; behar bada gure izateko era zomorroa ere izan liteke, kanpo alde horretan festa gehiago egitea gure mutilari, guk geuk baino. Baina ziur egon liteke Bernard Atxaga, Joxe Irazu, beste ezein idazlek ez duela jaso, ez jasotzen, berak adinako mirespen eta xerarik euskal irakurleen aldetik. Irrikaz itxaroten dugu liburu berri bat noiz aterako duen, eta ateratakoan gose eta egarriz i rensten. Sasi-ilustratuok bildu ohi garen bakoitzean horixe izaten dugu hizpide, eta horretan guztian esnobismo puxka bat ere badagoen arren, ukatu ezinezkoa da benetako interesa ere.

Irakurri osteko erantzuna ez da beti bat eta bera izan. Liburuak irakurle-jendea gogobetetzen duenean, zaparradan datoz aipu, iruzkin eta gorazarreak; horixe gertatu zen *Obabakoak* ospetsuarenkin. Asetzen ez badu ordea —eta irakurleak beti du horretarako eskubidea, nornahi delarik ere idazlea—, isiltasuna aukeratu ohi du, herabeak dira komentarioak, egilea mintzeko beldurrez; halako zerbait suertatu zen *Behi euskaldun baten memoriak* kaleratu zenean, eta ez akatsik zuelako, jendeak beste zerbait espero zuelako baizik, gehixeago.

Orain, berriz, atera da *Gizona bere bakardadean*, egilearen lehenengo eleberria *stricto sensu*. Oraingo euskaraz bakarrik irakur liteke; aldizkari hau zuen eskuetara iristerako espainolez ere argitaratua izango dute, eta aurki munduko beste zenbait hizkuntzatara itzulia. Une honetan, halere, gure -geurea dugu —zentzu patrimonialista barkatzen baldin badigu— eta munduko zalapartatik urrun, intimitatearen patxadan dasta dezakegu. Eta zer dio euskal irakurleak? Gorai pamenak ala isiltasuna, zein nagusitu da? Ba, txaloak nagusi diren

arren, badirudi ustekabeen harrapatu duela jendea, *off side* samar edo. Eta nire adiskidearen aburuz Atxagak argi-iturri eta gidari izan behar badu ere, esango nuke euskal idazleak *perplexed*-ago gelditu direla, gelditu garela. Dena dela, utz dezadan «jendeari hau eta beste» formula erraza eta konta dezadan neure esperientzia, eman dezadan neure iritzia.

Abenduaren 30ean erosi nuen, Donostiara propio horretarako etorrita. Gau horretan, afaldu ondoren, liburuarekin sartu nintzen ohean eta, eskuarki azkar loguretzen direnetakoa banaiz ere, goizeko bostak arte edo aritu nintzen, liburua utzi ezinik. Biharamunean, esnatutakoan hasi eta, sukalde-komunitako zeregin premiazkoen tartea alde batera utzita, minutu batean ere gelditu gabe aritu nintzen, arratsaldean atera behar izan nuen arte, hogeita hamarren bat orri falta zitzaizkidala eta amorrazioz. Afari eta afari osteko konpromezuak bukatu zirenean, etxera urte berriko ordu txikietan iritsi eta ez nuen eleberria bukatu arteko onik izan, lotara joan aurretik. Jakina, irakurle guztiak ez dira ni bezain irrikatsu eta artegak gustoko liburuekin, baina zin dagizuet ni ere oso gutxitan jardun naitzela horrelako antsietate eta ipurtestuarekin.

Zer du ba liburuak? Hasteko, hori: irakurlea bere sareetan harrapatzeko dohaina; ez deskuidoan edo txiripaz, baizik eta hala behar eta idazlea nahita saiatuta. Izan ere, esan dezadan behingoz, nobela hau intrigazkoa da, generokoa nolabait esan, eta intrigazko oso nobela ona. Gehientsuenok honezkeror, irakurrita edo bestela norbaitek kontatuta, jakingo dituzue nondik norako nagusiak. Hala ere, oraindik ezer ez dakitenezako bizpahiru zertzelada —sekreturik urratu gabe: lehen hamabost orrietan jakiten dena—: Bartzelona ondoko hotel batean, lagun-talde bat bertako jabe, noizbait kartzelan egonak eta amnistiatuak; horietako bati eskatu diote komando bateko bi kide ezkutatzeko astebetetz eta berak baietz esan, hoteleko gainerakoei ezer esan gabe; 82a da, futboleko mundu-txapelketa eta hotel horretan Poloniako selekzioa; ez hori bakarrik: poliziak ere ugari, eta txakurrak, zerbaiten usaina hartuta, hortxe dabilta, batetik bestera miaka, gero eta zirkulu estuagoetan. Bi komandokideak harrapatuko dituzte edo ez

dituzte harrapatuko? Galdera horren tentsioa igotzen-igotzen doa liburuaren 350 orrietan zehar, eta irakurlea urduri eta zintzilik. Suspentsea inor gutxik bezala darabil Atxagak, xehetasun guztiak elkarloturik daude, puzzle perfektoa da liburua irakurleak azkenean deskubritzen duenez. Patricia Highsmith-en maisutasuna etorri zait niri gogora, edo Jim Thompson-en indarra, kontudentzia. Dena dela, utzi ditzagun izenak: hau Atxagarena da, eta kitto.

Ez da suspentsea liburuaren osagai bakarra: badira beste-lakoak ere, hala nola hainbat gairi buruzko gogoetak: gizakia, gizartea, ideologiak, ametsak, horien denen porrota... Hala ere, esango nuke gogoetena ez dela funtsezkoa liburuan, ez behintzat funtsezkoena. Edo inpresio hori sortzen du haria hain ondo eta soka motzez eramateak. Eta horrek uste dut harrapatu gaituela denok ere apur bat ezustean. Atxagaren liburuetako sinbologia aberatsaren gaineko analisiak-eta egiten zituzten aztertzaileek lehen; orain ez dago ia halakorik. Metaliteratura eta intertestualitatearekin liluratuta zeuden zenbait irakasle; diskoa aldatu beharko dute orain langabezian geratu nahi ez badute. Gure izate eta ez-izatearen gaineko tratatu moduko bat espero zuenik ere bazen, eta jai du horrek ere. Hemen, literatura dago, fikziozko liburu bat, historia bat kontatzen duena, oso ondo kontatu ere, hizkuntza funtzionalez; funtzionalegia batzuentzat, baina nire ustez beharrezko dugu horrelako erregistro bat, hizkuntza *garden* bat (nahiz eta nire gustorako «oihutu» eta horrelako hitz apur batzuk zarata izan). Arazoa —ez gurea, egilearena baizik— zera da: literatura irauteko bokazioz egiten den testua izanik, iraungo ote du honek *Obabakoak*-ek iraungo duen bezainbat? Intriga eta tentsioaren dohain bikain hori nahikoa izango ote da denboraren herdoilari aurre egiteko? Hori, noski, geroak esan beharko du.

Orain urtebete JAKIN honetantxe kaleratu nuen lantxo batean, gure literaturaren eboluzioari buruzko hipotesi pare bat egin nuen, eta horietako batek zioen seguru asko errealismoa eta eleberria indartu egingo zirela. Igarlearena egiten nabilela ematen du, baina Atxaga izan da benetako igarlea. Orain hamar bat urte euskal errealitate gatazkatsua literaturan ez zela ager-

tzen eta horren inguruko eztabaida zebilen bor-bor. Oroimenak huts egiten ez badit, hauxe esan zuen Atxagak orduan: hurbilegi dauzkagu hainbat gauza, ziur naiz hamar urte barru Joxe Arregiren kasua hainbat nobelarentzako gaia izango dela. Gaia ez bada ere, Joxe Arregiren mamua ageri da liburu honetan, gure beste hainbat mamu, beldur, kezka eta zurrunbilorekin batean. Maila literarioan irakurri da gehienbat liburu gure artean, baina susmoa dut Espainian kaleratzen denean ez ote den politikara lerratuko eta mugatuko istorioaren interpretazioa. Hemengo lagun batek esan zidan bere ustez liburuaren amaiera paktuari egindako kontzesioa zela. Niri ez zait hala iruditzen: liburu osoarekin koherentea da bukaera, eta egileak zintzo agertzen du bere ikuspegia; nire lagun horren esanak esan, beldur naiz Espainia alde horretan ez ote zaien kontra irudituko, alegia, terroristekiko sentiberegia, *condescendiente* haien hitzez esateko. Hobe oker banengo.

Eta Holandan, Suedian, Italian, Polonian argitaratzen denean zer? Polonian auskalo, protagonismo berezia baitute hemen bertakoek, baina besteetan esango nuke ondo funtzionatuko duela liburuak, irudi-eskubideak ere erosiko dizkiotela egileari inoiz filmeren bat egiteko edo, baina kontsumoko literaturatzat hartzeko arriskua du hala ere, literaturaren kontsumoa berez txarra ez den arren.

Nolanahi ere, ni trilogiaren bigarren zatiaren zain nago, Carlos pertsonaia ezagutu eta maite dugun bezalaxe maitatu eta ezagutzera iritsiko garelakoan bere anaia Kropotkin eta honen gorabeherak. Dagoeneko luzetsita gaude. □



# IKUSKIZUNAK

---

BEGOÑA DEL TESO

AITAREN IZENEAN DIOTSUET....

Berlingoa da urtea hasi bezain pronto zinemarekin dugun lehengo zita ezinbestekoa. Berlinale du izena otsailaren hamabi egunez magiak, leiendak, atsekabeak ukitua den hirian barreiatzen den zeluloidezko topaketak.

Bitan banandua zen herrian jaioa izanik, Hesiak besarkatua, Hesiak itoa izanda, normala oso, ulergarria arras betidanik debekaturik zituen guneetara begirada zabaldu nahi izatea. Berlinalek harreman estua izan du hasiera-hasieratik Ekialdeko herriekin. Denen harrapakina izanik, ulerterraza da denen mespretxua jasan duten herrialdeen lagun mina suertatzea. Horratio, gaztelaniaz mintzo diren lan amerikarrak beti izan dute han harrera abegikorra.

Berlinek ez du, jakina, Cannesek propiotzat duen distira itzaliezina. Berlinek ez du, ez horixe, Veneziak harro erakusten duen ahulezia erromantikoa. Berlingoa bestelako kontua da. Berlinalek beste doinua darabil. Berlingo zinemaldiak begiak erne, belarriak tente egiten dio so inguruan duen egoerari. Ikusten duenak ez dio, baina, borrokan amore emateko gogorik sortarazten. Aldiz, aurrera jarraitzeko adina indarrez hornitzen du. Berlinalek zinemak, irudiak mundua aldatuko duela zinez sinesten du.

Idazten dudana ez da erretolika hutsa. Zeluloidezko froga izugarriak ditut oraindik fresko dauden oroipenetan. Berlinalek, kasu, atzerako pausorik ez du ematen Hiesaren aurka zinemak daraman gudan.. Dozenaka ziren mamu horren gainean aurkezturiko filmeak. Zientoka askapen sexualaren aldeko fotogrametako oihuak. Baina guztien gainetik bat ekarriko dugu hona. « Blue».

75 minutu besterik ez zuen irauten. Irudi bakarra agertzen zen pantailan, lautada urdin batena, alegia. Milaka ziren amodioak jota esandako hitzak. «Edward II» eta «Sebastiane» lanen sortzaile zenari sekulan huts egin ez zioten lagunek, Tilda Swintonek, Nigel Terryk, John Quentinek, hots, HIESaren musua jaso zenetiko izkribuak irakurtzen zituzten oinazeak beteriko ahotsaz. Derek Jarman Berlinale bukatu zen egun berean hil egin zitzaigun. Ikusmena kendu izan zion gaitzak baina iluntasun goibelean jakin, jakin izan zuen Berlinen bihotzean iraungo duela bizirik.

Emandako sarietan ere ikusten da argi Berlinek maitekiro erabiltzen dituela herriei aurrera jarraitzeko hainbat arrazoi, gogoeta eta beta ematen dieten zeluloide-puskak. Urreak estali zuen gure zinematokietan jaun eta jabe ibili den «En el nombre del padre» filme ausart eta inolako loturarik onartzen ez duena. Jim Sheridanek zuzendutako lan mardulak Guilfordeko laukotearen gurutz bidea azaltzen du eta Britainia Handiko Justiziari ematen dio zaplasteko hilgarria. Baina sako-nagoa da Irlandarekin konpromezu handia onartzen duen dokumentuak gudan sortzen duen dardara. Gizon baten bila-kaera jartzen digu begi aurrean. Aita eta semearen arteko harreman txit berezia aztertzen du zorrotz. Ez da harritzekoa pelikula honek herri irlandar osoa zinematokietan batu izana. Ezta eskuinaldeko britaniarrek erakutsitako gorroto amaigabea ere.

«Fresa y chocolate» irudizko ametsarekin gauza bera gertatu zen Berlinen. Zilarrak laztandu zuen Kubako Iraultzari hainbat gomendio, kritika eta aholku egiten dizkion kontakizun gazigozo hau. Aspalditik kamara lepoan harturik borrokan jardun duen Gutierrez Alea maisuak eta gazte makatz eta hezigaitza den Juan Carlos Taibok ez dute begirada pausatzen Miamin eta ez diete amerikanoei erreguka deitzen. Ez, beraiek La Habanan bizi nahi dute. Baina Lezama handia irakurriz. Baina nahi duten harreman sexual mota biziz. Baina maite duten edozein jainko ala deabruri otoitzean. La Habanan bai baina zuri gustatzen zaizun marrubizko jelatua janez. La Habanan bai, baina nik gustokoa dudan txokolatetzkoa dastatuz.

«En el nombre del padre» Irlandarentzat dena izan da Kubako jendearentzat «Fresa y chocolate». La Habanako Zinemaldian estreinatutako orduko, ahoz aho pasa zuten ikusleek abisua. Merkatu beltzean bilatu behar izan zituzten sarrerak eta ez prexiko prezio onean. Jan-gauzen truke lortzen ziren... Inoiz sinestu izan baduzu pelikula batek mundua alda dezakeenik, zaude piskat eta ikusiko duzu zenbat zor dion etorkizuneko Kubak lan eder, fresko, bikain, sekulako honi.

Guzti hori eta gehiago antzeman genuen inoiz baino biziago den hirian, inoiz baino borrokan irmoago dagoen zeluloide-ertz suabe eta arriskutsuetan. □

#### MANDATUA BETE ETA BUELTAN, MESPRESUA JASO

Denen estimuan dauden zuzendariak ditugu hainbestetan lerro hauetan aipua izan duten Juanma Bajo Ulloa, Julio Medem, Alex de la Iglesia eta Enrique Urbizu. Halere, badi-rudi jendearen onespesak muga bat ezarri duela «La madre muerta», «La ardilla roja», «Acción Mutante» lanen egileen eta «Todo por la pasta» sortu zuen Enriqueren artean. Julio, Juanma, Alex inkluso, benetakako «sortzailatzat» jotzeko joera bada. «Como ser infeliz y disfrutarlo», ekoizle handi baten enkarguz, kontu handiz, grazia bihurritz, gauzatu zuen bilbotarraren kasuan, aldiz, bestelako neurketa erabiltzen bide da. Iritzi honen arabera, Madrilen zinemaren diru-apurrak mugitzen dituztenen ongi etorria jaso duen larruzko txupa beltzez jantzirik gaztea «artisaua» baino ez litzateke izango. Ekoizte-teen menpe dabilen langile, *kurrela* abila. Okerrena zera da, mesprezu-pitin batez deitzen diotela *kurrantea*.

Neurbide ezatsegin hori darabiltenek jakin ez dakite, orain zine-maisutzat ditugun ia denek gaur egun maisu-lantzat ditugun zientoka filme enkarguz bete egin zituztenik. Raoul Walsh erromantikoko basa halaxe ibilia zen. «Casablanca»k ez zuen gidoirik eta egunez egun osatuz joan zen gaur mitoa den amodio-istorioa. Mandatuz sortzen zituen Oesteko mirari zeluloidezkoak John Fordek. Enkargua izan zen «Lo que el viento se llevó»...

Ildo edo xenda horretatik agertu eta gorpuztu ziren irudizko generoak. Zinema beltza. Komedia. Abenturazko pelikulak. Justu, beharbada, Europa, Espainia eta Euskal Herriko zinemagintzei falta zaiena, zinema-jeneroen kutizi artisaua. Barrea, negarra, beldurra eragiteko arau ez idatzitakoak izan badira. Baita ikuslegoa misterioan ala epopeietan amiltzeko ere. Beraz, burla gutxi Enriqueren inguruan, arren. Urratzen ari den bidea, beste zine-langileekin zapaltzen ari den bideskak urrezkoak ditu kantoiak. «Como ser infeliz y disfrutarlo»k banan banan betetzen ditu komediaren eskakizunak.. Horrela, honen esaneko baina horren ganberro ere egiten dakitenak gutxi dira. Bai European. Bai Espainian. Baita Euskal Herrian ere.□

#### ALEMANIAN MUTANTERIK NAHI EZ, ANTZA

Berlinen gertatu zen kontatzera natorkizuen pasadizo xebera. Berlinen Berlinaleren garai aske eta parekaezinean. Alemanian ikusiko diren filmeen kategoria moralaz aduratzen direnak Alex de la Iglesiasen «Acción mutante» barrabaskeriarren aurrean bildu ziren. Euren eskuetan dagoen zentsuramota ez da, inolaz ere gobernuak babestua, Parlamentuak bultzatua ala zinematokien jabeek ozen onartua. Baina, egia erdi gezurra izaki, taldekide horiek onartzen ez dituzten lanek zaila, ia ezinezkoa dute pantailetara ailegatzea. Hori horrela izanik, kostata ikusiko dute tedeskoek Bizkaiko semeak gezurrezko odolez, fantasiazko tiro-hotsez eta txatarra kilokaz egindako komiki mugikorra. Badakizue zer gertatu zen zentsore jaunei eskainitako emanaldi pribatuan? Pelikularen erdi aldean ikusle serio eta aspergarri horiek zeharo moskeatu ziren. Baten bat bomitoka hasi orduko, besteak zutitu eta «Gehiago ez dugu jasango» esanez, aretotik egin zuten ospa, hanka.

Triste izateko moduko berririk bai? Bai-ez-ba. «Acción mutante» ez da ikusiko Berlingo erdialdean baina txaloz eta «bravo»ka jasoko dute, seguruenik, Kreuzberg auzo erreboltarian sakabanaturiko dozenaka areto espezial eta mundialeatan. Eta hori da, berez, izatez, «Acción mutante»ren gordeleku, habi naturala. Bizi bedi han luzaro eta oparo.□

## EUSKAL HERRIKO ANTZERKI-BIRA

Teatro ibiltaria izango dugu epe motzean gure lurraldeetan. Izan, jada, bada. Denon ezagunak dira antzokiz antzoki antzerkia pasi oan daramaten *Herriz herri* bezalako kanpainak. Kantuz larri, lagunez urri, kritika onez eskas eta piura piskatxo bat hobetuz ari den «Kakatua berdea»rentzat indartu izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak aretoz osaturiko katea. Oraingoan Jaurlaritzarena da txanda. Kultura Sailak zirkuitu berri bati ekingo dio uda baino lehenago. Hiribururu, hiri, herri handi eta herrisketan barrena ibiliko dira bueltaka, birakateatroizugaitz horiek. Ibiliko dira hortik, dorpe samar baina estilo sendoa darabilten «Munstro sakratuak», Maskarada-koak, izan ere. Ekinaren ekinez, Euskal Herri osoari egingo diote buelta inoiz baino finago eta guapoago dabiltzan Markelikoek. Baita serio —serioegi, akaso?— diharduten Trapu Zaharra ganberro miragarri horiek. Edota «desNudos» izan arren, teatro-soineko mamitsuz ikuskizuna hornitzen duten Eolo konpainia zahar berri Durangokoek....

Antzerkia tipi-tapa. Izerditan, Euskal Herriko mendate guztiak igotzeko asmoz. Jendea non, teatre roak hara. Krisialdi luze eta ilun honen irteerarik ez omen da izango baina konpainia onean atsegina goa da tunel goibelaren erraietan sartzea.

Azpeitian egiten diren Euskadiko Antzerki Topaketek parte izango dute zirkuituan baina, aparte, urteetako nagia albo-ratu nahian, teatre roekin koproduzitzera joko dute eta ametsak amets, benetako topaleku eta inkluso «feria» bilakatu nahi dute aurten 12 urte beteko dituzten saio teatral hauek.□

TB, TT, TZ

Betiko leloaz dihardugu. Ohizko temari seko josita. *Tele Basura* du izena gatzeleraz. *Tele trash* diote ingelesez. Tele-zaborra esateko ez oztoporik, ez lotsarik, ez eragozpenik dugu guk. Baina ez pentsa kasua larriegia denik. Jendeak badaki, nola ez du ba jakingo, jatetxe bikainean noiz bazkaltzen duen

eta noiz «JanBurger» batean plastikozko haragia afaltzen. Berdintsu jokatzeko dugu telebistarekin. Behin eta berriro, morbo garratzak goxoki eraginda, «La máquina de la verdad» eta doña Nieves Herreroen mixeriak ikusten ditugu. Baina sekulan ez dugu esaten onak direnik. Ez, jakin, bai baitakigu gure baitako piztia goseti hura asetzeko zaborra besterik ez dela. Eta bera lotan denean, zinera goaz, edota Angel Casasena ikusi ala Simpsons maitatu horien segizioan hasten gara. Baina, segituan esnatzen zaigu berriro gure Mister Hyde katodikoa eta «Codigo uno»ko pusketa, ratio bat eskatzen digu. Eta atzera lotzen diogu gure burua zaborrari. Baina ezin esan Jekyll doktorearen errua ez denik.□

## SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

### HAS GAITEZEN KATALUNIAK

Oraingo honetan ere uste baino urrunago eta uste baino gertuago sentitu gara Kataluniatik. Hautsak harrotu egin dira eta zer pentsa ugari eman digute bertan zabaldutako auziek: katalaneraren legearen berrikuntza, Hizkuntz Normalizaziorako Plangintza Orokorra, Auzitegi Gorenak lege honen lau artikuluren inkonstituzionaltasunari buruz Auzitegi Konstituzionalaren aurrean egindako eskaera, etab.

1992. urtearen hasieran argitaratutako liburu banatan, Kataluniako Direcció General de Política Lingüística delakoan teknikari diren Josep M. Aymàk eta Isidor Marik katalaneraren Legearen eta hizkuntzaren normalizazio-prozesuaren balantze sakona egin zuten, beraien ustez dagoeneko akituta dagoen eredu gaurkotu eta aldatu beharra azpimarratuz.

Kezka horiek Legearen aldaketa-proiektuan eta Plangintza Orokorraren ildo nagusi berrien zehaztapenean gauzatu dira, neurri batean.

Duela hamar urte abiatutako bidaietan zehar geldiunea egin dute kataluniarrek eta atzera begiratu; ez ordea, nekaturik abiada mantsotzeko eta itzulbidea hartzeko, helmugara seguruago eta arinago nola heldu aztertzeko baizik.

Behar bada, hizkuntzaren normalizaziora iristeko agertu duten tinkotasun horrek beldurtu bide du norbait, eta Gómez Rovira abokatu ultraeskuindarra buru dela, dagoeneko «rovisismo» bezala ezagutzen den Lerrouxismo berri baten gisako mugimendua jarri dute martxan, gaztelania Katalunian baztertuta eta marjinalatuta dagoela adieraziz eta haurrek irakaskuntza ama-hizkuntzan (gaztelaniaz) jasotzeko duten eskubi-dea aldarrikatuz.

Aurretik ere, irakaskuntzaren inguruan edo ingurutik sortu izan dira katalaneraren aurkako kanpaina eta estrategiarik nagusienak. Crida mugimenduaren sorrera bera, «El Manifiesto de los 2.300» delakoak eragin zuen maila handi batean.

Ikastereduetan zentratutako auzi honetan erabat desorekatua izan da, CADECak (Gaztelaren Defentsarako Koordinadorak) azaldu duen indar sozial eskasa eta Estatuko komunikabideetan («Reality Show» bihurtzeraino) aurkitu duen onespena.

Ezer azpimarratzekotan ordea, Guitart kultura sailburuaren eta Reniù Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusiaren hitzak aipatuko nituzke, bi hizkuntz eredu egotea «apartheid»a sustatzea dela, alegia.

Gertu eta urruti, zerbait ari da mugitzen Katalunian.□

## JARRAI DEZAGUN GALIZIATIK

Soziolinguistika hitza entzun edo (gehiagotan) irakurtzen dugunean, inkontzienteki euskararen aldeko jarre rekin lotzen dugu.

Izan ere, Euskal Herrian, salbuespen arraroren bat alde batera utzita, soziolinguistikaz idatzi duten edo arduratu diren pertsonak, euskararen normalizazio-prozesuan konprometitutakoak izan baitira normalean.

Maizegi ahazten dugu ordea historian zehar eta mundu-mailan, benetan funtzionatu izan duen eta funtzionatzen duen soziolinguistika, hizkuntza menperatzaile edo glotofagikoena dela, Calveten irudi kanibalikoa erabiltzeagatik, nahiz eta ez duen liburu askorik ekoiztu. Garrantzi handia izan baitu, botere zentralisten politikari tresna teorikoak eskaini dizkion teoria soziolinguistikoak (Gregoirek, esate baterako).

Horregatik irakurtzen ditut, hizkuntza zapalduen aurkako politikari argudioak eta arrazoiak eskaintzen dizkieten teoriak.

Horien artean, azkenengoetakoa, duela gutxi eskuratu dut. Iazko urrian Manuel Jardón galziarrak idatzitako «La «normalización lingüística», una anomalía democrática: el caso gallego» liburua.

Defendatzen duen tesia, zaharra izanik ere, oso ongi egokitua dago gure egungo garaietara: Espainiako demokraziak gaur egun bizi duen aje nagusietariko bat, nazionalismo kolektibista totalitarioek defendatzen dituzten hizkuntz normalizazioen arazoa omen da eta ondorioz, gaztelaniaren suntsipenarena.

Hizkuntz normalizazioak pertsonen askatasunaren aurkakoak omen dira, eta pertsonen komunikazioa erraztu beharrean, pertsonen arteko mugak eraikitzen dituzte.

Horregatik, diskriminazio positiborik bultzatzekotan, gehien hitz egiten diren hizkuntzen alde bultzatu beharko lirateke.



Idea horiek errazago sozializa daitezzen gainera, kateximen erara, galde-erantzun sorta irakurri beharrekoa erantsi du liburuaren bukaeran.

Arreta bereziz irakurri dut liburua, laster hasiko garelako bertan formulatutako hainbat tesi eta ideia, zenbait komunikabidetan irakurtzen eta politikoren ahotan entzuten. Ez da kasualitatea, honako hau egin arte, liburu honi eskaini zaion aipamen bakarra, nik dakidanez, Diario Vascok eginikoa izatea.□

#### GATOZEN GURERA: NON DAGO NORMALKUNTZAINDIA?

Herrietako Euskara Taldeak eta Herri Komunikabideak izan genituen ospakizun eta eztabaidagai. Izan zen proposamen sonaturik bertan: Normalkuntzaindia. Eta ezer erakutsi baldin bazuen, euskaltzaleen artean, proposamen eta dinamika berrien behar larria zein puntutaraino dagoen barneratuta erakutsi zuen.

Pozik hartu genuen proposamena. Ohi ez bezala, orri asko idatzi eta polemika gutxi sortu zuen. Oso egingarria ikusten ez zutenek ere gutxienik onarpen baldintzatua eman zioten, aspaldi honetan despistatu xamar dabilen «zutabezale»ren batek izan ezik.

Baina hilabeteak joan, hilabeteak etorri, ez da mugimendurik somatzen, mugimenduz premia larrian dagoen gure herrietako euskalgintzan.

Elkarlanaz horrenbeste hitz egin den/dugun garai hone-tan badirudi guztiak elkarren beldur garelara eta inork ez duela lehen pausorik eman nahi, hutsean eman eta posizio txarrean geratzeko beldurrez.

Geroeta nabariagoak dira ordea, gaur egun jasaten dugun barreiakuntzarenemaitzak: euskararen aldeko mugimenduak elkarren arteko harremanik gabe dabilta lanean, Adminis-trazioak ez du interlokutore garbirik, herri-mugimenduan nahiz administrazioan estrategia kontrajarriak aurki daitezke....

Guzti hori gutxi balitz, lasaitasunean eta giro egokian buruturiko barne-hausnarketa sakona behar duen helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean, HABEko euskaltegien eta euskaltegi libreen aferak sortu zaizkigu, lehendik konpondu gabe genuen «Euskaldunon Egunkaria»renari erantsita. Arazo hauek, euskalgintzan eraikitzen ari den elkarlan-giro berri guzti honen oinarriak eta partaideak astindu egin dituzte, betiko dikotomia antzuetara itzulita.

Abertzaletasunak gaur egun bereziki bizi duen egoera nahasi, urratu eta birmoldatzailearen eraginpean gertatzen ari da gainera guzti hau.

Nik ez dakit beraz, Normalkuntzaindia edo zer izango den, baina euskara-taldeen eta orokorrean euskararen alde diharduten mugimendu sozial guztiek, harreman, komunikazio, eta uztarketa-bideak behar dituzte. □

#### ERDILDUNEN INKOMUNIKAZIOA

Azken bolada honetan buruturiko hainbat lan eta ikerketatan, garbi ikusi ahal izan dugu, Euskal Herriko erdaldunen artean, bizi diren zonalde soziolinguistikoa edozein delarik ere, beti dagoela multzo bat, zonaldeen arabera herenetik ia %100 izatera irits daitekeena, euskararekiko inkomunikazio osoan bizi dena.

Zonalde erdaldunduetan inkomunikazio hori ia erabatekoa da: egunean zehar gehienek ez dute euskararik entzuten inon, ez dute ETB1 ikusten edo ez dute euskarazko liburu edo diskarrik erosten, ezta seme-alabentzat ere. Familia horietako haurrek beraz, euskara eskolako asignatura huts bezala daukate.

Zonalde euskaldunagoetan, euskararekiko harremanik eza, hainbat faktore desberdinekin batera agertzen da: familia erdaldunak zonalde jakin batean biltzea, eta bestelako herritarrekin harreman gutxiago mantentzea; herriko jardueretan eta elkarreetan eskuhartze txikiagoa izatea (badirudi, eta bildu ditu-

gun datuek hala adierazten digute, B ereduko haurrek D eredukoek baino eskuhartze txikiagoa dutela herrietako eskolorduz kanpoko jarduek); familia erdaldun horietako askoren maila soziala nahikoa edo oso bajua izatea, eta beraz, kultur kontsumoa eta euskal kulturarekiko harremanak hutsaren hurrengoak izatea.

Famili mota hauetan jaiotako bigarren belaunaldiko etorkin gazte batengan, baldintza asko biltzen dira «negatibizazio»-prozesuan sar dadin, eta euskara berari ez dagokion zerbait dela pentsatzeko edo (auto)marjinazio-jarrerak sortzeko.

Gazte erdaldunekin hizkuntzari buruz hitz egiterakoan maiz suertatu zait beraien burua «vascos» bezala azaltzea eta gazte euskaldunena edo euskaldunena orokorki «vascos-vascos» bezala.

Horregatik, udalerrietan, sektore sozialetan, etab. trinkotze-p rozesuak bideratzea lehentasunezko lana bada ere, integrazio sozialari begira, bigarren belaunaldiko etorkin gazte horien positibizazioa bultzatzea ere lehentasun bihurtu behar dugu. Hain zuzen ere, gazte hauek, gure estrategia guztien arrakasta edo porrotaren termometro bihur daitezke eta. □

## HERRI-ALDIZKARIAK

Azken bost urteotan euskalgintzak ezagutu duen dinamika berriaren emaitzarik ezagunena, ezpairik gabe herri-aldizkariena da.

Fenomeno berria eta aberatsa, bestela euskara idatziarekin harreman txikia zuen hainbat jenderi, kontaktu hori erraztu diena.

Herrietako Euskara-Taldeek, Arrasate Presseko ereduari jarraiki, herrietan zegoen hutsunea betetzen jakin dute. Ondo jakin ere.

Sorrera-prozesua beraz, amaitutzat eman eta honezkero esan genezake herri-aldizkarien heldutasun eta garatze-pro-

zesuan sartu garela. Une egokia izan daiteke, Arrasateko bi jardunaldietan azaldutako hainbat ideia eta kezka garatzeko. Neure aldetik oso gertutik bizi izan ditudan gogoeta hauek azaldu nahi nituzke:

- Herri-aldizkarien funtzioa eta lekua ondo kokatu behar da euskal prentsaren testuinguruan eta herri-aldizkarien irakurleak bestelako euskal aldizkariak eta Egunkaria irakurtzen has daitezen (garbi dago hasieran gutxi izango direla) estrategia amankomunak prestatu beharko lirateke.
- Ez da zilegi beraz herri-aldizkariak eta euskal aldizkariak edo Egunkaria kontrajartzea. Funtzio desberdinak dituzte, eta funtzioetan osagarri izan behar dute (publizitate-bilketan hala ez izan arren).
- Herri-aldizkariak Euskara-Taldearen produktu izanik, elkar indartu beharko lukete: aldizkariak Taldearen filosofia gizartera dezake eta taldeari sinesgarritasuna eta «gizarte-ezagutza» eskaini, atek Euskara-Taldeek buru ditzaketen beste lanetan zabalduz. Euskara-Taldeak aldiz, oinarri soziala eskaini diezaioke, helburu soziolinguistikoak ipintzen lagundu eta hizkuntz normalizazioaren nondik norakoen berri eman, aldizkariaren bidez herriko ahalik eta sektore gehienetara iristeko.
- Aldizkaria eta Euskara-Taldea proiektu bera bailitz identifikatzeko, oso egokia izan daiteke, biek izen bera eramatea.
- Ondo aztertu behar da, Udalekiko menpekotasun ekonomikoak zein mailataraino muga ditzakeen proiektuaren bideragarritasuna batetik, eta aldizkariaren eta ondorioz Euskara-Taldearen beraren autonomia bestetik.

Bestalde, argitaratzen ari diren aldizkari gehienak ikusita, bi aldizkari-eredu ari direla sendotzen esan genezake. Beren ezaugarriak nagusienak honako hauek lirateke:

- Udalaren diru-laguntza handia, azpiegitura indartsua, astekari/hamabostekaria, orri gutxi eta edukiz arinagoa.

— Udalaren diru-laguntza gutxi, azpiegitura txikia, hilabete-tekaria, orri asko eta edukiz sakonagoa.

Oso interesgarria izango da, testuinguru soziolinguistiko eta baldintza soziopolitiko eta ekonomiko desberdinetan sortu diren eredu horiek, udalerrri desberdinetan eredu bakoitzak ze emaitza lortzen duen ikustea, eta zein den epe ertainera herritarren aldetik harrerarik hoberena hartuko duena.□

#### DATUEN LABERINTOAN BARNA

Azaldu dira 1991ko zentsuko datuak, eta datuek, ohi denez, polemika ekarri dute.

Nire ustez, polemika hau aberatsa gerta daiteke, polemika izateari utzi, eta hizkuntzaren normalizazio-prozesuan zertan asmatu dugun eta zertan huts egin dugun eta zein izan diren lorpenak edo porrotak eragin dituzten faktoreak hobeto eza-gutzeko eta ondorioz hartu beharreko neurriak hartzeko balio baldin badigu.

Datuek goranzko prozesu garbia adierazten digute Komunitate Autonomoan eta «inpassé» egoera edo galera-prozesuaren bukaera Nafarroan. Azken urteotako euskaldungoaren hazkunde-prozesua moteltzen ari dela ere adierazi digute.

Euskara dakitenen artean, gutxi dira etxean batere erabiltzen ez dutenak, gaztelania ere badarabiltenak herena baino gehiago diren arren.

19 urtetik beherakoen artean dagoeneko erdaldunak baino gehiago dira euskaldunak, nahiz eta 15-19 urte bitartekoen artean (OHO bukatu dutenak eta legez euskaraz jakin beharko luketenak) herenera ez iritsi euskaldunen kopurua (gehienak ia-euskaldunak dira).

Itxaropenarako bidea ematen dute datuek. Euskalgintzaren bidean argi-izpiak ikusteko arrazoiak badaude. Hainbat zutabe ordea, ahul somatzen da oraindik.

Horregatik, hausnarketa sakona eskatzen dute datuek. Faktoreasko pilatzen baitzaigu datuen interpretazioan eta komeni baita bakoitzak benetan jokatu duen papera eta izan duen pisua ezagutzea, aurrera begira finkatu beharreko hizkuntz plangintzak eta politikak oinarri sendoetan finkatzeko. Besteak beste aipa ditzagun: egoera sozio-politiko orokor eta partikularren eragina, biztanleriaren zahartzea eta jaiotza-tasa txikiak, irakaskuntza eta ikastereduak, helduen euskalduntze-alfabetatzearengoera eta emaitzak, udalerrri bakoitzeko dinamika, emigrazio-inmigrazioak, etab.□

# GUNEN GURPILEAN

---

JOXEAN MUÑOZ

UNTITLED  
URRUTI  
BILDUMAK  
ZENBAKIAK

INAKI IRAZABALBEITIA

EEBBen ZIENTZI AURREKONTUA  
INFORMAZIO-AUTOPISTAK  
OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA  
EUSKALDUNOK HIZPIDE

HASIER ETXEBERRIA

ATAUTS. TOLOSAKOEN AHALEGINA  
MIGUEL ANGEL IZAN ZEN LEHENA  
TXIMINOEN LEHENGUSUA

ELIXABETE GARMENDIA

ZINEAN HUNKIGARRIAGO  
EZ GARA HAIN ABERATSAK

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

UMEKERIAK UTZITA  
ELKARRIZKETA-LIBURUAK  
ELIZAZ KONTU GEHIAGO  
NOBEDADEEN ZAIN

BEGOÑA DEL TESO

SCHINDLER'S BELLE EPOQUE  
GORA ESPAINIA ERREPUBLIKANOA  
MAITE, MAITE, MAITIA...  
GAZTEAK ETA TELEBISIOA: ADISKIDETASUN SANOA  
TEATROA BUELTATUKO GARA INOIZ?

KIKE AMONARRIZ

HIZKUNTZEN HIERARKIA ETA TOUBON LEGEA  
HITZARMEN BATEN INGURUAN  
EUSKARA ETA EKONOMIA  
MUSIKAREN ERAGINA

# PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK EUSKARAZ

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

**A**zken hamarkada hauetan euskararen bateratze eta gartzetze gaiari heldu izan zaion bakoitzean, ia hutsik egin gabe aipatu izan da gure hizkuntzak bere burua gaitu beharra daukala beste edozeinek bezalaxe linguistikoki normalduriko gizarte batean dituen betekizun guztietarako. Ukaezina da zentzu horretan erakunde publiko eta pribatuek egin duten ahalegina, eta bide horretatik eman diren pausoen adierazgarri dira urtero gure artean argitaratzen diren ia mila titulu horiek.

Baina hori aitortu ondoren, oraindik esan beharra dago euskaldun askori izugarri zail, ia ezinezko gertatzen zaigula kultur bizitza asegarri bat izatea, horretarako behar adinako



oinegiturarik ez daukagulako. Gauzak horrela badaude, alde batetik, gure kultur produkzioa urria delako da, eta bestetik, Jaufre Rubel trobadorearen hitzak erabiliz, euskara oraindik «urrunekoarenostatu» (*Auberge du lointain*) eroso izatera iritsi ez delako, hau da, gure hizkuntzak mendebaldeko kultura honen oinarrian dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak zuzenean eta sistematikoki bereganatu ez dituelako

Gaur eguneko euskal gizarteak, Mendebaldeko kultur eremuan kokaturik dagoenak, erro greko-latindarretatik eta ondorengo mendeetan haietatik abiatuz gure egunotara arte izan duen aberaste filosofiko eta zientifikotik hartzen du bere bizi-iraina. Euskal kulturak, bere ahalbide apalen arabera, altxor horri noizean behin bere ekarpenak egin izan dizkionak, bere ingurunearekiko harreman jariakorrik lortzen ez badu, ez gaztelania eta frantsesaren bidez bakarrik, baita euskararen bitartez ere, ezin izango die etorkizuneko erronkei behar bezala erantzun, eta zimeldu eta ilauntzea beste irtenbiderik ez du izango datozen hamarkadetan.

## ERRONKA ETA NORABIDE BERRIAK

Euskal Herrian, eta euskararen normalkuntzari dagokionez eman diren urrats nagusien azterketa bat eginez gero, berehala nabarmentzen da aurrerapenik erabakiorrena irakaskuntzaren alorrean burutu dela, eta bertan aldiaren sortu diren eskariak erantzun egokia hartu izan dutela, nahiz eta irakasliburugintzan egin den ahalegin eskerga gorabehera, beti premia guztiak erabat asetzea oraindik lortu ez den.

Bestalde, parez pare eta era paradoxazko samarrean, eskari eta beharizan berriak pixkanaka gehituz joan dira, zeren eta euskara bitarteko dutela goimailako irakaskuntzara iristen diren belaunaldiak agerian jarri baitute irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean bibliografi oinegiturak daukan ahulezia eta asistematikotasuna. Kantitatez eta kalitatez egin den ahalegin nabaria gorabehera, urte luzeetan euskara eta euskaraz ikasten jardun ondoren, gure gazteak beren kultur heda-

bideak ia bertan behera uztera edo izugarri murriztera behar-turik aurkitu izan dira, gaztelaniazko edo frantsesezko bibliografi eskaintzara jo behar izan dutelako, hezkuntzako lehen etapetan hasitako kultur garapen elebiduna egoki jarraitzeko euskarazko oinegiturarik ez izatean.

Goimailako irakaskuntzan aurrera egiteko ahalbide faltaz trabaturik gelditze hori gure herriak ordain ez dezakeen luxua da, are gutxiago gure identitate-zantzu guztiekin European sartu nahi badugu.

Horregatik, ezinbestekoa zirudien, Unibertsitatearen barruan eta kanpoan sortu diren banako eta taldeen indar-ekimenak guztiak biltzea garai guztietako pentsamendu-obra nagusien bilduma bat diseinatu, itzuli eta argitaratzeko eta horre la etorkizuneko euskal kulturgintzari eustazpi sendoa ezartzeko.

## ITZULPENA ETA MERKATUA

Ez dugu uste ahoberokeria denik, azken urteotako euskal kulturgintzan protagonista garrantzizkorik izan bada, hori itzultzailea izan dela aitortzea, batez ere azken hamarkadari dagokionez, zeren urteroko tituluen kopurua nabarmenki ugaldtu du, alde batetik, eta bai komunikabideetan (prentsa, irrati eta telebistan) eta bai administrazioan, luberri garrantzitsuak urratu ditu, bestetik.

Ziur gaude, itzulpenak egiteko garrantzitsu bat duela gure gizartean elebitasuna orekatzen; izan ere, sorkuntza propioak, bai testu literarioenak eta bai testu pragmatikoenak, oraingoz ekoizmen mugatua baitu eta baliabide gehiago zuzendu arren, nekez lortuko litzateke emaitza askoz ugariago eta hobetik. Aitzitik, itzulpenak orain arte behar adinako laguntzarik jaso izan ez badu, kulturgintzan duen garrantzia behar beste kontuan hartu ez delako izan da, eta itzultzailearen hizkuntzarekiko harremana zenbaitentzat badaezpadako samarra eta sorkuntzaren etsai gisako zerbait gertatu delako. Baina argi dago, beste edozein alorretan bezala, itzultzaileak egoki prestatuz bakarrik lor daiteke beroriek profesionalki burutuko duten

emaitzaren onargarritasuna, eta ez berorien lana eta gaikuntzarekiko uzkur agertuta.

Une honetan EIZIEk, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak ia berrehun lankide inguru biltzea lortu du bere baitan eta Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko «Literatura Unibertsala» bezalako proiektu garrantzitsuak burutzen dihardu. Beraz, argi dago, duela zenbait urte ez bezala, euskal kulturak baduela itzultzaile-kopuru garrantzizko bat, ongi prestatua, jatorrizko hizkuntzetatik obrak itzultzeko gai dena, eta posible dela «Pentsamenduaren Klasikoak» bezalako bilduma bat diseinatu eta plazaratzea, orain hamarkada bat lehenago agian ez bezala.

Azkenik, uste dugu, ez dagoela lekuz kanpo hemen gogora ekartzea, nola zibilizazio eta kultura handien azterketa soil bat eginez gero, beti argi eta garbi ikusten dela, itzulpen inplizitu edo esplizitua beti presente egon dela loraldi literario eta zientifiko-filosofiko guztietan giza historiaren egunsentitik hasita.

## «PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK» PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Pentsamendu unibertsaleko obra nagusienak euskaratzeko eta euskal kulturaren gaur eguneko egoerari behar bezala erantzuteko, gurea bezalako proiektuak ondoren adierazten diren baldintza hauek bete behar izan ditu:

a) Unibertsitateko premia nagusiak eta merkatu zabalago baten eskakizunak kontuan izanik arretaz hautatu behar izan ditu titulu, gai, garai, hizkuntza eta estiloak orekatuki uztartuz. Bost urteko epean argitara emango diren lehen berrogeita hamar tituluen hautapenean, honako jakitun hauek osaturiko Komite Zientifikoak esku hartu du: Jesus Altuna, Bernardo Atxaga, Joxe Azurmendi, Carlos García Gual, Frantzisko Garmendia, Ander Manterola, Iñaki Oyarzabal, Ibon Sarasola, Frantzisko Uribarren, José María Valverde eta Francisco Darío

Villanueva jaunek, Bilduma-Zuzendaria den Xabier Mendiguren Bereziarturen gidaritzapean.

Aipaturiko aholkulariez gainera, Unibertsitateko katedradun eta espezialista ugarirekin izan dira harremanak eta horiek ere, nor bere aldetik, Unibertsitateko irakaskuntzaren ikuspegitik garrantzizkoak diren autore, obra eta antologiak proposatu dituzte.

b) «Pentsamenduaren Klasikoak» bildumak argitara emandako itzulpenek edukinez ahalik eta kalitate handienekoak izan daitezten, obra bakoitzerako itzultzaile egokienak hautatzeaz gainera, obra bakoitzaren gainbegiratzaileria ere izendatu du gai bakoitzean aditua den norbaitek araka dezan, eta azkenik, inprimatu baino lehen, hizkuntz orraztua ematen zaio euskalkien eta euskara batuaren artean oreka egoki bat lortzeko, eta Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioak bermatzeko.

Honezaz gainera, garrantzi handia eman zaio hitzaurregileen aukerari ere, eta ia beti, lehen mailako adituek idatzi dituzte sarrerak.

Testu gehienak oharrez eta bibliografiaz horniturik doaz, eta horiek ere gehitu egiten dute itzulpenaren balioa, irakaskuntzan erabili ahal izateko.

c) Bildumaren diseinua eta itxurari dagokionez, gorporetzako irudian espezialista hoberenen laguntza izan da, eta lortu den emaitza begibetegarri da zinez, nola dotoreziari hala trinkotasunari dagokionez.

## KLASIKOAK, S.A. ETA BERE HELBURUAK

Aipaturiko proiektua ahalbidetu duen lukro-asmorik gabeko sozietatea Klasikoak, S.A. da, 1991ko irailean eratu zen BBV Fundazioa, EAEko Aurrezki Kutxen (BBK, Kutxa, eta Vital) eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateen ekimen partekatuen ondorio gisa.

«Pentsamenduaren Klasikoak» bilduma Montaigne-ren *Entseiuak-I* obrarekin estreinatu zen eta orain arte honako titulu hauek argitaratu ditu: *Utopia* (Th. Moro), *Honela mintzatu zen Zaratustra* (Nietzsche), *Sysiforen mitoa* (Camus), *Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua* (Berkeley), *Politeia* (Platón), *Indio Aurkitu berriak* (Francisco de Vitoria), *Hezkuntza eta Soziologia* (Durkheim), *Entseiuak II* (Montaigne), *Askatasunetik iheska* (E. Fromm), *Bizitzaren Laburtasunaz* (Seneka), *Giza ezagutzari buruzko ikerketa* (D. Hume) eta 1993 urtearen gainerakorako honako titulu hauek ditu plangintzan: *Gizarte Hitzarmena* (J.J. Rousseau) eta *Ateismoa Kristautasunean* (E. Bloch).

1994tik 1997ra bitartean beste 36 titulu gehiago plazaratzeko asmoa dauka, lehen aldiko berrogeita hamarrak osatu arte. Hona hemen hautaturiko obrak: *An Essay on Man* (E. Cassirer), *Das Heilige* (R. Otto), *The Sense of Beauty* (Santayana), *The Language* (L. Bloomfield), *Leviathan* (T. Hobbes), *The Golden Bough I-II* (J.G. Frazer), *Breviario di Estetica* (B. Croce), *Metafisika* (Aristoteles), *Anthropologie structurale* (C. Lévi-Strauss), *Examen de Ingenios* (Huarte de San Juan), *La naissance de l'intelligence chez l'enfant* (J. Piaget), *Historiai I-II* (Herodoto), *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* (J.G. Herder), *Darstellungen der Psychoanalyse* (S. Freud), *De Consolatione Philosophiae* (Boethius), *Ethica ordine geometrico demonstrata* (B. Spinoza), *Lettres philosophiques* (Voltaire), *The Origin of Species* (Ch. Darwin), *The Principles of Political Economy and Taxation* (D. Ricardo), *Nouveaux essais sur l'entendement humain* (Leibniz), *Forfore rens Dagbog* (S. Kierkegaard), *Del sentimiento trágico de la vida* (M. de Unamuno), *La rebelión de las masas* (J. Ortega y Gasset), *The Moralists* (Shaftesbury), *Prolegomena* (I. Kant), *Moriae Encomium* (E. de Rotterdam), *Le plaisir du texte* (R. Barthes), *De la démocratie en Amérique I-II* (A. Tocqueville), *Essais III* (M. de Montaigne), *The General Theory of Employment, Interest and Money* (J.M. Keynes), *Über den Willen in der Natur* (A. Schopenhauer).

Bere bigarren aldian, autore eta obren zerrenda hori jadanik neurri handi batean aurrikusirik dauden ehun tituluak

osatu arte hedatuko da, kultur eta akademi sektore desberdinen iradokizunak kontuan harturik, horrela «Pentsamendua-ren Klasikoak» oinarritzko liburu-sorta ezinbestekoa gertatuko delarik euskal kulturaren baitan.

Une honetan, bildumaren bigarren aldi horretarako autoreen artean, besteak best, Tuzidides, Estrabon, Plotino, Epicuro, Vitrubio, Galileo, Kopernico, Descartes, Newton, Montesquieu, Humboldt, Adam Smith, Weber, Russell, Wittgenstein, Jaspers, Husserl, Feuerbach, Heisenberg, Popper, Adorno, Benjamin, Toynbee... daude.

Klasikoak, S.A. elkarteak etekin komertzialik ez nahi izateak aukera ematen du aipaturiko obrak, jadanik adierazitako kalitate mailan eta kostu-prezioan saldu ahal izateko, hiru modutako harpidetza bidez: esku-dirutan, hilerokotan eta urterokotan ordainduz, irakurlearentzako ekonomi abantaila nabarmenarekin.

Lehen tituluak direla eta, harpide eta irakurleengandik jasotako erreakzio eta iritziei bagagozkie, esan beharra dago bildumak sortutako itxaropenari erabat erantzuten diola, edukinaren aldetik hala aurkezpenarenetik ere.

## «PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK» BILDUMAREN ERAGINA

Aipaturiko ezaugarriak dituen «Pentsamendua-ren Klasikoak» bezalako bilduma batek eragin eta ondorio ugari ditu beti, baina bi azpimarratu nahi ditugu hemen duten garrantziaren arabera. Alde batetik, jadanik esan denez, bibliografi oinengitura, irakaskuntza ertain eta unibertsitarioan beharrezkoa dena sortuko du, aldi berean komunikabidetako kultur erreferentziak orokorrean erraztuz, eta entseigintza eta literatur sorkuntzarako ere material garrantzitsuak eskuratuz.

Bestalde, hizkuntzaren batasunari egundoko bultzada emango dio prosa filosofiko-zientifikoa, batipat, garatuz, aldi berean euskara batua euskalkietatiko ekarpen ugari eta aberasgarriez finkatuz. Itzultzaile bakoitzak aurrez aurre izango

duen erronkari erantzuteko ahaleginean hiztegia aberastu eta sintaxia malgutu ez ezik, tradiziozko altxorra nabarmen haziko da jatorri desberdinetako mailegu eta kalkoekin.

Azkenik, dozenaerdi bat hizkuntzatan (greko, latin, frantses, ingeles, aleman, italiera, espainol eta abarretan) hogeita hamarrenbat itzultzaile trebatu izateak, beste hainbeste gainbegiratzailerekin orain arte inoiz ez bezalako hizkuntz arragoa sortuko du, itzulpengintzako makineria oliotuz, etorkizuneko urteetan beste hainbat lan interesgarri itzuliz kultur zubigintzan aritzeko. Hau eta beste gauza asko esan liteke «Pentsamenduaren Klasikoak» bildumaz. Ia amets utopiko izate-tik, Mendebaldeko kulturak garatu dituen fruitu umoenak euskal kulturarako biltzen dituen uztamakina izatera epe laburrean iritsi den sorta horretaz.

# JASO DITUGU

- AIKEN, Joan: **Zentzu bakarreko kalearen ipuina**. MENDIGUREN, Iñaki. PIENKOWSKI, Jan. Elkar. Donostia. 1993. 18,5 □ 13 cm, 156 or.
- ALDAI, Xabier: **Bala zeru urdina**. Susa. Lasarte. 1993. 20 □ 12,5 cm, 66 or.
- ARANA MARTIJA, Jose Antonio: **Julio Urkixo (1871-1950)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 23,5 □ 22 cm, 20 or.
- ARANA MARTIJA, Jose Antonio: **Resurreccion Maria Azkue (1864-1951)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 23,5 □ 22 cm, 20 or.
- AROSTEGI, M<sup>a</sup> Jose (Koord.): **Arkeoikuska 92**. Luma, C.B. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 22 □ 23 cm, 350 or.
- ARRILLAGA ANABITARTE, Pedro: **Los barcos en la mar y su maniobra en puerto**. ARRILLAGA, Ainhoa; LEGARRA, Roger. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 154 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ayudas técnicas: Sistemas de prestación**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 90 or.



- ASKOREN ARTEAN: **Cuadernos de Sección-Musica**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 24 □ 17 cm, 172 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Directorio de Servicios Sociales de la C.A.P.V.**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 27 □ 15 cm, 384 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Eskola Antzerkia 2**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 206 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Eskola Antzerkia 3**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1992. 21 □ 15 cm, 258 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Euskadiko Koperatiben Legea. Ley de Cooperativas de Euskadi**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 17 □ 12 cm, 422 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Evaluación de las personas con deficiencia mental**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 92 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Guía sobre criterios ambientales en la elaboración del planeamiento**. ASKOREN ARTEAN. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 29,5 □ 21 cm, 80 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Homenaje al investigador Félix M<sup>a</sup> Ugarte Elorza ikerlariaren omenez**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 24 □ 17 cm, 538 or.
- ASKOREN ARTEAN: **La cooperación pública vasca con el tercer mundo a prueba. Análisis de una selección de proyectos**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 228 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Manual de elaboración de planes de servicios e intervenciones individualizados**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 38 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Naturaren kontserbazioa: nora goaz?**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 30 □ 21 cm, 202 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Premio Gonzalo Nardiz de etologia-1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 112 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Seguridad contra incendios en el metro. Bilbao, Octubre 1993**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 164 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Sexu arrazoiengatiko lan bereizkeria lege eta gizarte ikuspegitik / Perspectiva jurídica y social de la discriminación laboral por razón de sexo**. GAMBOA, M<sup>a</sup> Jose. Emakunde. Gasteiz. 1993. 31 □ 21 cm, 232 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Sistema de Justicia penal juvenil en Europa**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 162 or.

- ASKOREN ARTEAN: **Urruzuno literatur lehiaketa 1993**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 □ 15 cm, 214 or.
- ASKOREN ARTEAN: **XI Jornadas de economía social de Euskadi**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 88 or.
- AYERBE IRIBAR, M<sup>a</sup> Rosa: **Documentación medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500)**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 23 □ 16 cm, 316 or.
- CAPOTE, Truman: **Odol hotzean**. OLARRA, Xabier. Igela. Iruñea. 1993. 20 □ 12 cm, or.
- CARVER, Raymond: **Katedrala**. MENDIZABAL, Juan Mari. Elkar. Donostia. 1993. 19 □ 12 cm, 260 or.
- DIESTE, Rafael: **Intxixuen artxibotik**. IZAGIRRE, Koldo. Elkar. Donostia. 1993. 19 □ 12 cm, 98 or.
- DUMAS, Alexandre: **Kameliadun Dama**. AZKUNE MENDIA, Iñaki. OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1993. 19 □ 12,5 cm, 284 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Las Entidades de Previsión Social Voluntaria (III y IV Seminario sobre E.P.S.V.)**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 224 or.
- E.J. Nekazaritza eta Arrantza Saila: **Memorias-90. Investigación agropesquera**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 212 or.
- EGUZKITZA, Andolin: **Mila urte igaro eta, ura bere bidean**. Susa. Lasarte. 1993. 20 □ 12,5 cm, 72 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **La lucha contra la droga en la escuela. La experiencia americana**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 21 □ 21 cm, 140 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Plan trienal de drogodependencias. Año 93, 94, 95**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 22,5 □ 22 cm, 226 or.
- EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA: **Arkeoikuska 92. Arkeologi ikerketa. Investigación arqueológica**. LUMA, O.E. / Koord.: AROSTEGI, M. Jose. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 22 □ 23 cm, 350 or.
- EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA: **II Congreso Estatal sobre Infancia Maltratada**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 674 or.
- EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA: **Materiales y recursos para la prevención del uso indebido de drogas**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 240 or.

- EUSTAT: **Biztanleriaren Berezko Mugimendua (B.B.M.) 1992 Movimiento Natural de la Población (M.N.P.)**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 94 or.
- EUSTAT: **Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 1991 Biztanleria Aktiboa / Censos de Población y Viviendas 1991 Población Activa**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 244 or.
- EUSTAT: **Estatistika Boletina III-1993 Boletín de Estadística**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25 □ 20,5 cm, 94 or.
- EUSTAT: **Estatistika Boletina IV/1993 Boletín de Estadística**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 94 or.
- EUSTAT: **Etxebizitzak-Viviendas. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak 1991 Censos de Población y Viviendas**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 162 or.
- EUSTAT: **Euskal Autonomi Elkarteko Input-Output Taulak 1990 Tablas Input-Output de la Comunidad Autónoma de Euskadi**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 22,5 cm, 630 or.
- EUSTAT: **Gizarte Zerbitzuen Estatistika (entitate eta zentroak) 1991 Estadística de Servicios Sociales (entidades y centros)**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 178 or.
- EUSTAT: **Industri Kontuak 1991 Cuentas Industriales**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, or.
- EUSTAT: **Industri Prezioen Indizea 1992 Índice de Precios Industriales**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 90 or.
- EUSTAT: **Industri Produkzioaren Indizea 1992 Índice de Producción Industrial**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 122 or.
- EUSTAT: **Irakaskuntza Pribatuaren Gastu eta Finantzaketaren Estatistika 1991 Estadística del Gasto y Financiación de la Enseñanza Privada**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 152 or.
- EUSTAT: **Merkatal Sektoreko Kontuak 89-90 Cuentas del Sector Comercio**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 130 or.
- EUSTAT: **Migrazio-Mugimenduen Estatistika 1991 Estadística de Movimientos Migratorios**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1993. 25,5 □ 21 cm, 118 or.

- FLUIXA, Josep Antoni: **Etxeorrazeta**. ELIZEGI, Patxi. LAVEDA, Antoni. Elkar. Donostia. 1993. 18,5 □ 13 cm, 60 or.
- GIRALDEZ PIDAL, Elena: **La Balanza Tecnológica**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 336 or.
- GRANJA PASCUAL, Jose Javier: **Arturo Kanpion (1854-1937)**. BIGURI, K. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 23,5 □ 22 cm, 16 or.
- GRANJA PASCUAL, Jose Javier: **Koldo Eleizalde (1878-1923)**. ALBIZU, I. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 23,5 □ 22 cm, 20 or.
- HALLAM, Anthony: **Lurreko zientzien iraultza: Kontinenteen jitoik plaken tektonikara**. AZKUNE, Iñaki eta beste. Gaiak. Donostia. 1993. 21 □ 15 cm, 186 or.
- IGERABIDE, Juan Kruz: **Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotatuna eta Literatura)**. Erein. Donostia. 1993. 20,5 □ 13 cm, 128 or.
- IKEL: **Las Empresas Vascas ante los Mercados Exteriores**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 260 or.
- JAMES, Henry: **Koxka bat estuago**. URTEAGA, Joseba. Igela. Iruña. 1993. 18 □ 10 cm, or.
- JUARISTI, Felipe: **Tristuraren teoria**. ZABALETA, Jon. Erein. Donostia. 1993. 20 □ 17 cm, 48 or.
- KAFKA, Franz: **Prozesua**. GARIKANO, Antton. Elkar. Donostia. 1993. 19 □ 12 cm, 284 or.
- KUNDERA, Milan: **Amodio barregarriak**. CID ABASOLO, Karlos. Erein. Donostia. 1993. 20,5 □ 13 cm, 256 or.
- LITTLE, David eta beste: **Sarbide zuzeneko sistemak hizkuntz ikaskuntzan. Gida praktikoa**. LARRAMENDI, Usoa. HABE. Donostia. 1993. 21,5 □ 14,5 cm, 76 or.
- LONDON, Jack: **Batasunaren deia**. MENDIGUREN, Iñaki. JØRGENSEN, Oskar. Elkar. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 78 or.
- LOPETEGI, Eskarne: **Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 276 or.
- MARQUET, Luis; ISASTI, Begoña; ODRIOZOLA, J.M.: **Aproximación al sistema de derecho alimentario: incidencia en el label de calidad vasco**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1991. 24 □ 17 cm, 104 or.
- MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier: **Ankerki**. Elkar. Donostia. 1993. 19 □ 12 cm, 212 or.
- MONASTERIO, Xabier: **Ipuin naturalak**. LANDA, Erramun. Elkar. Donostia. 1993. 18,5 □ 13 cm, 76 or.

- MUJIKA, Luis Mari: **Loitzu herrian uda-partean**. Erein. Donostia. 1993. 20,5 □ 13 cm, 196 or.
- ORMAZABAL, Joxantonio: **Maripertxenta**. 4. ed.. ARRASTALU. Elkar. Donostia. 1993. 18,5 □ 13 cm, 120 or.
- PUENTE PICO, Esteban: **La pesca artesanal en aguas costeras vascas**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 24 □ 17 cm, 192 or.
- RUIZ DE ALARCON, Antonio: **Iltzea**. LINAZASORO, Karlos. BELMONTE, Jose. Erein. Donostia. 1993. 19 □ 12,5 cm, 96 or.
- SAIZARBITORIA, R. eta beste: **Zerbitzuan-23. Gizarte zerbitzuetako aldizkaria**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 27,5 □ 18 cm, 116 or.
- SCHOMMER, Alberto: **Azul**. Edizio eta Argitalpenak (Kutxa). Donostia. 1993. 29,5 □ 32 cm, 176 or.
- STEVICK, Earl W.: **Arrakasta hizkuntza arrotzetan. Zazpi ikaslek nola lortu duten**. LARRAMENDI, Usoa. HABE. Donostia. 1993. 21,5 □ 14,5 cm, 200 or.
- STOKER, Bram: **Drakula**. MENDIGUREN, Iñaki. ORTIZ, Jose Mari. Elkar. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 72 or.
- TWAIN, Mark: **Hadleyburg usteldu zuen gizona**. CILLERO, Javi. Erein. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 112 or.
- Txiliku: **Indianoa**. Elkar. Donostia. 1993. 20 □ 12,5 cm, 146 or.
- WEINBERG, Steven: **Unibertsoaren hasierako hiru minutuak**. AZKUNE, Iñaki eta beste. Gaiak. Donostia. 1993. 21 □ 15 cm, 196 or.
- X.X.: **Arabiako gau-ipuinak**. MENDIGUREN, Iñaki. ORTIZ, Jose Mari. Elkar. Donostia. 1993. 18 □ 11 cm, 76 or.
- XENAKIS, Françoise: **Uhaldean**. ALVAREZ SANTACRISTINA, Jose Luis. Txalaparta. Tafalla. 1993. 19 □ 12 cm, 116 or.
- ZALAKAIN, Jexuxmari: **Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da**. Txalaparta. Tafalla. 1993. 21,5 □ 13,5 cm, 282 or.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello: **Idazkera-liburua**. 2. ed.. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1993. 23 □ 15 cm, 332 or.
- ZUBIZARRETA, Patxi: **Jentzi**. OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1993. 19 □ 12,5 cm, 58 or.